

GUARAGUAO

eta beste kontakizunak

Joaquín Gallegos Lara



Itzulpena: Esteban J. Agirre Lazkano



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Guaraguao

eta beste kontakizunak

JOAQUÍN GALLEGOS LARA

Itzulpena:

Esteban J. Agirre Lazkano

Eskaintza

Mama Yoya, Rodrigo eta Ekuadorko
sendikooi.

Cecilia Ansaldo, Willington Paredes,
Carlos Calderon eta Ekuadorko lagunoi.

Zuek irakatsita jalgi bainaiz Ekuadorko
arimaren hitz-esamoldeetara.

Eta batez ere zuei,
Sandra, Uxue eta Iban,
zuek gogoan hasi bainintzen
egiteko honetan.

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	0
ITZULTZAILEAREN OHARRA	2
GUARAGUAO	1
GIZONA BAI, ANDREA EZ	6
AMA ZEN!	15
KIZKURRA ERDI ZENEAN	23
TABAKO-KOLPEA	29
BASOMUTILAK	40
URAK GORA EGITEAN...	55
BASA ANDEREA	61
BIKOTE BITXIA	68
GERRA	77
AHOTZARRA	83
“ETXE BAT ERORI DA”	95
KAKA-PATARRA	99
SOLASALDIA GUAYAQUILEN	106
ETXEKOANDREA	112
GOLKO-HAIZEA	123
ITZALA GURUTZATU ZENEKOA	130

BETIGOSE	140
KUMEAGATIK	148
GIZONA ETA IBAIA	156
HAU DA MENDI-ITSASOEN IPUINA, ESPAINIA GABEKO INDIARREN ISTORIO BAT	161
USAIN GALKORRAK	170
HARAT-HONAT, AZKENEKOZ	177
AZKEN SOLASA	190

ITZULTZAILEAREN OHARRA

Liburu hau Ekuadorko literaturaren zatitxo bat ezagutzera emateko asmoz egin badut ere, oin-oharrez hornituta doakizu. Ez dira jatorrizkoak, itzultzaile honi zor zaizkio baizik. Egileak adierazi nahi duena gerturatzeko asmoz sartu ditut.

Batzuetan egileak kaletik jasotako hitz-esamoldeei buruzkoak dira; bestetan, Ekuadorko indigenen “berezko” hizkuntzatik –kitxueratik, gehienbat– erreskatatutakoez dihardute. Kasu batean zein bestean, euskaraz parekiderik ez duten terminoak.

Ohar gehienak landare-abereen taxonomia-argibideak eskaintzeko dira. Kasu honetan ere zientzia-xehetasunak emateko ez, baizik irakurleak hobeto uler dezan pasartearen mamia sartu ditut. Dena dela, nire asmakizunak ez direnez, aitor dezadan iturria ere: *Diccionario de Americanismos*, Asociación de Academias de la Lengua Española, Lima 2010.

Azken ohar multzoa Ekuadorko nahiz Hego Amerikako geografian eta historian erreferentziazkoak diren eta gure artean gutxi ezagutzen diren zenbait izen eta gertaeraren azalpenek osatzen dute.

Lagungarri gertatuko ahal zaizki

GUARAGUAO¹

Hala modukoa zen gizona. Betizua, bakardadeetakoa. Ez, hala ere, bakartia: ahotik kargatzen zen eskopeta lagun zuela, beti... eta guaraguao bat.

Gandor gorriko guaraguaoa, moko sendokoa, lepagorria, atzapar handikoa eta luma-beltza. Indioilar koskorren tamainakoa.

Guaraguaoa, izan ere, kapitaina da sarraskijaleen artean. Bera da urrunenetik usnatu abere hilen ustel-kiratsa eta taldea gidatzen duena.

Gure guaraguaoa, ordea, inguruka ibili ohi zen edota pausatuta, hala moduko gure gizonak zeraman eskopetaren kanoian.

Koartzen ehizan ibili ohi ziren biak elkarrekin. Gizonak tiroa jo eta guaraguaoa hegan joaten zen, aztoreen modura, zingira erditik ehiza-gaia atzaparretan ekartzera.

Herrietara bolbora- eta munizio-bila bakarrik jaisten ziren. Eta lortutako lumak saltzera. Gizonari "Chancho-rengo"² deitzen zioten.

—Txerrena uk arraio alena, bino Chancho-rengona ite ik.

Libera pare bat eskas luma osatu orduko, han joan ohi zen herrixketako dendari txinatarrei saltzera.

¹ (*Buteo jamaicensis*) Hegazti harraparia. Sorbaldako lumak ilunak ditu eta sabelaldekoak, zurixkak; isatsekoak, berriz, oso biziak ditu: laranja, gorri edo kanela kolorekoak. Latinoamerikako lurralde tropikaletan bizi da.

² Ekuadorko herri-hizkeran, gai batetik iheska edo halako zera gogoko ez duenean, ez-ikusiarrena egiten dion pertsona adierazteko erabiltzen da.

Hamabost-hogei sucre³ inguru ematen zioten, ehun, gutxienez, balio zuen generoaren truke.

Chancho-rengok bazekien; baina gorroto zuen eztabaidan hastea. Ez zuen, gainera, askoren beharrik, zeraman bizimodurako. Zarpail janzten zen. Mendian noragabe ibiltzen zen.

Beltza zen, arrazaz; aurpegiera finekoa; hitz gutxiko ezpain irribarretsua zuen.

Esmeraldas-etik⁴ etorria zela uste zen. Guaraguaoaz galdetzean, zera esan ohi zuen:

—Deus etzelako jaso nian... Txiki-txikia zenetik hazi diat... Arfonso ik izena.

—Ta zetik Arfonso?

—Hoixe ata zitelako ipintzia.

Behin, ez bi, lau libera luma jaitsi zituen herrira. Txinatarrek berrogeita hamar sukre eman zizkioten.

Sancheztarrek, halako luma-pilaz ikusita, berrehun gutxienez atera zituela pentsatu zuten.

Sanchez horiek bi anaia ziren. Aberats baten erdi peoiak: haren erdi lekaio, erdi bizkartzain.

Eta Chancho-rengo berrogeita hamar sucreetako hamar gastatu eta bere mendietara zihoala, zelatan zegozkion.

Iluntzen ari zuen. Astiro zihoan, eskopeta sorbaldan; eta kanoian, zutik, guaraguaoa.

³ 116 urtez –1884 eta 2000 artean– Ekuadorko dibisa-unitatea izen zen monetaren deitura.

⁴ Ekuadorko ipar ertzean kokaturiko probintzia. Biztanleriaren zati handiena (%80) arraza beltzeko pertsonak osatzen dute. Herrialde honetako kulturak ere, horri loturik, erro afrikar oso sakonak ditu.

Ez zioten babesteko astirik eman. Ezta oihu egiteko ere. Aihotzak alde guztietatik erori zitzaizkion. Eskopeta alde batera erori zen eta, harekin, baita guaraguaoa ere.

Hiltzaileak eroriaren gainera makurtu ziren. Barre txikika ari ziren. Hartu zuten eskuetan ustez oparoa izango zen diru-sorta.

Serafin, anaietako zaharrena, oihuka hasi zen bat-batean:

—Ai, ai, ai! Koska in tziak hontzan batek!

Pedrok, besteak, ia muturren parean sumatu zuen hegal-ukitu bat. Hegodun zer edo zer zebilen. Ilunpeetan. Hildakoa zaintzen zuen nor edo nor.

Beldur izan zuten. Eta ihesi alde egin zuten.

Gau osoa eman zuen Chanco-rengok orbel artean botata. Hilda ez; hiltzen.

Ez da ezer itsumena baino ankerragorik; eta itsumustuan erabilitako aihotz haiek bizi-haritxo baten ile-xerloa utzi zioten Chanco-rengori.

Egunsentiaren hotza. Zerbaiten zama, saihetsean. Mugitu zuen eskua, ia ezin bazuen ere. Zerbait latza ukitu, eta erdi ireki zituen begiak.

Egunsentiak liliz loreztatzen zizkion soin gainean sabaia egiten zioten orbel arteko zuloak.

Gela bat iruditu zitzaion. Hil-beilako gela. Gortina urdinez eta beltzez jantzitako gela.

Saihetsean zuena, alabaina, guaraguaoa zen.

—Hara! ehorri haiz, Arfonso? Ez... ez... e nazak jan... ume batek... etziok... kosk... iten... attai:... bestiak...

Zabaldu zuen, azkenik, eguna. Mendi-oilarrak⁵ kantari hasi ziren. Chocota⁶ talde bat hegan pasa zen behe-behetik: pila bat. Beste bat, chiqueena⁷, goragotik.

Tximu-talde bat adarrez adar igaro zen, oihuka.

Sarraskijale bat pasatu zen goi-goitik.

Ikusiko zuen dagoeneko.

Inguruka hasi zen, zabal-zabal hegan. Azaldu zen beste bat ere eta hasi zen erronda beltza.

Etorri ziren gehiago. Eulien pare. Estutu zuten inguratzea. Hasi ziren, “looping” eginez, jaisten. Hosto ihartuen gisara jausten ziren.

Alai zeuden; segurua zuten.

Zertan berandutu hodeiak harrapatzen?

Haietako bat belardian lurreratu zen lotsati, nahikoa gertu. Gizakia beldurgarria da; baita hil eta gero ere.

Serios, apezpiku baten pare, luzatu zuen buru morea eta begiztatu zuen guaraguaoa. Aurrea hartu zionen bat izango zen. Lasaiago, aurrera egin zuen.

Jaitsi ziren besteak ere eta hurreratu ziren, hegoak astinduz. Otordu-prestaketaren zalapartak.

Baina ustekabekoa!

⁵ (*Tinamus major*) Ekuadorko hegazti mota. ‘*Gallina/Gallo de monte*’ izenez ezagutzen da. Hemengo eperraren antza du. Gure lurraldean baliokiderik ez du eta, horregatik, sortu dugun deitura berria.

⁶ Hiztegietan aipamenik aurkitu ez dudan arren, Ekuadorko solaskideek jakinarazi didate basoetako hegazti mota bat dela. Laborariak gorroto handia omen diete, landatutako aleak jaten dituztelako.

⁷ Hiztegietan eta adituen artean egindako ahaleginek arrastorik eman ez badigute ere, hitza kokatuta dagoen testuinguruak argi uzten du hegazti-mota bat adierazten duela.

Oilarra bere oilategian bezala, guaraguaoa erasoan atera zitzaien, ezproikadak botatzen, hankapean hartzen. Sarraskijale guztiak, erdi hegan, atzera egin zuten minduta. Tarte utzi eta solasean ari zirela zirudien: zekena, halakoa! Dena berarentzat nahi zuen!

Goiza pizten ari zen. Ahalegin guztiak bertan behera moztu zizkien. Loro-jario berde bat igaro zen kalakari. Sarraskijaleek, kikilduta, urrundu egin ziren hegan.

Hilotzaren odola, eguerdirako, euliz gainezka zen; kiratsa zerion.

Zauriak, ahoa, begiak... ubelduta.

Kirats hark jateko irrika pizten zien luma-beltzei. Etorri zen beste guaraguao bat. Arfonso –Chancho-rengorena– zain geratu zitzaion, tente. Han ez zen, ez borrokarako plazarik, ez joko-zelairik. Ez ziren boxeolariak, ezta oilarrak ere. Amorruren amorruz borrokatu ziren.

Arfonsok eskuin-begia galdu zuen, baina, burezurrean eman zion ezproikadaz, bertan utzi zuen etsaia akabatuta.

Eta, etorri ahala, kideak uxatzen jarraitu zuen... gaua berriro sabana gainean pausatu zen arte.

* * *

Eta hala izan zen...

Zortzi egun geroago Chancho-rengoren gorpua aurkitu zuten arte. Ustelduta, alboan, hilotz, guaraguao argal-argal bat zuela, hezur eta luma, besterik ez.

Har eta txindurriek jana zegoen. Ez zuen, ordea, mokokada bat beraren izpirik.

GIZONA BAI, ANDREA EZ

I

Aihotza aho parean jarri eta arnasaz lausotu bitartean, txaluparen sakonenean etzanik, gorrotozko eta amorruzko hitz-jarioa zerion gizonari bere haserrean.

Ibaiaren urak urre zikina zirudien. Eguzki-argiak jo ondoren, kobre leunduzko alehun eta milaka ispilutan zatitzen zen. Txalupa zambuluka zihoan, olatutxoen plisti-plastak alboetan joa.

Ertzetik edonork usteko zuen hutsik zegoela.

Ontzi-hondoan etzanik, Chombok uretan behera eramaten uzten zion ibaiari.

Ontzia nahierara zihoan, gidatu gabe, gizonak aihotzari musu eman eta mintzo zitzaion bitartean:

—Hi bai, zintzoa. Eta garbia! Bestiai izan nionan maitasuna lakoa! Hiri esker kobrau ber dinat... Elkarri lotuta harrapa nahi nizekikek...

Mareabehera zen. Ontzia uraren alde zihoan irristaka. Eguzkia zuzenean erortzen zen hodeirik gabeko zerutik. Adarpeetan, bejucoen⁸ bizar artean, gerizpe urdinak sortzen ziren han-hemenka.

—Nazkarriya...

⁸ (*Mikania glomerata*) Hego Amerika osoan oso hedatuta dagoen landarea. Bere adar malgu eta gogorrengatik hesietan loturak egiteko erabiltzen da batez ere.

Altxa zen, sartu zuen aihotza zorroan eta heldu zion arraunari. Gidaturik, ontziak guachapelízko⁹ sabel bikeztatua jaso zuen. Gutzira, hondartza txiki batean lehorreratu zen.

Behin txalupa lehorreratu ondoren, gizona mango¹⁰ artera atera zen. Oinutsik zebilen arren, hegoak zituela zirudien. Orbel lehorrei soinurik txikiena ere ez zien utzi ateratzen.

Han, berdegunean, ikusi zuen bere etxetxea, atzeko aldetik. Oholez egindako garbitokia. Bizitokiaren azpian, erdi egur egindako enborra, aizkora itsatsita zuela oraindik. Adar batetik zintzilik, chayo¹¹ bat ikus zitekeen lehortzen. Argiz apaindutako gerizpea, inguruan uxarreen zebiltzan zerrien kurrinkek hautsia.

—Ez diat hau geyo ikusko! Jun in berko iat! Itsasoa-eo! Ibili, auskalo noa... Heriotza eman behar zien. Bai. Gizonari, kanpoan, hesi inguruan, gizon legez. Emakumeari, urdanga gisa. Barruan, non-nahi. Ezkutatu egin zen, ateari lotuta, beste aldetik, Juanen zaldia ikusi baitzuen...

⁹ (*Diphyssa spp.*) Ekuadorko basoetako zuhaitz mota. Euskal Herriko askaziaren antzekoa da; eta, duen tinkotasunagatik, oso estimatua altzariak egiteko.

¹⁰ (*Mangifera indica*) Hego Amerika osoan hedapen handia duen zuhaitz mota eta fruitua. Zuhaitz zabala izanik, jendeak estimu handia dio, bai egiten duen gerizagatik eta bai oparo ematen dituen fruitu gozoengatik.

¹¹ (*Sechium edule*) Ameriketako zuhaixka igokari baten zein fruituaren izena. Gure udarearen antza du. Behin egosi eta gero, jangarria da.

Catarnica¹² talde bat pechicheak¹³ ia ukitian igarotzen ari zen. Olleroak¹⁴ txistuka ari ziren, non edo nongo bidaiariren bati deika bezala. Eguzkia epel zebilen kanaberadietako hesi garaiei gaineratik.

II

—Juan!

—Chombo!

—Jetsi hai zalditik! Hikin borroka in nahi diat. Ukabilka, aihozka in hirekin. Odola ean nahi diat!

Arnasestuka eta urduri, ahotsa geldo eta ilun ateratzen zitzaion. Kanpoan itxaron zion.

Eta hortxe egin zuten topo elkarrekin. Saihetsezina, hilabeteetako iruzurraren ondoren.

—Itxoin... Zetik?

—Bakik ehorrek-e... Etzak eruana in... Eta isekaik ez nei, eo sugiak bino okerro hilko haut...

—Bino...

¹² (*Pionus cyanescens*) Ekuadorren oso ezaguna den txori mota. Beti taldean ibiltzen da eta denbora luzez beren artean berrikeran ariko balira bezala jarduten dute. Hori dela-eta, pertsonen artean berritsu denari ere 'catarnica' esan ohi zaio.

¹³ (*Vitex gigantea*) Ekuadorko zuhaitz mota zein horren fruitua. Tamaina handia du, oso egur finekoa eta ez da usteltzen; horregatik, oso estimatua da etxeko altzariak egiteko. Fruituak, berriz, gure gerezien antz handia du eta asko erabiltzen da marmeladak eta gozokiak egiteko. Fruituaren kolore beltz distiranta oinarri hartuta, herri-hizkeran 'pechiche-begi' esaten zaio begi beltz biribilak dituenari.

¹⁴ (*Furnarius rufus*) Ekuadorko basoetako txori mota. Ezaugarriarik nabarmenena bere tamaina txikia da; baita buztinaz baliaturik eltze itxurako habiak egiteko duen trebezia ere. Azken horretatik, izena ere.

—Eta Chabela? Chabela? Oin e nondik hator? Nun eon haiz aspaldi hontan, maarikatua, zerrikumea? Ez hautelakoan ikusi...

Mespretxuzko hitzok aurpegian jotzen zioten oraingoan. Plazartezko¹⁵ sastrakadi bat oinez zeharkatzea bezala egin zitzaion. Odola are eta kolpe handiagoz zebilkion. Zingiradi batetik hotzez ateratzean, mayorca¹⁶-zurrutada bat hartzen denean bezala.

—Ta ze! Heuria uk errua...

Juan lurrean zen.

Arratsaldea ilun egin zen. Baratzeko itzalek bazterrak inguratzen zituzten. Zabalguneko ertz bakarti hura egokia zen.

—Bakarrik gaudek, hemen etzebilek inor.

Hitz gehiagorik gabe, bildu pontxoak eta atera zituzten aihotzak zorroetatik.

—Gordezak burni hoi!

Kendu zituzten zimurak aurpegitik. Jaulki zituzten irainak irainaren gainetik, olatuen aparra labar zorrotzetan bezala. Kanpaitzarren durundak joka hasi ziren.

—Geldi hai eo sartu ingo iat.

—Hau hitzat.

Haiek kolpeak! Ahalik eta ebaki handienaren bila. Noiz kopetaren, noiz oinen bila. Altxatuz, jaitsiz, zirikatuz. Beti arin, pisua ez zen eragozpen.

¹⁵ Erreferentziarik aurkitu ez badugu ere, Ekuadorko iturriek esan digutenez, hesiak egiteko batik bat erabili ohi den ohol mota.

¹⁶ Laborari kulturako herrixketan, etxean bertan egiten den edari alkoholikoa, gehienetan oso gogorra. Anis-hostoak ere baliatu ohi dira, apur bat gozatzeko.

Altzairuen kanta. Gihar malguena. Emakume-bularren kanta: brontzezkoak, zerrenda morez zeharkatuak; palo-rosazko¹⁷ gailurretan amaituak.

Txinpartak, ilunpeetan. Izerdia parrastadaka, zorabioaz nahasirik, burua lausotzen duen jora¹⁸-zurrutada epelaren antzera.

Emakumearen begi traidoreetan bat-bateko buztankada indartsuz saltoka zebilen rabo de huesoa.

III

Tak-tak... Tak-tak... Tak-tak...

Ferratu gabeko zaldiaren apoek arin jotzen zuten lur bigunaren azala.

Chombo garaitu zen. Zorabiatuta zegoen.

Bekorotz batek galdu zuen arerioa. Juanek irrist egitean, besoak itsu-itsuan astindu zituen eta bistan geratu zen. Chombok gelditu nahi izan zuen. Ez zuen horrela heriotza emateko gogorik. Beranduegi ordea.

—Izorratu na...

Iluntze zurbilaren argi-izpi galdua lapurtzen zuen aihotz-erpina odolez gorri murgildu zen gauaren ibai erdian. Lepoaren erdia baino gehiago ebaki zion.

—Arraiua! Lepua kendu zioat!

Odol-borborretan, hil-zurrungaka ari zen.

¹⁷ (*Tipuana tipu*) Ekuadorko basoetako zuhaixka. Arantza asko du eta egurrari usain gozoa dario; horregatik, ziur, izena bera ere.

¹⁸ Andeetako kultura duten herrietan, ahoan listuz edo ur gozotan beratutako artale xehatua hartituz egiten den '*chicha*' edo edari mota. Chicha egiteko prestaketa eman zaion artoari ere aplikatzen zaio.

Chombo alboan belaunikatu zitzaion. Burua altxa eta begiak behatu zizkion: zuri ageri ziren. Astinduen artetik aparteko astindu bat sentitu zuen. Ez zion jada gorrotorik.

Lurrean etzanik utzi eta elastikoa ukitzen hasi zen: blai, likatsu. Odolbilduak sumatu zituen bularreko bizarretan; zipriztinak, aurpegian. Garbitu gabe, zorroan sartu zuen aihotza.

Odolak izua eragin zion eta nazka hildakoagana.

Hartu zuen bridatik haren zaldia eta gainera igo zen. Burua mendian sutea bezala zeukan.

Argi entzuten ziren zaldi-apoen hotsak; ez zekien, ordea, non: lurrean, airean, mendian edo bere baitan.

Tak-tak... Tak-tak ... Tak-tak...

IV

Eesteroaren¹⁹ ertzera heldu zen. Gaueko ordu txikiak jo zuten. Ez zegoen hotzik. Alderantziz, gandu epela altxatzen zen egunez eguzki galdatan egon ziren udako mendietatik.

Izarrak beherantz makurtzen ziren.

Isiltasuna. Erabatekoa.

Eta hura estutasuna! Hura buruko mina! Hura nazka!

¹⁹ Izen honekin deitzen dira Latinoamerikan itsas besoek sortzen dituzten inguru zingiratsuak. Aberatsak dira ur-landaretan: manglea, esate baterako eta, hedaduraren nahiz uren sakontasunaren arabera, ontziz ibiltzeko modukoak izatera irits daitezke. Hala, Guayaquil inguratzen duena, adibidez.

Kendu zuen ebakiz betea zuen cotona²⁰ eta alde batera jaurti zuen, pontxo ondora. Atera zuen ia kolpeka elastikoa eta biluzik murgildu zen uretan.

Igeri egin zuen indarrez. Igerika jaio zen edo hori uste zuen. Ur freskoak sukarra arindu zion.

Odol zikina urtzen ari zitzaion eta, ustekabean, garbitzen ari zela pentsatu zuen. Ur handitan zebilen; muskerren, korronteen, hesien beldurrik gabe.

Putzu handietan hondora egiten zuen. Behera, oso behera: urak 'izkira-azala bezain' lohitsuia egin eta 'karramarro-gakoek adina' estutzen duen tokietara.

Eta emaztearen irudia etorri zitzaion.

...Hargatik hil zuen. Gizajo egin zen; pentsatze hutsak min ematen zion.

Baina, merezi al zuen?

A! Bai. Argi zuen. Hala ere emakumearen oroitzapena zetorkion, guanta²¹ zaurituak habiak egiten dituzten zuloetara itzuli ohi diren bezala.

Emaztea zuen gogoan. Kontrako uretan besoak astinduz, korronteen etengabeko jario indartsuetan zoratu nahirik-edo.

Nabarmen eta latz, emaztearen sentipen bizia piztu zitzaion: bere ilaje bihurria leuntzen zioten esku gozo haiena.

—Kizkurra...

Eta aho haren gozoa beharrezkoa egin zitzaion, egarritan ura bezala.

²⁰ Ekuadorko Kostaldean bizi diren '*cholo*' eta '*montubio*'ek janzten duten alkandora. Zabala da eta galtza gaineratik eramaten da; lepoaldea itxia du eta besoaldea, luzea. Kostaldeko folkloreko janzkien osagai bihurtu da.

²¹ (*Cuniculus paca*, *Agouti paca*) Ekuadorko mendietan bizi den, 25-30 cm-ko ugaztuna. Nekazariek oso preziatua dute haren haragia eta, horregatik, asko ehizatzen dute.

Uretako epeletan –ala hotza zen? ala epela esteroko ur hura gauerdian?– haragia tente zuen, betiko laztanei deika. Etxetik gertu zegoen. Ezagutzen zuen: basa kanabera-multzoaren aldetik. Ehunen bat metrora, agian.

Igeri egin zuen arropa utzi zuen lekura. Jantzi zituen galtzak; eta gainerakoa aihotz astunari lotu eta zokora bota zuen.

Etxean zen jada. Igoerako mailak osatzen zituzten lau guacayetan²² gora abiatu zen.

Bultzatu zuen bilduta soilik zegoen atea... Bila hasi zen, ukitu bidez. Soinurik ez ateratzen saiatu zen, solairuko kanaberak zapaltzean.

Azkenean lo egiten zuten oholtzara iritsi zen.

Azalean haztamuka aritu zen. Alde batera etzanda zegoen. Horma aldera begira. Tapakia gerriraino zuela. Eskuek andrearen lepondoko leuntasuna topatu zuten. Alboan etzan zen, luzetara, ahoa emaztearen belarri ondoan zuela.

—Chabela.

—Heu al haiz, Chombo? Bildurtu in nauk...

Andrearen gorpuzpetik pasa zuen besoa. Atorraren barnealdetik, bularrak esku-ahurretan hartu zizkion.

—Itxointzak –esan zion andreak, tapakia kendu eta ezpainak emanez, sorbaldaren kontra jartzean.

Galdezka hasi zitzaion:

—Nolatan etorri haiz?

—Fruta saldu ta geo.

²² (*Triplaris americana*) 'varasanta' izenez ere ezagutzen den zuhaitza. Nekazaritzako lanetan edo itxiturak eta hesiak egiteko, etab. erabili ohi da.

—Lo geatu ninuan. Mariaberakin izan duk, ez?

Gorputzen mugimenduak soinua eragiten zion zoruari. Buru biak itzaltzen ari ziren atseginetan.

—Bukatu uk, mijito²³?

Gizona ahots isilez mintzatu zitzaion. Haragi biluzak oraindik lotuta zituztela.

—Aizan, Chabela... Hi urdanga haiz. Txakur emia bino areo. Bino matte haunat; ikearri matte haunat. Ta hiatik in naun errukarri... Hiatik hil dinat Juan... Hau harrapatzen zidana...

Jauzi egiten sentitu zuen andrea, arraina sarean bezala. Kolpeagatik, askatu egin zen haragi-lotura. Emakumearen arnasa beroa gizonaren aurpegian isuri zen.

—Maarikatua! Bino ze arraio esate ek?

—Hil in duala... Juan. Juan: hau harrapatzen ziana —eskuaz, urduri, hankartea estutzen zion— eta alde in ber dinau. Guayasera... Urrun. Urrun... Noa eo bestea... Alde in ber dinau...

Txori bat, mendian, urrun, txioka ari zen:

—Bujío²⁴...

²³ Berez, kasuan kasu, '*mi hijito*' eta '*mi hijita*'tik eratorritako esamoldea. Ekuador osoan familiarteko hizkeran erabiltzen da, kuttuntasuna, gertutasuna... adierazteko deiki gisa.

²⁴ (*Hydropsalis torquata*) Ekuadorko landa-inguruetan bizi den tamaina ertaineko gau-hegaztia. Hego-buztanak aski luzeak ditu. Izena hegaztiak egiten duen kantaren onomatopeiatik eratorria da. Zenbait herritan '*atajacaminos*' izena ere ematen diote.

AMA ZEN!

I

Auskalo zenbat etxadi zeharkatu zituen. Oinez. Lasterka. Lur-azaleko zuloetan sartuz. Alanbre-hesietako zapán²⁵ nabar eta ankerretan haragi puskak utziz.

—Gera ai, beltz maarikatua!

—Ingura zak alde hortatik.

—Piztia bino areo duk beltz hoi.

Arnasestuka eta izerdi hotzetan zihoan. Atzetik zituen —ongi asko entzuten zuen— haien pausoak. Kapitaina zeraman zaldiaren apo zakarrak burrunbaka ari ziren zaldi-haztegiko lur bigunaren gain.

—Hemen bai...

Haizeak zeramatzan hitzak. Zaldi-haztegiaren muturrean zuhaixka-multzo bat ikusi zuen. Han ezkuta zitekeen. Hain bakanak ziren halere chilcak²⁶ edota historik gabeak, guarumoak!²⁷

—Ziuuu... Ziuuu...

²⁵ (*Trema micrantha*) Ekuadorko basoetako zuhaitz mota. Nekazariak, bere zur gogorragatik, loturak eta itxiturak egiteko erabiltzen dituzte adarrak.

²⁶ (*Baccharis halimifolia*) Amerika osoan zabalduta dagoen mendi-hegaletako sastraka erretxinatsua.

²⁷ (*Ischnosiphon arouma*) Ameriketako zuhaitz mota. Hostoak oso preziatuak dira nekazarien artean bihotzaren bizkorgarri omen direlako.

Bala-kolpeak barreka ari zitzaizkion belarrondoetan. Bihotzeraino iristen zitzaion Mánglicher fusilen eztandaen kolpe lehor bakoitza. Ez alferrik, ruralak²⁸ ziren.

Zuhaitzak baino harago ibaia entzuten zen... Ahate-kume batzuk zalapartaka ari ziren.

—Ihesi bahua, bizi haiz...

Irainka ari zitzaizkion?

—Alanbreetan harrapako naitek...

Haizearen zitzua firrindan zebilkion belarrietan.

—Azal erdia utzi ber badiat e, pasa ingo nauk...

Sartu zuen burua ezten arteko hari artean. Batek belarria urratu zion. Behatzak ebakiz, zabaldu egin zituen hariak. Odola, epel, belarri aldeko bizarretatik, bekokitik behera zihoakion. Goyaldeko hariak ihes egin eta hesia itxi zion. Kolpe batez, bestaldera pasa zuen soina, sorbalda beltzean harramazka-sarea marraztuz.

—Uztak zaldia pasatzeko –adierazi zioten zaldizkoari. Baina, ostikada batez ipurmasailean, hesia pasarazi zion behingoz. Belar artera erori zen muturrez aurrera.

—A! Putakumia...

Ruralaren bota, oraingoan, kanpai-kolpea iruditu zitzaion, ostikoz belarrian jo zuenean... lehentxeago urratutako belarrian.

²⁸ Ekuadorko garai bateko poliziaren atal multzo berezia. Iraultza Liberalarekin batera eratu zen 1895ean, herrialde osoan –Kostaldean batik bat– handitzen ari zen kriminalitateari aurre egiteko. Ezagutu ahal zutenen lekukotasunik ez dugu jaso, baina idazleak zantzu oso argiz –eta egiazkoz ere bai ote?– erakusten digu haien jokamoldea. 1956an Ekuadorko polizia talde guztiak bateratu zirenean amaitu zen talde honen autonomia eta desagertu zen.

Altxatu zen, belauniko. Fusil-kaxak saihetsean harrapatu zuen bete-betean. Ostikada ostikadaren gain zetorkion.

—Aja, hireak in dik...

Beltz hura, ordea, gizon puska zen. Zezenak sokaz lotzean bezala egiten zuen orro. Eta ruralaren oinei heldu zien, sorbaldaz erorarazteraino. Egin zituen ahaleginak zutitzen, berak ere ostikoz jotzeko. Baina ikusi ere egiten al zuen ba...

Bere pisua luze bota zuen eroriaren gain. Elkarri tiraka jardun zuten, hitzik esan gabe.

—Aja.

Harrapatuta zeukan. Atzamarrak ahoan sartu zizkion. Ruralak kosk egin nahi zion. Beltzak, ordea, eskuak sartu zizkion ahoan, hortzek egiten zioten mina sentitu ere gabe. Eta bat-batean tira egin zuen. Hotzikara sentitu zuen, ruralaren bi masailak etetea. Emakumeek jostean eteten duten zapiaren pareko tarratekoa egin zuen. Esku odolduak atera zizkionean ohartu zen soldadua hitzik esan ezinik geratu zela. Ahorik gabe zegoen. Hortz-haginen zuztar belztuek barre zegitela zirudien. Eskuak aurpegira eraman zituen, atal etenak bildu nahiez.

—A! Putasemia...

Alde guztietatik fusil-kaxen eta boten kolpe-zaparrada erori zitzaion gainera. Beltzaren begiak zuri ireki ziren. Ezpainen dar-dar egiten zioten, hitzen bat atera nahian-edo. Begiratu zien denei ingurura, belauniko. Eta dena kapitain mozkor eta sesiozale harengatik hasi zela gogoratu zuen! Aurpegia besoaz estali eta berriro erori zen.

—A, maarikatua!

—Rangel izorrau dik!...

—Emaiok, goor.

—Beltz maarikatua!

...Hilotzaren gainean dantzan ari ziren.

II

—Eee, andrea.

Etxe barrutik bazetorren erantzuna. Pausoak entzun zitezkeen.

—Ea... Zer deu?

—Aterpetxo bat...

—Ruralak zazte?

—Bai, ta?

—Beno, sartu ba.

Argimutil batek diz-diz egiten zuen andre beltz zaharraren buru gainaldetik.

Txabolaren oinetan, kaki argizko taldeak erdi irekitako arta orria zirudien.

Hizketan ari ziren beren artean:

—Utzi hor, etxe azpian gordeta.

—Han eman ber genioan lurra... Eroi huen tokian.

—Bihar emango zioau. Segi. Eta kontu, atsua ez dein izutu.

Iskanbila batean igo ziren. Ostikoka, hildako beltzaren gorpuak txiribuelta egin eta zeharka erori zen eskortaren itxiturako guacay-ertzaren gainera.

Etxe azpian.

Fusilak hormetan utzi zituzten, kanoiak gora zituztela. Kapitaina hamakan eseri zen. Joan zitzaion, ordurako, beltzarekin eztabaida izatera eraman zuen mozkorra. Gainerakoak buruz behera jarritako garbi-ontzietan eseri ziren. Arropa-kutxan. Ahal zenaren gain.

—Beroiek jan dute?

—Bai, andria.

—Bino zerbait berua... katilutxo bat kafe, verde²⁹ erriakin?

—Mesede hoi in nahi bazu...

—Petitaaa... Itzali den sua?

Barneko gelatik neska atera zen.

—Oindik ez, ama.

—Ordun, verde batzuk erre eta kafe pixkat ingo inau gizonontzat...

Neskaren ikuspegiak kapitainaren betazalak piztu zituen, pai-paiak balira bezala.

—Aizak, "Pata e venao", ekatzak mayorca-pitxarra... etxeoandrian kafiai pixkat jartzeko... eta zureai re bai... Petita, ezta? Enun uste holako gau-lore errik topauko nula bazter hauetan...

Petitak barrez erantzun zion, arnasa hartzean atorra arrosa bularralde trinkoaren formaz altxaraziz. Eta hara-hona zebilen, rurala erotzerainoko mugimendua eraginez aldakaz.

Kafe ostean gustura egin ahalko zuten solas. Adineko beltzak moztu zuen:

—Etzozte gaizki hitz eta pitz... bino barkauko nazue; alaba eta biok barrura guz lota... Goiz jaiki ber deu... baleike-ta bihar semia goiz etxeatzia Manabítik... Hartu zeuek, kriseilua.

²⁹ Ekuadorko sukaldaritzan oso ohikoa den platano mota, gordinik jaten den bestea baino handiagoa. Izenak berak dioenez, oraindik heldu gabe denean prestatzen da, erreta edo frijiturik nahiz egosirik jateko. Heldua denean ere erabiltzen da; kasu horretan, '*maduro*' izenez deitzen zaio.

Eta guadúa³⁰ zahar ebakiz egindako ate hori iluna itxi zuen. Ate-erroek, txekor-larruzko sokaz loturik, kurrinka egin zuten. Ruralek begi gaiztoz so egin zuten hara, baina kapitainak begirada zorrotzez gerarazi zituen:

—Ez deila inor sartu... Fruta hoi neria ek. Eta nitzat bakarrik zeok, arbolatik noiz eroiko...

Neskak keinu egin zion begiz eta kapitainak kriseilua itzali zuen. Hormetako kanabera bakanen artetik izpi horixkak irteten ziren. Zirritu hotzen parean ezarri zuen ordurako sukarretan zuen bekokia.

—Eazten ai duk...

Begia kendu gabe zegoen, eskua atzealdera zabalik, besteak gerarazteko. Zaharra zeharka pasa zen azpiko gonatan, mate³¹ bat eskuan, leihoaldera, kanpoan uztera. Arin-arin, gizonak ate bildutik sartu zuen burua. Keinua bizkor eta laburra: «etorriko naiz; itxaron nazazu». Petitak estutu egin zuen erdi zabalik zuen azpiko gona, lotsati, bularren kontra. Irribarre egin zion: «bai». Zaharra, ezertaz ohatzeke, aurreko ohatzeko oihal gorripean sartu zen. Itzali zuen kriseilua.

Ordubete geroago, ateak kurrinka egin zuen.

Eta kurrinka ari zen Petitarenekin ohatzea ere.

Andrea zurrungaka ari zen. Ruralek, beren txokoan, nagusiaren zoria zuten amets-gai.

³⁰ (*Bambusa guadua*) Ekuadorko Kostaldean oso hedatuta dagoen banbu mota luze eta lodia. Gaur egun ere asko erabiltzen da igeltserotzako lanetan bereziki.

³¹ (*Lagenaria siceraria*) Amerika osoan hedatuta dagoen kuia mota bat. Azala ireki eta barrena hustu ondoren, sukaldaritzako hainbat egitekotan erabili ohi da.

III

—Andrea, milesker denatik. Baguzi, eunak badu-ta ze inik!

Petita irribarreka ari zitzaion kapitainari, zaharraren gibeletik. Norbaitek galdetu zuen:

—Gaztia ezkondua ala ezkongabia da?

—Bananduta do —argitu zuen amak.

—Gauzatxo bat, andria, eskerrak noi eman jakiteko: zein da beorren grazia?

—Panchita e Llorel.

Une hartan ikusi zuen ongi Petitak zauritua —aurreko eguneko borrokan aurpegia eten ziotena— eta galdetu zuen:

—Ze izan da hor, kapitaina?... Bart ez bainun ikusi...

—Heaineun izan tzen. Borroka bat...

—A ze astakoa, hoi in diona! Labanaz izango zen...

—Ez, atzaparrez...

—Jasaus! Masailik pe utzi dute-ta bizi osorako...

Jaitsi ziren. Jadanik eguna argitu zuen. Hesi arteko bide umelak diz-diz egiten zuen, zeru urdinetik euria egin balu bezala. Caciqueak³² kantari ari ziren, hesi-inguruko aranondoetan.

Bi emakumeek eguneko egitekoei ekin zieten. Petitak mina zuen gerri aldean: izan ere, hiru aldiz!

—Aizan, Petita... Jatsi hain txerria ikustera, gau osoa muitzen eta uxarka jardun den...

³² (*Amblycercus holosericeus*) Ekuadorko txori mota. 20 cm inguruko luzera du, lumajea erabat beltza eta kono itxurako moko luze eta indartsua. Landa-eremuetako etxe inguruetan ibili ohi da gehienbat. Egiten duen txistu zorrotzagatik nabarmentzen da; diotenez, baziren kankak jotzen ere ikasten zutenak.

Jaitsi zen Petita eta amak oihu egiten entzun zion:

—Ama, ama, gizatxar hoik hildako bat botaiote txerriyai... Zatoz... Hoixe aittu da gau osoan jaten... Jeesuuus! San Jazinto maitia! Zatoz.

—Ruralak izan ber! Izurritia bino areo ditun: horreatik ez dinat lo txintik e in; eskerrak ez duten ezer okerragoik nahi izan hiandik.

Iritsi zen. Lokak baino areago inguratu zuten eskorta. Ez zekiten nondik oratu; aurpegia lokatzetan sarturik eta gorpua sokaz lotuta ageri zen. Lepoaldea, janda. Bularraldea, janda. Saihetsak, agerian.

—Maarikatu alenak!... Bene-benetan: ruralak izan ber... Ta nor ote dinau gizajoa?

Lortu zuten, beso batetik tiraka, jasotzea. Elastikoa, odolez blai. Baina galtzak... ezagunak ote? Petitak, gonaren ertzaz, lokatzak estaltzen zuen aurpegiko beltzune kirastua garbitu zion. Jarri zuten gorpu erdia andre zaharraren besoen kontra eta beste erdia eskortako itxitura gainean.

Ezin laburrago atera zitzaion Petitari garrasia:

—Aj, ama! Anaia Ranulfo da-ta!!...

Zaharrenak ez zuen hitzik esan. Aurpegi beltza —mizpirondoaren enbor kiribiltsua bezain zimurra— hauts kolorekoa egin zitzaion... oso hauts kolorekoa.

Ruralaren musuek —gau ilun hartako musuek— min egiten zioten Petitari. Zaplaztekoak balira bezala...

KIZKURRA ERDI ZENEAN

Ez zuen atzera-bueltarik. Haurdun utzi zuten. Andres ez zen emakumearen etxera azaldu, berri eman zionez gero. Hartarainoko nazka sortzen zioten halako emakumeek!

—Neure mamua ituk; beizkoatik hildakuak bino okerro uk emakume izorra: ihartu ite ik.

Hori guztia zen! Baina baita bere beltzaren irudi liraina desitxuratzen ari zela ere. A zer galera, aldaka eta gerrialde haiena, haragi epel pila artean!

—Zertan ikusi launa lapiko inda?

Baina bazen besterik ere... Buruan iraulka baitzerabilen berea ote zitekeen Lucharen sabeleko umea.

Negro Manuer, beltzaren senarra, bere aldetik, berea zelakoan zegoen. Andresek zalantzak zituen.

—Nik larrua jo, bai... bino nork bete zian?

Bai baitzekien ezinezkoa zela biena izatea, herrian, iseka artean esaten zenez. Batarena ala bestearena.

—Neuria baek, mestizo itxurakoa... Harena baek, ikatzezkoa, burutik oineta... ikusko iau.

* * *

Lucha kizkurak Jazintorekin, Andresen adiskiderik handienarekin, topo egin zuen.

Jazinto hori gainbehera etorritako zuri bat zen. Lehen, hirian, bazen nor. Orain behizaina zen gertuko baserri batean. Orain "*Er Colorao*" zen. Sugarrezko ile gorritik zetorkion gaitzizena.

Herriko dendan ikusi zuten elkar.

"*Er Colorao*"k atariko zirgiloan lotuta utzi zuen zama-lanetan erabiltzen zuen mandoa.

Sartzean, behatz lodiko azazkala marruskatu zuen, atean –"zorte ona sar dadin"– josita zeukaten ferraren azalean.

—Ferra maarikatua! —esan eta sartu zen.

Une hartantxe ikusi zuen Lucha, apaletan jarrita edo zaku erdi irekietan pilatuta zeuden jakien usain gordin artean: gantz, kakao, panamito³³ eta mayorca-usain artean.

Erakustokiaren parean zegoen. Oinetakorik gabe, hautsez betetako oinak urduri antzera dantzatzen lurreko ohol gainean; mantal gorri bat soinean; bularraldeko tontortxoak eta sabeleko mendi-lepo zabala, koipez lardaskatuta.

Jazintok xuxurlatu zion:

—Hoi den izarra puska haona!

Nabarmenak ziren kizkurraren aurpegian kuluxka luzeen nagia eta gorako ugariengatiko begi-zuloak; baita oilo-lorratza zirudien ile ia orraztu gabeen ere.

"*Er colorao*" arroza eramatera zetorren lan egiten zuen etxaldera. Emakumea ere erosketak egiten ari zen. Agur egin zioten elkarri:

³³ (*Phaseolus vulgaris*) Ekuadorren, laborariek landatzen duten indaba-mota bat. Ale txikia du, ertzetako bat erpin marroi xorrotzez amaitzen da. Eltzeko gisa prestaturik jaten da.

—Atsalde on, Lucha; ze mouz? Ta Manuer, ne konpai?

—Ondo do; eta zu?

—Hainbestian. Hitaz ez dinat galdeuko; bete-xamartuta ikuste haunat... Zena izan dun beteka?

Luchak barre egin eta biak isildu ziren. Begira geratu zitzaion. Iragana gizakien aurpegian idatziko balitz, a zer lotsa pasa beharko zuketen batak zein besteak! Hitzik gabe zeuden. Dendaria galdezka hasi zen:

—Ia; zer doa?

—Pinterdi bat arroz.

Luchak, ahotsa jaitsiz, bat-batean galdetu zion:

—Ze mouz do Andres, hire launa?

—Han do.

Isilik geratu zen berriro, une batez.

—Kontaiak ze gertau zakon... Zeatik ez dijun. Jun daila...

—Beno.

Eta hori izan zen guztia. Jaso zuen emakumeak gurina bildu zioteneko arto-orria. Jarri zuen gainerako erosketekin batera otar zaharkituan eta, baldar, tripaundi, dendaxkatik atera zen.

* * *

Negro Manuer poz-pozik zegoen emaztearen haurdunaldiagatik. Zuri geratzen zitzaizkion begiak pozarren. Eta zuri-zuri erakusten zituen betortzak, mutiko-algaratan.

—Kar, kar, kar... Aita bezalakoa izango uk: mutil puska beltza!

Eta bere guayacán³⁴ kiskalizko gerrialde lakarrari begiratzen zion. Sorbalda-
besoak, adabegiz betetako zuztarren pareko.

Gauetz, ohatzeko orein-larru gainean kuzkurtzen zen eta esku isila –arin-arin
ibili nahi izaten zuen– sabel jasoaren gain jartzen zion, esanez:

—Ne beltza. Ondo zaitzia nahi dinat, ne ume hau ez galtzeko.

Negro Manuer-ek, gau bat bera ere emazte gainera irrika beroz botatzeari
utzi ez zion berak, bakean utzi zuen hiru hilabete bete zituenez gero.

Alboan zuen gorputzaren beroak edo bularren edo ipurmasailen ukituek
bero jartzen zutenean, kanpora irteten zen. Pixa egiteko aitzakiaz.

Luchak noizean behin –eta barre egin ohi zuen– mullullo³⁵ antzeko lirdingak
topatzen zituen hormako kanaberen beheko aldeetan. Sukaldean.

* * *

—Ai! Ai! Manuer, hoa arin eta ekatzak “*ña Pancha*”. Ai! Hil beaiat, ama berria
nauk-eta...

Joan zen lasterka eta laster eginarazi zion erdiarazten zekien andre sendalari
zaharrari ere.

Itxi zen atea. Tartetxo bat igaro zen. Ia ilunpetan zen gelan kizkurraren
aieneak bakarrik entzuten ziren. Eta Negro Manuer-en ezpain arteko hitzak:

—Guraita, zeutan zana...

³⁴ (*Tabebuia chrysantha*) Ameriketako tropiko-lurretako zuhaitza. Zurak kolore beltzaxka du eta, enbor handia duenez eta oso gogorra, estimu handiko lehengaia da altzariak egiteko.

³⁵ (*Cordia lútea*) Gure arteko mahats zuriaren antzeko fruitua ematen duen landarea. Mamia eta zukua zurixkak ditu. Landa-eremuetan, industria kimikoak garapen txikia zuen garaian, hainbat erabilera ematen zitzaion fruituari: itsasgarri, ilearen brillantina, libragarri... gisa. Hemen ageri den idazkeraz gain, beste hainbat ere ikusi dugu idazle edo leku bakoitzeko ohituraren arabera: ‘*muyuyo*’, ‘*muyuyu*’...

* * *

Beste adiskide batek kontatu zion arratsalde hartan bertan Andresi. Herriko plazako edari-dendan.

Chicha³⁶-basokada artean.

Egunak, joateko une hartan, hori-izpiz janzten zituen aurreko etxeak. Zerri bat kale erdian zurrungaka ari zen hautsetan, kantari mozkorrek, eztarria garbitu nahiez-edo, urruma egiten duten antzera.

Begiak iluntzen ari zitzaizkiola entzun zuen istorioa Andresek. Eskuetako ontziaren beira landu artetik inguruari begiratuko balio bezala.

—Txerrenana izan omen huen etxe hartan!

—Ez duk izango! kontaiak!

—Beltza otoizka, belauniko jartzeaino uste iat. Lucha hanka-zabalik eta Pancha atsoa umeari tiraka. Luchak garrasi iteai utzi eta atsuak umia garbitzian izan huen ona! Hasi huen Negro Manuer: «la ña Pancha. Ekatzu semia ikusteko». Hartzeik eta: «Bino zer da hau? Ez da aita bezala beltza»... Ña Panchak esan omen tzin umea xagu eta axaien moukoa zela: biluz eta gorri jaio eta geo berezko koloria hartze uten hoitakua...

Andresek bere baitan: «Neuria uk. Ikustea jungo nauk. Semia ezautuko iat». Hezteak saltoka zituen soinean. Aurrez aurre gauza pila ikusten zuen. Aita sentitzen zen.

—Ordun mutikua ez duk beltza? Beltzana uk? Nahasi moukua?

—Ez. Mutikoa ez duk beltza, ta ezta nahasi moukua re. Txui-txuia uk, pottoka txuia bezalakua. Eta ilegorria. Ta hemengo txui bakarria kizkurran launa

³⁶ Andeetako kultura duten herrietan, artale xehatua, ahoan listuz nahiz ur gozatutan beratuta hartzituz egiten den edaria.

danez, ta ilegorri bakarra Jazinto Er Colorao danez, harena ber dik mutiko beinkatuak.

—Ajá... A ze arpegiya jarriko zin kizkurrak! Arraio! Hoi zekarrek urdanga izatiak!

Eguzkia gorde zen jada. Arratsaren janzkia ostargi-izpietan apurtzen ari zen. Eurite-susmoak zekartzan haizea atera zen. Herri sarrerako platanondo-sailak, haize-boladaren aurrean okertutik, erauntsika ari ziren. Andresek sudurrak zabaldu zituen, euria arnastuz.

Eta handik, mendialdetik, soinu bat etorri zen.

Beira urratzen duen ertz lakar baten soinua. Luzea, arnasaldi bakarreakoa, bost-hamar minutukoa, bat-batean belarriak jo eta, bultzada batez, isiltasunaren putzura botatzen duen horietakoa:

—Ttirittak euriya eskatze ik. Euriya zetorrek. Euriya zetorrek... Ta hoi zekarrek urdanga izatiak! Ta hoi zekarrek urdanga izatiak!

1930

TABAKO-KOLPEA

—Mateo herrira etorri la esate iten

—Bai zea. Nolatan?

Kontakatiluen esanak ziren... asmo gaiztoz eginak ziurrenik. Ea zer aurpegi jartzen zuen ikusteko...

—Eta hik, Manuela, ze uste en?

—Deuse.

—Akordatze haiz?

—Baleiken...

Dendaxkako etxeakoandreak ez zuen emozio-aztarnarik azaleratu, garai bateko amorantea zetorrela-eta. Halere zerbait oso urruna, oso bat-batekoa pasa zen begi beltz haietatik...

* * *

Alde egin zuten, jada, azken mozkorrek. Ilunpeetan, begiak itxiz zihoan herriko kalea eta, une berean, itzaliz zihoan amorfino³⁷ baten oihartzuna ere.

Kutsu sakon eta luzeko amorfinoa; amorfino patartsua:

Mañana me voy pa Quito

a comprar paper sellao,

pa escribisle una cartita

³⁷ Ekuadorko Kostaldean montubioek gure bertsolarien arteko puntu moduko elkarrizketamoldeetan abesten dituzten koplak mota bat. Bat-batean asmatuak izan badaitezke ere, gehienetan herri-kulturak ahoz aho ikasi eta ekarriak izaten dira. Ia beti maiteminduen edo maitasun zapuztuen edo kidekoen arteko gaiak ukitzen dituzte.

a la hembra que mi ha orvidao...

Hitzak ez ziren ezer asko. Alkohol-dardaretan bigundutako ahots hautsia zen, negarguraz arrastaka, aspaldiko oihartzunak astintzen zituena.

Orduantxe ikusi zuen Manuelak Mateo etortzen. Gauaren erditik ateratzen: mendi busti usaina zerion gauetik.

* * *

—Gogoan dun, beltza?

—...Nola ez...

Kriseiluak zabuka zerabilen bere arrasto horia ketutako kanabera nabarretan. Petrolioaren kiratsak eztula eragiten zion Mateori. Eta, isiltasun haren erdian, bataren zein bestearen esku-zartak entzuten ziren, mantablancak³⁸ akabatzen.

Ez zuten gehiago esan.

—Hemen naun berrize...

Hori zen guztia. Iragana ezabatu egin zen. Esku biek elkar hartu zuten, bie dardara beroa pasaz. Ahoen bila jo zuten. Neskaren bular trinkoak soineko gorriaren artetik gizonaren alkandoraren kontra estutu ziren.

Kilkerrak jauzika ari ziren noragabeko hegaldietan. Saguzar bat, hegan. Kanpoan, igelek beren soinu-estalkia hedatu zuten neguko gauaren gain. Eta zoruko kanaberek karraskan hasi ziren, bi gorputzak kimu gazteak bezala bildu zirenean hara-honaka.

³⁸ (*Phlebotomus bicornutus*) Ekuadorko lur beroetako eskualdeetan, Kostaldekoak nahiz Amazoniakoak direla, aurkitzen den eltxo mota. Zenbait gaitz eta parasito kutsatzen ditu.

* * *

Hurrengo goizean ezpainetan zuen oraindik gizonaren musuen ahogozoa. Ezarian, gizonaren urrunaldiekin lotzen zituen laztan haiek. Bere ustez Guayaquil izan zitekeenaren kutsua hartzen zien.

...Elkartuko ote ziren berriro? Ez zekien. Estutu ero haren ostean, bultza egin zion, soineko zimurtuaren ertz batez barrenaldea garbitzen zuen bitartean: —Hoa-hoa... Kontu, nire ama... Txikiyan aita bahaiz e... etzaiok gustauko.

Eta presaka itxi zituen etxe-dendako ate zabalak. Ez alferrik ziren, kale beltzaren erdian, lo zorroan zegoen herriaren azken begi argiak.

* * *

Amaren kontu utzi zuen denda-taberna, esterora arropa garbitzera joateko aitzakiaz.

—Enaiz ne kaltetan aiko. Enaiz ibaiko uretan mintze an lixiban ariko. Egia, cabuyaz³⁹ gehio arraskatze ala arropa, bino laburro da. Laster nator, ama...

Eta pauso arinez zeharkatu zuen, eguzki-argitan pitztuz zihoan kalea. Presaka garbitu zuen. Uretara makurtuta.

³⁹ (*Agave sisalana*) Hego Amerikan, gure arteko pitaren antzeko landarea. Ematen zaion erabilera ere gurearen antzekoa da: lokarriak egiteko. Lokarriari berari ere herriak hala deitu ohi dio sarritan.

Oinetan, eskutada zuri eta dirdaitso baten antzera, saltoka ari zitzaion chautiza⁴⁰. Beherago, raspabalsa⁴¹ bat kirrika ari zen.

Goiza ezin gardenagoa zabaldu zen. Ahate erroiak dantzan ari ziren joairan. Ur azalean hegaka hasten ziren, zuzen-zuzen, hegoak geratu eta, bat-batean, murgil egiten zuten.

Amaitu zuen lixiba arreta handirik jarri gabe eta bainua hartzeko gogoa egin zitzaion. Soin gainean zeraman etxeko jantzia estalki bakar gisa eta beldurra alde batera utzita, trokaren erdian jendearen begiradatik gorderik zegoenez, esteroko uretan sartu zen.

Soinekoa gorputzari itsatsi zitzaion. Ia garden ageri zen. Bularretako pinporta lodien erpinak zutik ikusten zitzaizkion tontorrean. Besape-sabelpetako beltzuneak ur tanta finez bete ziren, harribitxiak belusetan bezala dizdizka.

* * *

Etixerakoan, garbi, freskatuta, plazan topo egin zuen berarekin. Ile-apaindegiko aulkian.

—Hator etxea... Hitz ein nahi diat...

—Eta ama?...

—Bazkaia prestatzen, barrun. Hator, ontxe.

Urrundik jarraitu zion. Emakumea sartu eta, tarte batera, bera ere dendaxkan sartu zen.

⁴⁰ Arrain mota honen taxonomia izena aurkitu ez badugu ere, jakin dugu martxo-apiril inguruetan Ekuadorko Esmeraldas probintziako zenbait ibaitan ageri ohi den arrain txiki bat dela: 2 cm-ko luzera du eta gure antxoaren antz pixka bat ere bai. Jendeak estimu handia dio; hainbesteraino, egun ia desagertzeaz dela.

⁴¹ (*Hemiancistrus landoni*) Hego Amerikako arrain mota. Hondoetan edota ontziei itsatsita aurkitzen dituen algak harraskatuz elikatzen da. Horretatik datorkio izena.

Andrea zain zuen, sorbalda barraren kontra jarrita.

* * *

—Mateo, egiya esan ber diak... Nekin etortzeko asmoa uk?

Manuelaren begirada garbiak aztoratu egin zuen. Aitzakia-bila zebilen.

Emakumeak, bitartean, zimurtu egin zituen bere ezpain finak. Eskua bekokitik pasa zuen, kiribil busti bat apartatzeko.

—Ia, esantzak... Lengo bea haiz? Matte nauk, agindu hian bezala? Ezer emateko asmoik bauk hire alabantzat? Jainkoai eskerrak, etzaok ezen premian, bino aittan maitasuna betire...

Besarkatu nahi zuen. Eskua luzatu eta kokospetik heldu zion. Irribarreka ari zen, emakumeak maite zuela jakinik.

—Hara... Leikena un jun ber izatia... eo leikena un, baita, geatzia re... Geatzen banaun, hoixe hikin torriko naizela... eta txikiyakin!

Eta eskotetik sartu zion eskua, azalerape hartan bularralde osoa —guria... zabala— oratuz eta, tarteka, erpina estutuz astiro... astiro.

Bultzadatxo bat eman zion barrualdera, gelara. Antxume larruak harrotu egin ziren, gorputzei harrera emanez.

* * *

Bat-batean jakin zuen.

—Mateo? Noa jun dala diok?

—Bolívar Carriónen etxera; han tzaon etorritz keo, Guayaquildik karri din zuriakin...

Itsaso zabalean –gogoan zuen Morrora joan zeneko hura– bateltxoaren zorua nola, halaxe sentitu zuen lurra. Begiak ere itxi egin zitzaizkion zorabioagatik.

Ez zuen deus esan. Zurbil geratu zen, hildakoa ikusi balu bezala.

* * *

—Manuela, hobe dun mespretxua! Ez hai jarri sutan! Itxoin tzan!

—Zakurkumia! Hoixe dun: zakurkumia!

Bekainak, beltzaren beltzez, bat eginda ageri ziren lerro bakarrean. Emakumea zen jada, ez neskatoa. Lehenengoz utzi zuen hartan ere ez zuen negar egin. Jakin zuen amonak utzitako arropatxoak saltzen eta, amarekin batera, dendatxo bat jartzen. Jakin zuen bizirik irauten. Ez zen ezeren beldur. Baina a zer erremina pizten zion gizon hark!

—Emakumiak iraindu nahi gaitin! Gajo pilai in tzeon iseka! Gizon katxarroa delako horrekin!

Lagunak baiezkua ematen zion, barrendik irrika-izpi bat ateratzen zitzaiola. Zenbait pertsonari sumatzen zaion eta hain erraz maitasun egiten den gorroto-kutsuaz nahasirik.

—Bino neska!

—Pentsa, Petita! Neska xalo eta tolesgabia nindunan. Neskatxa. Ba beak hondau nindinan! Tauran izan tzunan, ne attona zanak zinan baserrian. Ni bai, inuxentia! Ganbarako atia irekitzen nionan gauero... Umia jaio eta zarra zalapartan hasi zeneako, berandu zunan... eta beak hanka in tzinan... Oin e zuri gajo bat ekarri ula esate ine, limurkeitan... Zakurkumia! Hoixe un: zakurkumia! Ta andria dula re, beste emakume batekin etorri ez den ba! Eta nik, astakiloa, utzi in tzionat...

—Eon haiz beakin?

—Bai, bart eta ontxe bertan...

—Bino, nolatan? Lehen e hi laga ta jun in tzunan...

—Ba... matte inatelako!

* * *

—Beno, don Mateo. Ne urtiak dia ta, bakiak iteko, zure etxekonekoa naiz ta kopatxo hau hartu nahi dut zuatik...

—Ongi, andre Petita; atea beste bat zeutzat e, Manuela.

—Topa!

Hirurek esan eta edan zuten. Petitaren urtebetetze-bezpera zen.

—Apur bat gorra do, ez? Pattar hau! In tzazu biharko chicha-ontzika bat. Askoz hobia da chicha.

Horrela egin zituzten bakeak arratsalde eguzkitsu argi hartan. Udako⁴² atarietan. Herria bero-bero zegoela, sanpedroetan korritzeko.

Bikotekide-bila zebiltzanak prestatzen ari ziren. Donibane-zuhaitza egingo zen. Eta Guayaquildik tiobibo bat ere etorri zen.

—Ona zetorrek jaiya... Gustura jardun ber diat aurten sanpedruak korritzen! Etxe artetik usain minezko ke-lainoa altxatzen zen. Jora egosten ari ziren sutatik zetorren. Alboan, mazamorra⁴³-eltzekada bat zegoen irakitan. Mahukak ukondoen ginetik jasota, bi etxekoandreak lanean ari ziren.

⁴² Konkistatzaile españolen kulturak eraginda, Hego Amerikako toki ugarian zabaldua dago ekain-uztail inguruko urtaroari deitura hau ematea, nahiz eta urteko garairik 'freskoena' eta izan.

⁴³ Arta irinez egiten den ahia. Euskaldunok '*morokila*' deitzen dugunaren antza du.

Mateo atera eta zaldiaren txalma trostaren konpasera soinu eginez, lokuluxkan zen kalean barrena aldentzen ari zela, emakume biek elkarri begiratu zioten. Manuelak harrika bezala bota zituen hitzok astiro-astiro:

—Ona ho, sanpedruak korritzekotan ba haiz!

* * *

Zain ziren, iskanbila noiz hasiko. Ez zen asko luzatuko. A!

—Oindik ez dian kontau ze esan tzinan iteko...

—Jun nindunanin, armadilo bati jaten ematen ai zunan... Eta gelan sartzeko esan tzianan... Hango belarrak eta hango usaiak! Bildur pixkat e baninan! Okerro oindik burezur bat ikusi ninanin atsuan gelako apaletik zintzilik. Eta okerro oindik, ohe azpitik rabo e güeso⁴⁴ bat arrastaka ateatzen ikusi ninanin... Karraxi in ninan... eta, gonak jaso eta korrika atera nahi ninan... eskerrak atsuak lasaitu nindunala!

—Ni enaun inoiz eon sorgin baten etxian... Jesus, Ma...

—Itxoin. Bukatu zinan, azkenian, armadiloai jatena ematen ta zea esan tzianan: «Ta beno, zer da zuk nahi zuna? Zukin itzultzia ala kalte itia?». Ixil-ixil geatu nindunan. Eta esan nionan: «Ba... zer da hobia?»... «Zeorrek nahi zuna»... «Eman bitatik eta doblia emango izut». Pentsa: oilar giroa⁴⁵ saldu ber izan dinat —neukan onena— eta oilanda amerikarra! Eta be zerrikei hoitakuak eakutsi zizkinan...

⁴⁴ (*Bothrops spp.*) Ekuadorko suge mota pozoitsu baten izena. Kosk eginez gero, ia beti heriotza dakar eta, horregatik, nekazariak beldur handia diote. Bizkarra ixaren antzeko marra batek zeharkatzen duelako izen hau edota 'equis rabo de hueso' ematen zaio.

⁴⁵ Borrokako oilar mota. Kolore iluna eta lepoaldean zein hegoetan zilar koloreko lumak edo horiak dituenari ematen zaio izen hau.

—Zeintzuk?

—Bata, berriro neanatzekoa, zerrieki hutsa un. Lotsa re ematen tzian!

—Esan tzan, neska. Tira, zer tzan?

—Ez, ez... Beno... hi konfiantzazkoa haiz... Garbitu in ber dun zea... badakin. Eta ur hoi eaten eman nola eo hala. Erre re, bai, buruko hiru ile, besapeko beste hiru eta beko beste hiru... eta errauts pixka hoi haren chicha eo ureta bota... eta, hola, gizonik makurrena re norbeana etortze un.

—Eta bestea ze izan tzunan?

—Ez den hain zantarra... bino bai okerro... Botila pattarretan librerdi bat tabako jarri ber den eta gau-intzetan utzi, goiz arte. Ta geo bahetu... pattar hoi...

—Beno-beno eta hik ze eman dion?

—Ez izatea zeukanan hain zakurra! Tabakuana eman tzionat! Gogo geioz etzan dein zorioneko zuri horrekin!

—Eta ze gertauko zaion?

—Ehorrek ikusko un.

* * *

—Manuela! Hator! Hator!

—Zer tzu, ña Chepa?

—Hator Mateo ikustea. Zalditik eroi dun. Eta eotu in dun. Zaunka ai dun, zakurrak bino areo eta lurrian bueltaka, ahotik lerdia daiola. Hator, azkar. Han, taberna-kantoian.

* * *

Hautsez zikin. Belauniko eroria. Gizon andrezale zenaren ile zaindua, laztuta. Begiak itzalirik, botila-kristal lausotuak balira bezala. Algara ergelez barrezka. Horrela ikusi zuen Manuelak Mateo: behinola beso artean izan zuen Mateo hura.

—Ne beltza, ne beltza; zer duk baina?

Txundituta zegoen gertatzen ari zenaz. Inguruan jendea biltzen ari zen. Izuak jota, ez ziren hurreratu ere egiten laguntzera.

—Hara...

—Atea daila norbait etxea... azkar. Zurienea...

Manuelak aurrera egin zuen denen artetik. Belauniko jarri zen Mateoren ondoan.

—Hor zetorrek zuria —zioen jendeak

Hura mayorca-kiratsa, ezpainetatik jaisten zen lerdeari zeriona! Bai zegoela zikina lurrez!

Begiak, galduta, dantzan zituen. Orro artean, oihuka hasi zen:

—Heu haiz-ta, putakume alena! Jo zan larrua karri hindunakin!

Manuelaren esku finak, samurtasun eztiz, betondoetatik kendu zizkion ile izerdituak. Makurtu zuen burua eta begiak musukatu zizkion.

—Esan ne zuriai tortzeko! Esan ‘tximu’akin⁴⁶ kusi duala ohean, bino etzaitela axola!... Esan tortzeko ‘tximu’-kumiakin eta miazka nazatela ixten nauteneako!... Maarikatua! ‘Tximu’kumia! ‘Tximu’kumia!

Eta jarraitu zuen:

⁴⁶ Gaitzizen hori ematen zaie Ekuadorko Kostaldeko biztanleei. Aberearen antzera, haiek ere berritsuak, ipurtarinak, berrizaleak, alaiak... baitira.

—Eta hi, zein haiz? Manuela haiz? A! putakumia, hoa pikuta! Goraino naon emakumiez... bino ezin naun marikoia izan... Galde apaizai, marikoia en-ta, ia ona den alukei hau...

Jendeak:

—Zuria.

Manuelak lur gainean utzi zuen, eztiro, gizonaren burua. Eta negar egin zuen.

BASOMUTILAK

—Alargun bati lapurtzen ai gaituk eurra, beste alargun bati emateko...

—Uste-k tamarindopekoa ez dala beotzen, ala? ⁴⁷

—Auskalo...

—Baleikek zerbait txarra gertatzia... tigriak easotzia... eo piztiak nor eo nor eamatia...

Erretzen ari ziren, ke apur bat egitearren; gütifea⁴⁸ sutan baitzen, ke lodia ateraz. Baina keak berak ere ez zituen lasaitzen.

Hamabiak ziren. Beroak isiltasun sakonez betetzen zuen egur-mendia. Azken loroak mendebaldera-bidean pasa ziren:

—Gerre... Gerre...

Hodei-izpirik ez zegoen zeru urdinean. Ibaiak, bere ur azkarretan, ez zuen zeruaren islarik ematen. Zuri eta ildaskaz betea zetorren, uraren abiadagatik.

Basomutilak isilik zeuden, nor bere zigarroari tiraka. Isiltasuna, tarteka, areagotu eta lodi egiten zen, azazkalen raast-raast geldoa azalean azkura

⁴⁷ Ipuin honetan behin eta berriz aipatzen diren tamarindo-alargunak Ekuadorko ipuin zahar bat dute oinarri. Espainolen konkista garaian zabaldu zen ipuin bat: *La Viuda del Tamarindo* izenekoa. Ipuinak dioenez, tamarindopeko alargun hori gaueko ordu txikietan zuhaitz horren gerizpean agertzen zaie oso dotore jantzita parranda-zale berantiarrei. Alarguna begiztatu orduko, ordea, arin-arin aldentzen da mozkorregandik. Ikusi duten andrazkoaz liluratuta, 'gau-txoriak' atzetik joaten zaizkio bide luzean, alargun eder hori harrapatu nahian. Harik eta, ibili luzeak nekatuta, deitzen dioten arte eta, bat-batean, sorginkeria deseginik, tamarindopeko alargunak bila datozkion galaiengana itzuli eta egiazko aurpegia erakusten dien: zapitan bildutako burezur beldurgarria! Eta, ikuskizunagatik zorabiatuta, parranda-zaleak zerraldo erortzen dira lurrera.

⁴⁸ Ekuadorren, oihanetan aritzen diren nekazariak erre ohi duten sastrakari ematen dioten izena. Horri su emanez sortzen den keari esker, beren buruak piztiengandik babesten dituzte.

egiten entzuteraino; edo han behean, urak jaistean sortzen zen hondartza aldean, bat-batean, guanchicheren⁴⁹ baten murgila nabaritzera.

Bi gizonak atseginez begiratzen zituzten, aurrean etzanik, sabel gorritzak erakusten zituzten beren marrazoak: oholak.

Ur-aldien laztanengatik jaiotako lohi lirdingatsu batek estaltzen zituen. Azalari helduta, karramarro txikitxoak zituzten. Ertzetan, aizkorak kateatzeko ireki ohi den zaurian, barraskiloak ikusten ziren erantsita: ur gezatako eta lohi arteko barraskilo finak.

* * *

—Liberato... entzun duk?...

—Ze?

—Kusi uk tigran arrastua?

—Kusi iat, Kaslo... Eta hik?

—Nik e bai... Zitala uk tigre hoi!

—Honezkeo konturau zazte ne pausuak zapaltze itula. Alafede. Nik, Kaslo, nik etzioat beldurrik... Bino tigriak baten-baten oinatza zapaltze unin, beldurra iolako izatek eta azkenin eaman ite ik... Ona zeok, halare, ni eamateko!

—Ez hai babua izan, motel! Ez duk pa esan ez duala beldurrik?

—Bino oinatza zapaltze iona eaman ite ik... Eta nei re oihi in tziak alargunak! Zuhaitzen motots berde ilunen artetik zarata atera zen tarrapataka. Hegaztiren bat, hegan hasi nahirik.

⁴⁹ (*Hoplías patana*) Ekuadorko ibaietako arrain mota. Nekazariak jateko harrapatu ohi dute.

Moteltzean, kanta luze bat sortuz urundu zen astiro-astiro. Amorfinoetako kanta bat. Hitzak galdu arren, behin entzunez gero, doinuaren kutsua ez da inoiz galtzen belarrietan. Gütifeen durundiaren edo euriteen uluaren paretsukoa baita. Eta perico ligeroak⁵⁰ egin ohi duen soinuaren antzeko kutsutan itzaltzen da.

—Liberato, tamarindoko alargunak deitu ik?

—Deitu naik, Kaslo... Eta nee izen-abizenez: Liberato Franco...

Bideko bihurgunetik uztarri-idiak iristen ari ziren hondarrezko zabalgunera. Peoiak, zaldietan, oraindik abesten ari ziren, punta zorrotzeko makilaz idien pausoak zuzentzen zituzten bitartean.

Oholen atzetik urruneko trumoi-burrunba geldoa altxatu zen hauts-hodeiekin nahasirik. Tartean, zuhaitz-enborrezko gurpil zakarren kirrinkaharia zebilen.

Mendiko hedez eta burdinazko ferraz jantzitako iditzarrek etengabeen tiraka ari ziren, erdi zuritutako sabel gorriak erakusten zituzten zurezko marrazoetatik tiraka.

—Alargunak hots ein ziak... eta tigriak arrastoa zapaldu ziak...

* * *

Halakoxeak ziren ile kizkur denak. Ohol beltz beretik atereak ziruditen.

Larru latz gogortuzkoak: eltxoaren sastada ñimiñoak baino zulatu ezin duen horietakoak.

⁵⁰ (*Choloepus didactylus*) Ekuadorko zenbait eskualdetan nagi hatzbikoari ematen dioten izena.

Liberato eta Carlos pozik jarri ziren, une hartan iritsi berria zen idi-parea zela-eta. Izan ere, figueroak⁵¹ eta nigüitoak⁵² zekartzaten. Hirurehun geruza dituzten zuhaitzak: oso zaharrak –urtebete, geruza bakoitzeko—... Beren adarpetik huankavilcak⁵³ igarotzen ikusi ahal izateraino zaharrak.

—Karroka bat gehio, ta almadia paria ingo iau... Etzi ibaian bera goazak...

—Almadia bat Pailón-entzat, ezta?

—Bai. Eta nigüitozko bestea, alargunantzat. El Oro kale inguruan duk.

* * *

—Bihar goiz arte ez gaituk itzuliko barrenea. Mendia nahiko alua uk gaez; hobe iau ibai ondun geatzia...

Jendeak oholak prestatzen bota zuen arratsaldea, hurrengo ibaiketarako.

Zortzi gizaseme beltzen bizkarretan palmondo haietako bat altxatzerakoan, airean jasota, inork ez zuen arnasa hartzen.

Izerdi-patsetan mugitzen ziren, biluzik, pauso motzetan. Zamak ez zien uzten lurretik altxatzen.

Zamaketari bakoitza adaxka bihurtzen zuen: zangoen hamasei erroetatik lurreko enberrari itsasten zitzaion adaxka eta ehunzango geldoa bezala herrestan ibilarazten zituen.

—Up... Up...

⁵¹ (*Carapa guianensis*) Ekuadorko mendietako belar mota.

⁵² (*Trema micrantha*) Ekuadorko basoetako zuhaixka. Gereziaren antzeko fruituak ematen ditu.

⁵³ Egungo Ekuadorko Kostaldean, Guayaquil ondoko Puná uhartearen eta Guayas probintziako hegoaldearen artean zabaldurik zegoen kolonia aurreko kultura eta giza taldea. Konkistatzaile espainolek itxura txundigarriko borrokalari gisa aipatzen dituzte.

Gorputz osoaren ahaleginak behartuta, zamaketarien adore-oihuak doinu bereziz jantzirik ateratzen ziren eztarrietatik.

—Up... Up...

Eta almadiako oholak, pisuak ematen zien arintasunaz, irrist egiten zuten beste oholen gainean. Izurdeen antzeko jauziak.

Bostetan eguna freskatzen hasi zen. Oholak oso behean ziren jada, hondarrezko zabalgunean. Ordenan jarrita, almadiak egiteko lotu zituzten.

* * *

Gizonak sutondora hurreratzen ari ziren. Lankide bat zerbait prestatzen ari zen. Gehienek verdeak zuritu eta txingarretan sartu zituzten, erreta jateko. Lapikoaren inguruan eseri ziren, hari zerion arrain-usainetan Etorri ziren Liberato eta Carlos ere.

—Ba al gea?

—Ateako izuet.

Iluntzen ari zen. Lurrezko euria ari zuela zirudien. Edo, hobe, lurrun beltza altxatu zen basotik, erraztietatik, ibaitik bertatik.

—Nausi, goizian tigría kusi deu...

—Bai? Nun?

—Uztarria lotzen ai ginen... Beharba idiak izutu nahiko zituen... Tximuak isiltzian eta basoilo bat hegan atea zela sentitzian, berriz, zea esan nien hauei: tigría! Eta egun argi izanda re, su in genun... Urrundik ikusi genun... Kuzkurtuta. Begitzarrak bakarrik iten zuten argi, basoko ilunarteetan.

Beste batek hartu zuen hitza:

—Benavide, hik siniste al duk hor esate itena: zapaldu ite ittula bildur dionan oinatzak eta azkenin eaman ite ula... E?

—Bai hoixe. Kusi re in diat...

—Nolatan?

—Longo bat⁵⁴ ... Longo erdi ero bat huen... Tamarindoeko alarguna hotseiten ai zitzaioan...

Carlos tentetu egin zen. Lagunak bezalaxe.

—Manglea karriatzen ai ginuan ibaian... Behe aldian. Choloen⁵⁵ lurretan. Adar bat genin goian jarrita. Longoak etzian inoiz lo in nahi izaten bian. Eta tigría bere hanka oinatzetan ipintzen hasi zitzaioan. A ze beldurra sartu zitzaioan harrezkeo! Otoitzekoa jo orduko, han tzegoan longoa adarrea iyota.

—Eta deitu al tzioan tamarindoeko alargunak?

—Bai zea!

Benavidesek irribarre egin zuen, jakitun direnek gai horietan ohi duten bezala.

—Nik entzun tzioat...

Hezurretarainoko hotzikara zuten, ziurrenik, denek. Iluna irabazten ari zen, sutako ilajearen mihi dardartiekiko borrokan.

⁵⁴ Ekuadorko gizarte mestizoan, mutil edo neska indiar gazteak deitzeko erabiltzen den herri-hizkerako hitza. Mespretxuzko kutsua du.

⁵⁵ Gaur egun Ekuadorko herri-hizkeran oso adiera eta erabilera zabaleko hitza; gehienetan, gutxiespenezko adieran erabiltzen da, hiriko edo mendebaldeko kulturako ohiturak berenganatu dituzten indigena ezikasiak adierazteko, gehienbat. Etnografiaren ikuspegitik, ordea, Ekuadorko Kostaldean, itsasoaren eta ibai nagusien ertzetan –itsasotik bizpahiru km arteko lur-tartean– bizi den jendaldea adierazten du. Gehienbat, arrantzatik eta itsasoko zein lurreko fruituak inguruetakoa herrixketan edota ibai zabaletan gora eta behera saltzetik bizi dira, eskolatu ere gabe. Gure idazleak ere, zehazki, adiera hau damaio hitzari.

Ibaia tinta beltzekoa egiten ari zen. Chagüiz⁵⁶ batek garrasi egin zuen eta, zarataren gainetik, hontzaren karraka entzun zen. Jaten ariko zen, zalantzarik gabe.

—Neuk e entzun nioan... Atsuana bezalako ahotsa ik: erdi ahate-kumin eta erdi maría-n⁵⁷ oihua. Eta gauero-gauero etzian hutseiten oihu iteakun... Esaten aiko balitz bezala: «*Joan, hator hona*»...

—Eta ze iten zian beak?

—Geo ta okerro jarri huen. Beldurrez gaixotu in huen. Berakuak akatu zian! Hori-hori jarri huen. Eta gau batian, Guayasea ateatzeko bezperan, tigriak eaman tzian. Adarran gainetik bertatik... eta geu bian ginela! Oindik entzuten ai nauk in tzian karraxia. Eta, argia piztu nuanian, tigrian itzala ikusi nian, hortzetan longoa zeamala!

Suaren argi-printzak gizonaren aurpegian islatzen ziren. Afaria prestatu zuena mate hutsak biltzen hasi zen.

Liberatok aldetik bota zuen verde erre hotz baten zatia eta irribarre egin zuen.

* * *

—Xauzarra eta banpiroa gauza bea al dia?

—Ez, banpiroa handiyaua uk...

⁵⁶ Saillkapen taxonomikoan duen deitura aurkitzerik izan ez badugu ere, Ekuadorko lagunek esan digute Kostaldean oso ugaria den txoritxo delá: gure hormatxoriaren antzekoa. Sarritan etxe-barneetara ere sartzén da eta herriak, horregatik, bisitaren baten iragarletzat eta, oro har, adur onekotzat hartzen du txori honekin topo egitea. Izena, berriz, egiten duen txistu laburraren onomatopeiatik datorkio.

⁵⁷ (*Phalcoboenus megalopterus*) Hegazti sarraskijalea. Luma beltzak ditu, urdin ilun kutsukoak; sabela eta buztan aldea, zuriak. Tamainari dagokionez, 50 cm-ko altuera har lezake.

—Hator akatu duan hau ikustea. Hankako bihatz potolotik zurrupaka ai zitekan.

—Ordun, banpiroa uk.

Atera zuen Carlosek estalkia eta ohatzeko ahuntz-larruen gainean eseri zen. Kriseiluaren argiak handituta mugiarazten zituen ondoko nigüitoen hosto-azaletan bi gizonen itzalak, txabolako sabaitik esekitako lastoaren hari dilindarien dantza berean.

Joan zen adiskideagana. Makurtu zen saguzarraren aldera.

—Ondo hilda zeok?

—Beira. Baietz uste iat. Ziarrua erreazteko esate iate, ez?

Txotxaz ukitzera zihoan unean, banpiroak hegoei eragin eta, sigi-saga, bi jauzi egin zituen. Ingurukoek atzera egin zuten. Mamorroa herren zegoen eta, mugiezinik, gelditu egin zen berriro. Leloturik bezala.

Eta orduan, bi zapán erabiliz, hego-ertzetatik lotu zuten zabal-zabalik.

Luzatu zion Liberatok bere zigarroa eta, Carlosek galarazi baino lehen, erre eginarazi zion saguzarrari.

—A, babua... Izorrai...

—Zetik?

—Ehorren ziarrua eman diok-eta... Bakik: saguzarrak hasitako ziarrua erretze unin, zori txarra ekartze iolako aurretik erre unai...

Ez zuten jada jostatzeko gogorik, ezta dauleñoaren⁵⁸ ertza ilinti bizi eginda ikusiz ere. Ezta mamorroaren keinuak ikustean ere.

58 Guayaquildik gertu den Daule herri inguruan ekoizten zen tabakoz egiten ziren puruei ematen zitzaien deitura. Tabako hau artisautzako teknika bidez lantzen zen **eta garai batean aski izen handia lortu zuen, Peru eta Panaman saltzera ere iristeraino.**

—Eraiok kontrakua...

—Ze?

—lok pixa gañian...

Liberatok genuaren zarrastadaz estali zuen mamorrotxoa; eta zigarroa itzali zuen.

Eta ezin zuten loak hartu.

* * *

Uztartu zituzten zaldiak eta idiak. Peoi batek, ezparak uxatzen zituen zaindu bitartean.

Eta bejuco batez belarra astindu zuen, sugeak edo har iletsuak agerrarazteko.

Zuhaitzak eraisten zituztenak aizkorak hartzen ari ziren: zuri, aho-aldearen zorrotz beldurgarriagatik, ez berri zirelako. Eta ekin zioten lanari.

Ez ziren oraindik izerditan. Fresko egiten zuen! Eta aizkoren azalek diz-diz biziak eskaintzen zizkioten opari goiz-eguzkiari.

Alai zeuden. Biharamunean ibairatuko ziren. Eta bihardamu, Guayaquil. Malekoian zekuskiten beren buruak, Conchero⁵⁹ inguruan. Aretoren batean garagardoa hartzen. Izan ere, pattarra gutxiesten ez bazuten ere, nahiago zuten garagardoa.

—Ez dik hainbeste mozkortzen eta jatekua re bauk.

Benavidesek erdi-ebakian zuen figueroan ziharduen buru-belarri. Apur bat geroxeago, oihu egin zuen:

⁵⁹ XX. mendearen hasieran Guayaquilgo auzo batek zuen izena. Inguru hau, gaur, salerosgai merkeen azoka kokatzen den *'La Bahía'* izenez ezagutzen da. Gallegos Lararen garaian herri xehe eta pobrea ibili ohi zen edaritegi narras ugariko ingurua zen.

—Ia! Ondo al dia lokarriak? Bazik lurrera...

Alde batera egin zuten adi-adi. Gizakoteak azken kolpeak eman zizkion aizkoraz, bere basomutil-zahar begiak eskatzen zion saihets hartan.

—Hoa bera!

Bat-bateko zarata artean erori zen: hostoak hostoen kontra igurtziz.

Abarrek abarren kontra jotzen zuten, eta krakateko izugarrien artean hautsi ziren.

Enborrharen trumoi bortitzak lurra dardarazi zuen; burrunba bakardadeetako oihartzunetan errepikatu zen.

Gortuta, baina han joango ziren korrika adarretara. Indioiloen edo basoiloen arrautzak egon ohi ziren. Edo mosquiñañen⁶⁰ eztia.

Batek garaiz ikusi zuen:

—Kontuz cuboekin⁶¹...

Baina Benavidesez, jauzi eginez, urrezko lainotan bezala burrunbaka altxa ziren liztor beldurgarrien artetik, zera erantzun zion:

—Ni, barrura; ze arraio! Eztia nirea uk!

—Baldin bazeok...

Beste batek ere salto egin zuen:

—A! Bazekiat zeatik sartze haizen ikaraik pe; erremiyua ezautze kalako: mihi puntai kosk inez

Cotonak baliatuz, uxatu zituzten cuboak. Baina ez zegoen eztirik.

⁶⁰ (*Apis sp*) Erlearen antzeko intsektua. Txikiagoa da eta horixka.

⁶¹ (*Vespa luctuosa*) Ekuadorko oihanetan aurkitzen den liztor mota. Kolore urdinekoa da. Bizilekua zuhaitzetan egin ohi du eta arriskutsua gerta liteke, ustekabeen estropezu egin baitaiteke beraiekin eta haien ziztada mingarria jaso.

Nigüito bota berriaren adakera aurrean zuen hartan etorri zitzaion burutazioa. Ikusiko zuten indarrean zela!

—A! Neu bai, gizona!

Aurrerapauso bat eta:

—Ta egiya baa? Ta beizkoa inda baneok? Ta saguzarra ta tamarindopeko alarguna eta zapaldu iaten oinatza? Ba hil ber baiat igual duk adar artean eo hementxe... Beno ba, aurreaka eo...

Ebaki zuen adar luze bat aihotzaz: nigüito adar bat, berak nahi bezain zuzena. Zuritu zuen eta esku artean laztanduz gozatu zuen.

Marra zuria zirudien. Makila biribila zen, ez oso lodia; muturrean, zapánaren lokarri sendoz, puñala lotu zion, altzairuzko tximistargi fina.

* * *

—Arima ateako iat... Tamarindoko alargunana jun ta esan berko iok butik bera kakazten duala: bea ta hanketatik tira zion putakumia...

Arratsalde hartan uztarriaren atzealdean geratu zen; bere behor pinttoan igota.

Carlosek lantza bihurtu zuen makila ikusi zion:

—Ze habil? Ez hai atzian geatu...

—Kusko. Ez hai kezka...

Liberatoren aurka aztikeriaz jarduten zuen lankideak irribarre egin zuen, atzean geratu zenean ahapeka tigrearen aurkako irainak botaz.

* * *

Zenbat itxaron zion? Ez zekien: aspaldi galdu zuen orduen kontua.

Zaldia amu gisa zeukan loturik, inguruan larratzen.

Bera –su-armarik gabe– zelatan zegoen gertutik. Gorrotoa gailendu zitzaion, bihotzean irainka ari zitzaion piztia haren aurka: oinatzak zapalduz eta oilo deituz irainka ari zitzaion aberearen aurka.

Urduri zegoen; bihotza ostikoka ari zitzaion, egia. Baina ez zen beldurra. Aberearen beldur balitz, ez zion itxarongo.

Eskua izerditan zuen, makilaren lepoalde zuzena estutzen zuen bitartean. Hain ari zitzaion estu heltzen, odola atera edo ito nahi zuela baitzirudien.

Eguerdiko ordu bata. Ordu bi eta erdiak. Hirurak, agian. Abereak aspaldi isildu ziren... beroagatik agian, gertu zebilen tigreagatik agian.

Oihana zuztarrez eta adarrez itxi-itxi egiten zen gunean, hostoek iragazitako eguzki-orainak soinean, Liberato Franco etsaiaren zain zegoen, kuzkur eginda.

Gizakitzat zuen piztia etsaia. Pertsona gorrotatutzat: emaztea lapurtzen digunaren parekotzat, esate baterako.

Denbora-pasa aritu zen: hosto-tartetik guataracak⁶² egiten zuten errenkada ikusi zuen. Ur-putzu batean pejesapoak⁶³ saltoka ari ziren. Urtxintxa bat, korrika-saioa eten, eta so-so geratu zitzaion begirada eztiz eta bat-batean tente jarri zen.

Aztarna bakarra.

Kolpe batean bi bunbuilo berde argi eta dizdizari ikusi zituen behorren aurrez aurre. Ia-ia lurraren parean. Pixkana katutzarraren ingurumari

⁶² (*Ortalis guatata*) Ekuadorko lurretan aurkitzen den txindurri mota. Eskualde batzuetan 'manacaraco' izenez ere deitzen dute.

⁶³ (*Sicyases sanguineus*) Ekuadorko 'estero'etan aurkitzen den arraina. Izenak 'pez sapo' esan nahiko luke. Gaur, kutsaduragatik, apenas aurki daitekeen. Itxura oso itsusia du eta, horregatik, ez da batere estimatua. Horren adierazgarri, zenbait tokitan ematen zaion beste izen hau: 'pez brujo'.

dotorea ezagutuz joan zen. Isatsa begiztatu zuen, bejuco malgu eta isila lakoa, saihsaren alde batera eta bestera saltari. Hala etzanik, behe-behetik, benetan luze ikusteraino luzatzen zen.

—Txanka me halakua!

Liberatok ere argi zituen begiak. Gorputza, tenkatuta. Eta une hartako argitan, adar artetik iragazitako eguzki-izpiak bezain argi eta dizdizari nabaritu zuen makila: zuzen, geldi. A! Ziur zen bere pultsuaz.

Ez zuen begien bistatik kentzen aberea. Gorputzeko poro guztiak adi-adi zituen: prestatzen ari ziren, zuzen-zuzen. Bihotza ikaragarritzko pasilloak⁶⁴ dantzatzen ari zitzaion. Eztarriraino igoa zuen: hortxe sentitzen zuen. Zer axola, ordea, bihotza jauzika izatea, gorputza geldi-geldi badago?.

Okerrena, ordea, zen tigreak bihotz-jauziak entzungo zizkiola. Taupadek, izan ere, pilotakadak ziruditen benetan: nola ari zitzaion bihotza!

Heldu zen tigrea oihana itxiago egiten zen ertzera eta, bat-batean, gelditu egin zen.

Haize-bolada altxatu zen; adar lehor eta ogi-fruta⁶⁵ zahar batzuk bota zituen. Tigrearen aldetik gizonagana zetorren; ez gizonagandik tigreagana. Aldeko zuen, beraz.

⁶⁴ Independentziaren aldeko borroken garaian Kolonbiako eta Ekuadorko Andeetan jaiotako dantza. Austriako vals-aren egokitze batetik sortua dela diote. Aski arrakasta eta hedapen handia izan zuen XX. mendearen erdialdera arte. Gaur egun Ekuadorko abesti eta herri-dantza bihurtu da; are gehiago: nazioaren sinbolo eta ikur dela ere esan liteke, musika aldetik.

⁶⁵ (*Artocarpus communis*, *Artocarpus incisa*) Jatorriz, Itsaso Bareko uharteetatik etorritako '*fruta de pan'* izenez ezagutzen da fruitu hau. Gure gaztainaren antza du. Aski handia da: 30 cm-ko diametroa izan dezake. Azala kolore berdekoa du. Azal barnean biltzen den ale-multzoa erabiltzen da jateko. Aleak gozoak dira eta, ogi-mamiaren itxura dutenez, eman zaio izen hori. Gure lurraldean baliokiderik ez duenez, eman diogu deitura berri hau.

Tamarindopeko alargunak deitu ziola esango zuten gero! Gorroto balio, bere toquillazko⁶⁶ abanikoa astinduz, aurkako haizea aterako ziokeen.

Bai polita, piztiaren bular aldea! Guayas itsasadarra bezain zuria eguerdiz! Koartzaren buztaneko lumaz egina zirudien! Eta harena bezain tente harrotzen zen!

—Larrua ieri badabilkik, nei re bai. —zioen berekiko Liberatok...

Gainerakoa laburra izan zen.

Tigrearekin batera egin zuen salto: hartarainoxe zuen begiz joa.

Tigreak huts egin zuen saltoan —kirtena, halakoa!— eta, zaldiaren hankagainera erori orde, albo batera erori eta atzaparkada soil batzuk egin zizkion zaldiari.

Begiratu zion tigreak gizonari, baina ez zuen ongi neurtzeko aztirik izan. Gizonaren gainera salto egin eta berriro huts egin zuen.

Bi aldeetako borrokalarien jauziek bat egin zuten ezinbestean. Zitzu batean mugitu zuen gerrialde osoa —orroan itoko zela uste zuen— eta, berarekin batera, barreneraino sartu zuen makila muturraren laurdena eta gehiago.

Izerdi hotza zerion Liberatori eta une batetik bestera bihotza bota behar zuela uste zuen.

Zaldi gorritzak, tigrea —izuaren izuz irrintzi eginarazi eta oldartu eta jauzarazi zion tigrea— oraindik izterretik helduta zuela, hauts-zurrunbiloak altxa zituen zabaldiaren inguruetan.

* * *

⁶⁶ (*Carludovica palmata*) Hego Amerikako landarea. Hosto zabalak ditu, haizemaile itxurakoak. Ospe handia dute mundu osoan landare honen hostoetatik ateratako hariak baliatuz —hariok zenbat eta finagoak, orduan eta baliotsuagoak— egiten diren '*sombrero Panamá*' deituriko kapela finak.

—Hi, Benavide, hor tzetorrek *ño Liberato!*

—Txantxik ez, motel! *Ño Liberato* tigrían sabel...

Liberatok zalditik jauzi egin zuen, tigrearen gorpua askatu eta lurrera bota zuen patata zakua balitz bezala. Denek inguratu zuten.

—Kusten? Kusten? Sauxarrak ne ziarro-punta erre zian eta tigríak, ne lantza-punta... Tamarindoko alargunak nei ez; berai intzioan oihu eta neuk zapaldu zioat oinatza ... Kar, kar, kar...

Alai ageri zen, bizitako ikaraldiaren ostean.

—Ta bakizue, ze arraio, ez duala sorginkei eta holako ziritan sinesten. Hor tzeok!

Eta Benavidesek honela ziotson lankide bati, prestatuta zituzten almadia ondoan barrez ikusi zuenean gizona:

—Liberato hau lengo montubio⁶⁷ haitakoa diau...

1930

⁶⁷ Ekuadorko Kostaldearen barnealdean kokatzen diren lurretan (itsasertzaren 2-3 km-tatik haragoko lur lauetan) nekazaritzatik —abeltzaintzatik, batik bat— bizi den biztanlea. Garai bateko indigenen, espainolen eta beltzen arteko nahasketatik eratorri den giza taldea. Kultur nahiz hizkuntz espresio propioak dituen kolektiboa osatzen dute.

URAK GORA EGITEAN...

—Matte haunat ta bestiak, hor konpon...

—A, bai? Ez iak barre erain...

Aurrez aurre ziren. Desafioka, neska; irrikaz, mutila. Uren gorakadak eragindako kulunka geldoan zebilen almadia.

Amildegia berdintzen ari ziren. Zuhaitzak, belaunetarainoko uretan. Belarra, itotzen. Sigi-sagan ikus zitezkeen iguanen ihesi urduriaren izpi berdeak.

Mendiko eskorpioiak zirrituetan gordeta zeuden.

"Manflor"⁶⁸ eta "Cuchucho"⁶⁹, bitartean, elkarri begira ziren.

Almadiak estalpe eta guzti zuen, nahiz eta bijaoak⁷⁰ —beti blai— erortzeko zorian zelako itxura eman.

Hor bizi zen gizona. Bakarrik, mutilzahar. Gaur, ordea, "Manflor" etorri zitzaion. Zertara? Zirikatza? «Ez: lixiba egitera», zioen berak.

—Kaixo, "Cuchucho"; arropa-eskuka hau garbitzea nator...

—Ondo zaon.

⁶⁸ Latinoamerikako hainbat herritan, hitz honen bidez, emakume tankerako gizonezkoa edo gizonezko homosexuala adierazten da; horretatik, ipuineko pertsonaia baliatuz, egileak beren beregiz egiten duen hitz-jokoa.

⁶⁹ (*Nasua nasua*) Ekuadorko herri-hizkeran, koatiari ematen zaion izena. Gehienez ere 50 cm ingurura iritsi litekeen ugaztuna da; buru luzea du eta aho-sudurrak, estu eta luzeak. Pertsonaiaren ezaugarri fisiko hori eman nahi ote da hemen aditzera?

⁷⁰ (*Calathea lutea*) Amerika osoan hedaturiko landare mota. Indiarrek eta nekazariak etxebizitzetara estalkia emateko baliatzen dute; orriak, batez ere.

Baina ezin eutsi. Andreak ertz batean utzi zuen lastozko kapera. Antoxintxo batez ura atera eta, makurtuta, garbitzen ari zen. "Cuchucho" k irrikaz beterik jarraitzen zuen gonak, jarrera behartu hartan, ia agerian uzten zuen neska gaztearen gerri-ipurtaldeetako marra.

Almadia kirris-karras ari zen. Urek gorantz jarraitzen zuten. Almadia igotzen ari zen, astinduak emanez, urduri balego bezala.

Bazuen zerbait garbituta eta ia gizon-gihar itxura zuten beso biribil haiez estutzen ari zen, harik eta krakateko sendoago batek almadiaren zurajea astindu zuen arte. Itzuli egin zen:

—Zer tzan? Tramankulua hondora diju, ala?

Soroetan, han, oso barreneraino, urak hazita ikusten ziren ezagun zitezkeen enborren erdialdea baino gorago.

—Bakarrik gauden... Eta ezin gaitun hemendik atea.

—Ta txalupa?

—Etzeon txalupaik.

Egoeraz oharturik, "Cuchucho" ri begiratu zion. Hura asto-aurpegia! Eta nola begiratzen zion! Zeren asmotan ote zebilen?

Mutilak jauzi egin zuen; nola-halako jauzia, salto egiteagatik; izkirak ur ertzean egiten duen bezala: ikusia izatearren.

Eskua sorbaldan jarri zion:

—Matte haunat, Zoila, matte haunat...

—Hik? Ez haiz nitzako gizona... Ez iak barre erain...

"Cuchucho" ren ahotsak une hartan doinu gogor eta mingarria hartu zuen:

—Matte haunat... ta bestiak, hor konpon...

—Ez iak barre erain... Entzuten?

* * *

Orduan ohartu zen "Cuchucho" neskaren gaitzizenaz; baita hari buruz zebiltzan esamesez ere. Berari maitemina izateagatik "Cuchucho" esaten zioten bezala, neskak ere bazuen bere istorioa...

—Bazekinat, bai, zetik... ez dittun gizonak matte; egori bezalako emakumik bakarrik... Hi talo-pala haiz!

—Eta hala balitz e, hiri ze?...

Gainera jaurtiko zitzaion.

"Manflor" barrez ari zen, urduri... hortz fin eta parekatuen ilara zuria erakutsiz.

Bat-batean, kolpe leun bat entzun zen goian. Uren gorakadak taldetik aldendu zuen cabeza e mate⁷¹ batek salto egin zuen ontziaren sabaira, ertzeko "mataserranos"⁷² batetik.

Gizonak eta emakumeak, biek, gora begiratu zuten. Katuki txikia irristaka zetorren beherantz, guadúa bati atzaparrez helduta. Behealdeko balsa⁷³ ohol batera iritsi nahi zuen. Ez zuen atsegin sabai karrakari eta mugikorra.

⁷¹ (*Eira barbara*) Gure arteko erbinudeen antzeko aberea, baina handiagoa (1m luze eta 7 kg izatera iritsi liteke). Tamaina hori dela-eta, jendeak zakurtzat ere hartu izan du. Edozein ordutan, baina batez ere gauzez edo egunsenti inguruan ibili ohi da ehizan, lur azalean eta zuhaitzetan. Hiltzaile amorratua da; arratoiak, untxiak, arrautzak, intsektuak, sugandilak... jaten ditu. Ezaugarri horiek direla-eta, badira etxean horrelakoren bat hazi ohi duten nekazariak ere, abere kaltegarriak kontrolatzeko.

⁷² (*Pouteria sapota*) Ekuadorko Kostaldean, 'mamey' zuhaitzari eta honen fruituari herriak ematen dion deitura. Izen berezi honen jatorriaz herriak kontatzen duen elezaharrak (Mendialdeko biztanle batek, fruitu hau ikustean, hain atsegin egin omen zitzaion, hazi eta guzti jan zuela, alegia. Baina hazia pozoitsua zenez, hil egin zela) nahikoa garbi islatzen du Ekuadorko Kostalde-Mendialdeko herritarren arteko lehia.

⁷³ (*Ochroma pyramidale*) Hego Amerikako oihanetan ematen den zuhaitz mota. Oso egur arineko landarea da. Hori dela-eta, asko erabiltzen da eraikuntza-lanetan.

—Ikuste uk cabeza e matea? —bota zion neskak aurpegira ahots zorrotzez.

—Bai, ta?

—Beira.

Keinu labur eta seguru batez —bat besterik ez— hartu aihotz bat esekita zegoen habetik eta jaurti zuen.

Aihotzaren muturra dardarka hondoratu zen balsa egurrean, eta kolpearen indarrak basakatua harrapatu eta, indarraren indarrez, tximeleta orratzean bezala utzi zuen zintzilik.

"Cuchucho" k barrez erantzun zion, arnasa jaurtiz aurpegira:

—Ni e naun cabeza e matea...

Eta gainera bota zitzaion neskari, gonak jasotzeko ahaleginetan.

Borroka egin zuten. Neska sutan zegoen... eta sasoian; mutila, irrikaz... Eta gizonezkoa zen.

Lurrera erori ziren biak, borroka bizian.

—Maarikatu alena!

Eskuaz barnealdea sakatzen sumatzen zuen, haragia eta biloak atximurkatzen.

Sorbaldan kosk egin zion. Elastikoa bitsetan zerabilen. Eta jirabiran, ostikada eman zion. Ostiko gogor bat, debekatutako tokian.

—Suekumea!

Eta une batez utzi egin zuen, berriro gainera jauzi egiteko gogoz.

"Manflor"ek eskua eraman zuen sabel minberatura eta atzera egin zuen.

Oraindik urak goraka zetoze zirudien. Soroak ureztatuta ikusi zituen urruneraino.

—Ordu bitako jatsi en!... Eta urek itzuli bino len, nekin etzanda eongo haiz, alua!

Neskak algaraz erantzun zion:

—Goazen burnita borrokatzea... Irabazten baiak, hikin geauko nauk gabian... eta hikin lo ingo iat hemen bihar arte... Irabazten baiat, e nauk gehio izurrauko... Nahi duk?

—Ina.

—Zin in tzak, irabazten baiat e nauala gehio amorraziko!

—Gurutze honeatik, beltza. Eta ehorrek e zin in tzan, irabazten bainat, emango dinala gau hontan...

—Ina, ala San Jazinto, ne santua -nez...

* * *

Aihotzek lau kanpaikada jotzerako, marimutilak esteroko uretan galarazi zuen "Cuchucho"ren aihotza.

—A! Maarikatua!

Hitzemana, ordea, zor. Geldi-geldi geratu zen. Gero aterpean sartu eta hamakan etzan zen. Hitzik esan gabe. Neska ere isilik geratu zen harrezkero...

* * *

Itsasaldiak behera egin zuen, uren aroko legez. Bideak ageri baino lehen, "Cuchucho"k bagre⁷⁴ txiki bat erre zuen verde batekin eta neskari eskaini zion. Besteak onartu egin zion eta bekozko ilunez jan zuen, jada desafiorik egin gabe.

Amaitu, eta almadiatik atera zen.

⁷⁴ (*Galeichthys felis*) Ameriketako ibaietan uso ugaria den arraina. Haragi horixka du; eta, ia arantzarik ez duela-eta, ibia ertzetako choloek asko estimatzen dute jateko.

—Hurren arte...

Lur lohitsutan barrena abiatu zen; eguzki galdatan, lurrun epela zerien ertzetan barrena.

—Hurren arte! Hurren arte!

Ongi zekien "Cuchucho" k ez zela itzuliko. Halako emakumeek gorroto baitzituzten gizonak eta halakoekiko harremanak. "Manflor" zen...

"Cuchucho" bere gauzak txukuntzen hasi zen. Hurrengo egunean Guayaquilera joango zen.

Almadia lur gainean zetzan orain, lohizko ohatze gainean: hain zegoen hutsa esteroa orain.

Lur azalean ildaska bat ikusten zen: lohiz betetako zauria —lurraren haragiaren zornea—, hondoan ur lohitzuko haritxoa zeriona...

1930

BASA ANDEREA

Basa Anderea!

Ezagutzeko irrikaz bizi zen Viviña. Iseka egiten zien hari buruzko istorio guztiei; ez zuen bat bera sinesten. Istorio horrek, ordea, sentsualitate tentagarrien erakarmena zuen. Izan ere, Basa Andereak gizonak harrapatzen omen. Mendira eramaten zituen. Senartzat hartzeko.

Beste ipuinak deus ez ziren: zela burugabetuarena edota ehun txiten oiloarena edota deabruaren haizetearena. Ba!

Ez zien beldurrik hildakoei. Bizidunei zegokienez, berriz, probatuta zituen. Toribiorekin aihotzez borrokatu zenean. Chaba-ren zapi batengatik. Saihetshezurrak puskatu zizkion eta «Atxilotu! Atxilotu!» oihuka ari ziren guztien aurrean, odolbildutan zen xafla beltza miazkatu zuen.

Ezer egitekorik ez, eta hara-hona ibiltzen zen. Mendira joateko ohitura zuen, lotara. Eta *Güerta Marditara* joaten zen. Bost axola, han, bere emazte eta seme-alabekin batera lurperatuta zegoen beltzari eman zion tormentua: berak hil zituen denak. Gauetz handik zebiltzanek esaten zuten lurpetik negar-zotinak ateratzen entzuten zirela. Viviñak haizearen eta aihotzaren txistua baino ez zuen entzuten, adar zaharrak eta platano-zuhaixka lehorrak botatzean. Edota congak⁷⁵, adar ustelduetan zuloak egitean. Eta gaua, bere bidea egitean.

⁷⁵ (*Paraponera clavata*) Ekuador eta Kolonbia inguruetakoko basoetan aurkitzen den inurri mota. Handia da (4 cm-tara ere iritsi liteke); buruan adar moduko bi erpin ditu eta pozoitsua da.

* * *

Baina hainbeste entzun zuen Basa Andereaz... Gizaseme ausart askok aitortu zioten:

—Animo gehio banu... Alafede jungo ninuala bila...

Haren zertzeladak ematean, beldur- eta lizunkeria-hitzak nahasiz egiten zuten:

—Ona zeok, horratio! Begiekin diz-diz ite omen dik, tigriak bino areo. Ta a ze bular puska! Ta iletsua uk, oso. Bino haren eskutan eortze an kristaua ez duk berriro herrira bueltauko. Ta ezinezkoa uk haren arrasto atzetik jutia: hankak birauta izkik atzekoz aurrera...

Viviñak barre egiten zuen barnez eta erantzuten zuen:

—Ongi zeok.

* * *

Eta egun batez mendira atera zen. Erosi zituen cabuyazko mendi-oinetakoak. Lotu zuen crucerittoa⁷⁶. Eta gora jo zuen, amaigabeko baratzeen bidetik. Zeharkatu zituen sabanak eta bejuco-sailak. Inguratu zituen azken etxaldeak. Hiru egun egin zituen frutak, katamixarrak eta untxiak janez eta ibaietako hondar-urak edanez.

Zuhaitz garaietan lo egiten zuen, hankak zangalatrau lotuta. Hautsiko ez ziren adarren bila ibiltzen zen, loaren erdian ez lurrera erortzeko.

Basa Anderearen mende zuen gogoa.

⁷⁶ Montubioek aihotza loturik eramateko erabiltzen duten gerriko eta zorroa. Olanaz edota larruz eginak izaten dira gehienbat.

Haren bila zebilen egunez, urduri, sastraka itxien atzean begiratzuz. Edota higuierón⁷⁷ erraldoien enbor-zuloetan gordetzen ote zen. Bi aldiz egin zuen gauez harekin amets. Iletsua eta lizuna irudikatzen zuen; eta, gihar ilunengatik, figueroaren egur gorritzaren antzekoa.

Hain izan zen bizia ametsa, esnatzean –horretan bere betiko irri-jarrera apur bat jarritz–, bakarka zirri egiten jardun zuen.

—Hau dek hau!; zutitu in tzaidak. Ze ingo ote likek Basa Anderiak holako puska trabatuta?

Zoratu beharrean aritu zen. Eskailerapean gordetzen zenean bezala, arreben gonapeen zelatan egoteko. Mukitsua zela.

Zuhaitzak dar-dar egin zuen. Viviñak bazihoala sentitu zuen une berean –“Azken batin, ia emakumik ite iatenaren pareko uk...”–, hontz batek ulu egin zuen. Buruaz gaindi, goiko hostoen artean.

* * *

Laugarren egunean ibai bat zeharkatu zuen. “*Rio Verde*”... pentsatu zuen. Udan erreten bat, besterik ez. Neguan gainez egin ohi zuen. Orain erdi betea zegoen ur lohitsuaz. Bits kirasduneko azal batez estalia.

Mendia beste ertzean altxatzen zen. Bejucoa eta bejucoa. Haiek arboladiak! Eta azpian, isilpe beltza.

Ibilian zen noizbait handik zehar, egurra ateratzen. Baina ez orain bezala, hots, beste inor gabe, bakarrik. Orain sekulako baso itxia iruditu zitzaion. Ez zion sartzeko gogo handirik ematen.

⁷⁷ (*Ficus* spp.) Enbor lodi eta egur gogorreko zuhaitza. Ameriketara asko erabiltzen da ontziak egiteko. Hosto zabalak ditu eta adaburu itxia, fruitua, berriz, zuku ugarikoa da.

—la hor dan Basa Anderia!

Eta han geratu zen *Rio Verderen* ertzean.

Bizitza osoan oroituko zen paraje hartan eserita igaro zuen arratsaldeaz.

Enbor erori batean eserita. Hondartza txiki batean.

Isilpe hark beldurra eragin zion.

Nork zekien zer ezkututzen zuen baso itxi erraldoi haren erabateko soseguak...

Jendea, hain urrun. Ur berdea, etzanda, beso-zabal. Mirari hartara egokitu beharko zuen... edo erotuko zen.

Norekin hitz egin?

* * *

Gauerdian tigrearen orroa entzun zuen. Piztiak usaina hartu zion. Viviñak ere usnatu zuen. Apo-, zakur hazteritsu-, txiza usteldu-... kiratsa.

Besteren etxean, zalapartarik ez. Eta han geratu zen, geldi-geldi. Hitzik gabe.

Mihia, lehor. Ahosabaia, gazi.

Enbor anitzeko matapalo⁷⁸ hura lodia zen eta hostoak, marmartiak. Agian horregatik atera zen onik. Tigreak aski izan zuen tximino batekin. Tximu altu-altu bat, Viviña baino beherago kuzkurtuta zegoena. Beltz baten gisako tximua zen; bizar dardaratikoa; beldurraren beldurrez, umeen antzera intzirika ari zen.

⁷⁸ (*Ficus jacobii*) Hego Amerika osoan zabalduta dagoen landare bizkarroi baten deitura. Bizkarroi den zuhaitzaren azal gainean itsatsi eta, haren izerdia hartuz, hazi eta gero eta zabalagoa egiten da, lehena hil eta bera bakarrik geratu arte. Horretatik datorkio izena ere.

Tigreak salto egin zuen. Adarrak apurtu zituen bere gorputzarraz. Chumbotea⁷⁹ edo astoa bezain handia iruditu zitzaion.

Egunsentian ezagutu ez zituen txori-oihuek esnatu zuten.

Mendiari beldur izaten hasi zen. Argitu zuenean, lurrera jaitsi zen edatera.

Nazka eman zion ur lohitsuak. Baina besterik ez zegoen. Eta beldurrak egarritu egiten du!

Eta Basa Anderea? Deus ez.

Gero eta garbiago ikusten zuen ipuina besterik ez zela guztia. Aihotz-kolpeka apurtu zuen bejucoa. Nekatu zen arte. Beldurrez zapaltzen zituen hostoak: «ez al duk rabo e güeso bat eongo...». Biderik ireki gabe joko zuen aurrera. Bere gorputz arina irristaraziz bakarrik. Landarezko sare korapilatsuen artetik.

Gosaritako, belar gustuko zapoteak⁸⁰ jan zituen. Bazkaltzeko, guabak⁸¹ eta caugeak⁸².

⁷⁹ Ekuadorko nekazarien herri-hizkeran, zekorra, idiskoa. Bide horretatik, zenbait testuingurutan gure 'morrosko' esanahiaz ere erabiltzen da.

⁸⁰ (*Pouteria sapota*) Hego Amerikako zuhaitz mota; kordatan zintzilikatzen diren lore gorritzak ematen ditu. Fruitua sagarraren antzekoa da eta haragia, kolore hori ilunekoa; ona da jateko: gozoa eta urtsua.

⁸¹ (*Inga feuilleei*) Ekuadorko lurralde beheetan oso hedapen handia duen *guabo* zuhaitzaren fruitua. Metro erdiko luzera duten lekatan dator, kotoi-matazaren antzeko geruza zuri batez estalita; Kostaldeko nekazariak, beren lanen erdian, jan egin ohi dute. Landare hau basa-zuhaitza bada ere, nekazariak kafe landareei gerizpea emateko landatu ohi dute. Ameriketako beste herrialdetan 'guamo' eta 'guama' izenez ezagutzen dira landare-fruituok.

⁸² (*Pouteria caimito*) Arabi-sagarraren antzeko fruitua, azal gogorrekoa, kolore hori edo berdekoa eta leuna. Kaki fruituaren antza ere badu, baina horrek baino haragi zuriagoa du eta zaporetsuagoa. Oso haragi galkorra duenez, zuhaitzetik hartu ahala jan behar da, bestela galdu egiten baita. Zenbait tokitan 'caimito' izena ere ematen zaio.

Eguerdian, makilakada batez, armadilo bat akabatu zuen. Sua egin eta oskolean bertan erre zuen.

Aurrekoa bezalako beste gaurik ez zuela egingo erabaki zuen, tigrearen mainen arriskupean. Sua piztu eta ernai igaroko zuen gaua.

* * *

Nola lokartu zen lurrian? Ezagutzen ez zituen zuhaitz haien hostailapean sortzen zen basa-usainak eraginda? Nekea izan zen?

Lurrian etzanda zegoen. Enbor bat gehiago zirudien. Erroak hautsita. Ahoz gora etzana, hosto ihartuen artean: geldi... Eta esnatzean...

Basa Anderea!

Besoak. A zer nolako besoak: sendoak eta bigunak une berean; kautxuzkoak bezala. Eta ahoa. Cauge zurrupatzaile eta lirdingatsua, kemenez miazkatu eta bat-batean geratzen zena. Laga egin zion. Pipitarik gabeko halako guanábana⁸³ baten mami gozoaren parekoa zirudien.

Eta gainean, zama. Ohartzen ari zen pixkana. Bularrak –egia zen ziotena!– biribilak eta epelak zituen. Herrian hazi eta bere egin zuen longa batenak gogoratu zizkion.

Ahoz gora zegoela ohartu zen. Gerrialdea higuerón baten zainetan jarrita.

Eta sabel hura, mugitzen.

Eta iztermami haien erdialdetik zetorkion, suge-irritsez inguraturik, sentipen xurgatzaile eta latz hura. Eta etorri zetorkion amodioaren zorabioa.

⁸³ (*Annona muricata*) Izen bereko zuhaitzaren fruitua. Amerikako fruiturik onentxoenetakoa, diotenez; ahogozo oso atsegina du, freskagarria da eta gustagarria.

Eta, bera zenaren erpin dardarakoian min eta gozamina emanaz, unetik unera ugariagoak eta basatiagoak ziren laztan haien erdian, zer zen sentitzen zuena?

A! Zergatik?

Beso maitale haiek lepoa estutzen ari zitzaizkion. Itotzen ari zen. Begien aurrean zeuzkan une oro “haren” bi begiak, beltzak eta suzko argiz beteak. Orain, larriminen erdian, urratzen eta desagertzen ikusi zituen... estutuan.

—Ez. Zori... Ez.

Hitzak ez zitzaizkion atera. Mailukadak balira bezala, kalakan ari zitzaizkion burmuinean. Ez zen gehiago babestu. Anderea gainean, epel, inguratzen ari zitzaion. Ehunduz zihoakion, besoz eta zangoz. Mendien zukua, musu haien bidez, sartzen ari zitzaion bere baitara.

Den-dena lauso, nahasi egin zitzaion. Dena... bere baitan burrunbaka zebilkion, hitz zabal eta amaigabe hura izan ezik:

—Basa Anderea!

1930

BIKOTE BITXIA

Angel F. Rojasentzat⁸⁴

1

Mutikoak, jakin-minez:

—Andrea, berorrek ere ez du familiarik?

—Bakarrik nago munduan, senar zenak utzi ninduenetik. Eta zu?

—Berdin.

Isilik geratu ziren une batez. Harrobiko lur gorrixka su-galdatan zegoen, hauts egina, idorra. Apatx eginda zeuden lurrean. Ondoan, xehatu ahala, «bi» zenbakiko harri nabar piloia, apurka-apurka, gero eta haziago ikusten zen.

2

Lanean hasi eta apur batera izan zen. Nor bere aldetik ari zen izerditan. Airea erabat kutsatzen zuen hauts fina azalean itsatsi eta masa egiten zitzairen lepoaldean, aurpegian. Mutikoak begiak babesteko zituen betaurreko beltz haiek burezur itxura zemaio ten aurpegiari.

—Nolatan pikatzen duzu betaurrekorik gabe? Begibakar gera zintezke...

—Ez dut erostekorik...

Mailuen kolpera, harriak kristalezkoak balira bezala entzuten ziren. Han behean, hesi inguruan, birringailu mekanikoa bere estalpean orroka hasi

⁸⁴ (1909-2003) Gallegos Lara jaio zen urte bereko idazle ekuadortarra. Hau ere, gurea bezala, ezkerreko alderdi bateko militantea eta bere ideientatik kartzelatik pasa behar izan zuena.

berria zen. Mutikoa ohartu zen emakumeak zornezko malko hori bana zituela begi-ertzetan eta jantziaren besaldeaz xukatzen zituela noizbehinka.

3

Hain hurbil zeudenez, solasean jarraitu zuten.

—Ez dugu deus aurreratzen.

—Noizko uste, izango dela zure metroa?

—Etziko.

—Ordaindu, berriz, sucrea eta hogeit hamar semeaiko besterik ez dute ordaintzen!

Egunaren argiak kolore guztietako islak ateratzen zituen dinamitak, pikotxak eta aitzurrak kosk egindako harri bizizko hormetan: harri-txintxar nabarra, harzuria, gorria, urdin nabarra, zerroduna... azala kendutako gihar baten zuntzak. Malba gorriak loratzen ari ziren langilerik ez zebilen bazterretan. Harrobi bihurtu zuten ebaketa erraldoiaren gainaldean haizeak algarroboen adats basatia harrotzen zuen. Emakumea izan zen iradoki zuena:

—Bion pilatxoak metatuko bagenitu, gaur bertan kobratuko genituzke sucrea eta hogeit hamar semeaikoak.

—Elkar ditzagun. Erdi bana, bai?

—Erdi bana.

Inguruan botata eta mutikoak jaso zuen aitzur bat baliatuz bultza zituzten bi piloak, bakar handi batean elkartu arte.

4

—Zein da zure grazia?

—Benito

—Benito zer?

—Ez dakit. Eta zurea?

—Juana Soto

—A!

Beroa itotzerainokoa zen, zerupe urdin hartako aire zabalean. Zenbat kostatzen zen harri-ale bakoitza egitea! Denbora zeraman. Mailuaz jo bete-betea eta harri handiak birrindu eta neurri bertsukoak egiten zituen: «bi» zenbakiko neurriko hartxintxarra, alegia. Gero eskua luzatzen zuten, beste bat hartzeko. Oinarri-harri pila zegoen inguruan.

—Eta eskerrak, harri hau zuria den: gogorragoa da urdina.

—Bada areago oraindak, granitozkoa...

5

Benitok begia jarri zion berriro emakume harri-jotzaileari. Soineko zarpail bat janzen zuen koipez ilundua. Aurrez aurre zuenez, mailuari emateko makurtzen zenean, bular argal eroriak ikusten zizkion eskote artetik. Aurpegiak, zurbila izan arren, edertasun-zantzu batzuk erakusten zituen. Baina begi haiek!

—Zergatik dituzu gaixo begiak?

Juanak besaldea pasa zuen aurpegitik eta bizkor garbitu zituen.

—Harri-hautsagatik. Betaurrekorik ez dudalako...

Birringailuaren zurrungak bete zuen isilunea. Ongi bereizirik nabari zitezkeen, itzelezko arnasestu haren baitan, bai "diesel"aren burrunba, bai eta borrharen kolpe zakarra ere, ahora botatzen zizkieten harrien kontra. Tarteka isildu egiten zen, gehiegizko xehatze baten ondoren, hortzak baldartu egiten zitzaizkiolako eta garbitu egin behar izaten zizkieten. Haize

leunaren firfirak, halakoetan, harrobiraino ekartzen zuen Guayaquilen zurrumurru-hotsa.

6

—Hiria harriztatzera omen doaz: lan ugari izango da hemen, harrobietan; kamioiak etorriko dira.

—Aspalditik ari dira gauza bera esaten.

—Oraingoan egia da: ugazabari esan diote.

—Baina, mutikoa, lan asko izango dela uste duzu? Gehienez ere, erdigunea konponduko dute eta kito. Eta horretarako, apur batekin nahikoa! Eta dena balitz ere: ez zu eta ez ni ez gara aterako irabazten...

—La Proveedorak⁸⁵ jo du. Goazen.

—Bai.

Langileak itzultzen ari ziren mendi-lepoetatik behera: zulatzaileak, barratzaileak, aitzurtzaileak... Harago harri-pikaketan ari ziren beste emakume eta mutikoak ere altxatu ziren. Makina isildu egin zen. Haizea nondik, alde beretik hazi edo eteten zen hiriaren zurrumurrua ere.

7

—Goazen.

—Ez.

—Zergatik ez?

—Hemen ez dute ixten otordu garaian. Ez dut zer janik ... zertarako atera?

⁸⁵ Idazlearen garaian Guayaquilgo industria handiek (La Universal, La Florencia...) markatzen zituzten lan-jardunaren hasiera-amaierak; eta ia-ia egunaren martxa bera ere. Egileak kasu honetan, aipatu gabe, izen 'handi' haien nolabaiteko aierupenezko deitura hau asmatu zuen.

Eguerdiko eguzkiak izpi eta lamadaz lehertzerainoko labe bihurtzen zuen Santa Ana muinoan irekitako zulotzarra. Sarraskijale bat hegan igaro zen gainaldeko algarroboetarantz: sabai erabat urdin hartako beltzune bakarra. Biak izerdi-patsetan eta nekatuta zeuden. Aurpegiak hautsez beteta zituzten. Juanak samur-keinu bat izan zuen mutiko gizajoarekiko.

—Zatoz: erreal bat daukat eta guineoak⁸⁶ jango ditugu.

Atera ziren.

8

Eguerdiko ordu beroen joan-etorri eroa. Besteekin batera itzuli ziren lanera. Makina bere etengabeko zurrungan hasi zen. Gizon-emakumeak inguruan, aztoratuta, txotxongiloak balira bezala. Ezjakinean. Zergatik harat-honat hori? Zer ote, halako jardun behar hura?

Ez zuten batak besteari deus esateko. Goizetan oso bestela izan ohi zen, oraindik zabaltzeke zenean lamada-olatu lo eragile hura. Gauza bakarra zuten buruan: mailuaz jo, etsi gabe, harriak, harriak, harriak...

—Metroa...

—Metroa, arratsaldean afaldu ahal izateko.

Itolarri-sentipen sorgorra darie langile guztiei, gandua lurrari, gizakumeei, gauzei... bezala. Gurdi bat kili-kolo zetorren, kargaz ongi zamatuta muinoko gorabeheretan. Tiraka zen zamariak eginahaletan zituen gihar guztiak. Orgariaren ahots gordina burrunbaka entzuten zen, akuilua astindu eta eztenaz idien bizkarraldea urratzen zuen bakoitzean.

⁸⁶ (*Platanus occidentalis*) Ekuadorren, fruta gisa gordinik jaten den platanuari zein platanondoari herriak ematen dien deitura.

—Arre! Arre mandooo! Arree, putakumiaaa!

Kanpoaldean, urrun eta ia etetear, litxarrero baten ahotsa, oihuka:

—Cocadaa⁸⁷, melcochaa!⁸⁸...

9

—Han duzu metroa, nausi. Ez da larunbata, baina zerbait eman baliezaguke...

—Bai. Nola ez ba? Eta zein ederki elkartzen zineten, lanerako. Etorri bulegora.

Aireak hozkirri-ukituz jotzen zuen jada. Mandoak bazka jaten, asketan. Aurrera bota dieten janeiroari⁸⁹ lurrin-gozoa dario.

Alai atera dira: gorputz osoa minbera dute; eskuetako babak, handituta, sutan. Poltsikoan txilinka ari zaizkie sei errealak.

Plater bat salda, patata-ale batzuk igeri, barren ilunean arroz-hondarra zuela. Taberna gainezka zegoen.

Elkarrekin jan eta atera ziren. Benito txapela buruan jartzen ari zen. Bazuen zer esatekorik egun hartako lagun berriari. Hirira bidean zihoazen ilunabarrean, hautsez betetako bideetan barna. Saladoak⁹⁰ urrezko sua

⁸⁷ Ekuadorko herri-kultura gastronomikoan oso estimatua den goxokia. Osagai nagusia kokoaren mamia da, birrinduta.

⁸⁸ Hego Amerika osoan egiten den gozokia. Gomaren antzeko itxura du. Azukre-kanaberaren panela kontzentratua behin eta berriro astinduz eta luzatuz egiten da nekazaritza-kulturako herrietan. Ekuadorren estimu handia dio nekazari giroko herri xeheak, montubioak, choloak edota indigenak direla.

⁸⁹ (*Eriochloa polystachya*) Jatorri amerikarreko belar mota. Ibai ertzetan eta umeltasun handiko lekuetan ematen da. Ekuadorren abereen bazkatarako erabiltzen da.

⁹⁰ Edo, osorik esanda, '*Estero del Salado*'. Guayaquil inguratuta dago mendebaldetik mangle eta antzeko landare pila dituen itsasadar-sare zingiratsu batez. Itsasgoratan batik bat, egokia da

zirudien. Atzean utzi ahala, arratsalde bare hartako ur geldoa itzaltzen ari zen. Choloen txaboletan sutondoetako printzak ikusten ziren iluntze jaioberrian nabarmentzen. Kanaberazko auzoaren behealdean, bertara iristen zen Esteroaren itsasaldiak buztinezko ohatze bat egin zuen; igelak kantatzen hasi nahian zebiltzan.

10

—Aizu.

—Zer?

Ez zuen aurrera egin. Bat-batean nola-halako aztoramenak egin zion gainez mutikoari. Bere burua, gizon nabaritu zuen eta laguna, emakume. Udako gauaren hozkirritan gorputz epelaren aiduru zen. Emakumearen zantzuak hobetuta nabarmentzen ziren argi-itzal more hartan. Aurpegira begiratzean, begiak garbi eta ahoa gozo ikusi zizkion. Beldur zen nahi zuena eskatzeko. Juanak berriro:

—Zer zenion?

—Ez dut nora joanik lotara...

—Hara! Oraindik mutikoa zara. Etorri nire gelara.

—Ez. Jendea marmarrean hasiko litzateke. Jada handia naiz...

Juana erdi-barreka hasi zen.

—Nekatuta nago! Utzi lelokeriak. Tira. Mutikoa zara oraindik. Zatoz.

Benitori burura etorri zitzaizkion kaiko bere zokoa: kolpeka kaleratu ohi zuten nasa-bazterra; baita noizbehinka babes bila joan ohi zen Quinta

bertan ontziak ibil daitezten. Ur-beso horiek kilometro asko luzatzen dira lurrean barna eta aski labirinto korapilatsua osatzen dute.

Parejako⁹¹ kalezulo iluneko zokoak ere; edota beti kanporatu ohi zuten Las Bombas⁹². Juanak gezurra asmatu zuen mutikoak gonbita onar zezan:

—Arropa-garbiketan ibiltzen den emakume batekin bizi naiz.

—Eta zeuk ere zergatik ez duzu lan hori egiten?

Emakumeak, burua eguzkitatik babestearren lanerako janzten zuen zapia kendu zuen.

—Nire difuntua barraz aritzen zen harrobi honetan. Elkarrekin lan egiten genuen. Ikasita nago.

Eta sartu ziren.

11

Eta hala egin zuten harrezkero. Benitok hamahiru urte zituen; Juanak, hogeita zortzi, lanaren nekeengatik gehiagoren itxura ematen bazuen ere.

Elkarrekin lan egiten zuten eta elkarrekin zeramaten bizitzaren zama.

Inork ez zekien zein zen elkartzera eraman zituen harremana. Auzoko taberna aurretik, elkar lagunduz igarotzen ikustean, Marujak –tabernariak– zera zioen marmarrean:

⁹¹ Gaurko Guayaquilgo hilerriaren inguruetan zegoen auzune edo auzo-multzoa. Herri xeheko kideek, dirurik eta lanik gabekoek edo delinkuentziaren atarietan bizi zen jendeak osatutako ingurua. Izena Parejatarren familiaren jabetzako lursail izatetik datorkio: XX. mendearen hasieran, landa-eremuetatik Guayaquilera bizitzera etorritako jendeak beretzat hartu eta etxeak eraiki zituen ‘inbasio’ko lehen auzoetako bat izan zen.

⁹² Guayaquilgo gune estrategikoetan, han-hemenka banatuta zeuden suhiltzaileen parkeak. Hiria kokatzen den gunearen beroagatik eta, kontuan izanik hiri hau dela Ekuadorko ekonomiaren motorra, deitura honekin ezagutzen ziren ‘*bomba*’ deituriko lekuok berebiziko garrantzia izan dute hiriaren bilakaeran; eta hiriak jasandako sute lazgarrietan erakutsitako jokaera aipagarriagatik, aski izen handiko lantaldeak biltzen zituzten.

—Juana hau baino ustelagorik... ez zuen, bada, mukizu hori baino topatu behar bizitzeko...

Tamarindo⁹³ freskagarria edaten ari zen gidari batek kalera zuzendu zuen ozenki ahotsa, bere kamioi aldera:

—Ez iezadazu jo turuta, ofiziala, bateriarik gabe utziko nauzu-eta! Ez jotzeko, arraioa!

Eta ahotsa jaitsiz:

—Ez uste, Maruja, —esan zion— gizonok zakurrak gaitun; hobeak ditun mutikoak. Eta batez ere, zer arraio!, bata eta bestea goseak zitunan.

⁹³ (*Dialium guianense*) Amerikan oso hedatuta dagoen zuhaitz eta fruitu mota. Zuhaitz mardula da eta fruitua, mami ilunekoa eta mikatza; baina, uretan irakin eta azukreaz nahasiz, tropikoko lurretan oso estimu handia dioten freskagarria egiten da.

GERRA

Henry Barbusserentzat⁹⁴

Umea arnasestuka zetorren.

—Osaba, osaba, begira zein ederki ari garen jolasean!

Apirileko eguzki zuriak eztiro epeltzen zuen haizeaz gozatu nahirik, gizonak, zelaira zabaltzen zen leiho ondoan eserita, haurraren bekoki izerditua xukatu zuen.

—Eta zertan jolastu zara?

—Ba... gerratan jolastu naiz Mauricio eta Georekin.

Umeak gerratan jolasten!

Eta hori, haurretako bati armistizioa baino egun batzuk lehenago aita hil ziotela! eta bestearena hanka bat gutxiagoz etorri zela!

Nolanahi ere, gerratan jolasten ari ziren.

Haientsat jolasa zen. Gerrak zauritutakoak izaki, ez ziren, halere, ohartzen.

—Zori oneko txoriburuak! —pentsatu zuen gizonak, umeari ilea laztantzen zion bitartean.

Gerra! Ondotxo zekien berak zer zen. Bizirik atera zen hartatik, hala esan bazitekeen, frontean hogeitau hilabete egin ondoren. Gasak harrapatu zuen. Gasaren hozkadak birikak jan zizkion. Laster baterako diagnostikatu zioten

⁹⁴ (1873-1935) Idazle, kazetari eta militante komunista frantsesa. Oso aipatua izan zen 1908an haren *L'Enfer* (Infernua) nobela naturalista; 1916an izen handia lortu zuen, *Le Feu* (Sua) nobelari esker Goncourt sariari esker. Lan hori Lehen Mundu Gerran bizitako esperientzietan oinarritzen da eta egileak militarismoari zion gorrotoaren erakusgarri zuzena da. Lan horren ondorengo idatzietan are eta iraultzaileago azaldu zen, harik eta 1923an Frantziako Alderdi Komunistako kide egin eta Batasun Sobietarrean bizitzen jartzeraino.

azkena. Horixe geratzen zitzaion bizikizun. Ezkutatu egin zioten tuberkulosiak jota zegoela. Baina ordaintzen zioten %100ak argi erakusten zion guztia. Hilabete batzuk, urtebete edo, gehienik ere, bi urte zituen..., osasuntsuek baliatzen ikasi ez zuten bizitza hain eder, hain gozo honetan. Temati errepikatzen dugun bezala, oinazez eta doluz baino iruten ez den bizitza honetan.

Gizakia esker gaiztokoa eta oharkabea da. Ez da ederraz jabetzen eta ez daki bizitzearen eguneroko mirariak duen ona dastatzen. Unetik unera berritzen den odolaren miraria. Bata bestearen jarraian, nork bere gozoa ekarriz, etorri datorren urtaroaren miraria.

Gizakiak kexu izaten dira, arrazoirik gabe bada ere, eta egonean egonez bizi dira...

Beste garai batean, aurreko umeez bezala, ez zatekeen ulertzeko gai izango eta, kidekoen antzera, ume eta txoriburu izaten jarraituko zukeen... baldin eta osasunari eutsi balio.

Hurbilduz zetorkion azkenaren berri izan zuenez gero, bakardadean ahogozatzen zituen orduen bilbea josten duten milaka distirak.

Dena da eder. Bizitzea da dohainik behinena. Eta hor non garaiz aurretik kenduko zioten besteek jaramon egiten ez zioten dohaina. Horrelakorik ez pentsatzen saiatzen zen. Unean uneko minutuaren mozkorretan murgildu nahi zuen.

—Azkena ote? Ala azken aurrekoa?

Zertan alferrik galdu bere bizi-hondarrak larritzen eta aieneka? «Laster hilko nauk. Bego. Idatzia nian, ezbairik gabe!».

Noraino zegoen, ordea, idatzita gizakiaren patuan batak bestea hil behar zuela?

Onartu egin zuten. Halabeharrak, hala, ez zuen haien gain ezertan esku hartuko. Milioika izan ziren, hainbat herrialdetan barna, beren burua eskaintzea onartu zutenak. Eta itsukeriari, koldarkeriaz osaturik, «halabehar» deitzen zioten!

Berrito hasita ere, gertaerak, bide beretik joango ziren beste behin. Izan ere, ahulezia deitzen zaio gizon-emakumeon ariman gehien agintzen duen legea onartzeari.

Onik atera zirenek, gudulari ohiak izateaz harro, zabarkeriarako joera eta ohitura berekoiak ekarri zituzten leize-zuloan egindako urte luzeetatik. Gerrarako interesa zutenak, lozorro horri esker, gerraz mintzo ziren berrito. Aurreko talka erabaki zuten harroputzak beste bat pizteko gosez ageri ziren. Eta utzi egiten zitzairen esaten gerra ez zela azkeneraino eraman, garaituei garaipena sentiarazi behar zitzaizela! Eta gure gaixoak begietan jarri zituen eskuak, ikuskizun penagarri bati ihes egin nahiez-edo. Eraman ezinezkoa egiten zitzaion beste sarraski bat irudikatzea. Arima apurtzen zion. Bera, ordea, ez zen berrito joango. Ez zen joango, jota zegoelako.

A zeinen eroak, azken gerra zelakoan, ondoren betiko bakea nagusituko zela uste zutenak! Berriz ere gerraz hitz egiten ari ziren eta diru-eskasiak bakarrik eragozten zien erokeria hari berrito ekitea.

"Heroien" semeok, beraz, gerra noiz etorriko zain, epopeiatan jolasten ziren. Gizonak negarrari eman zion. Negarrez ari zen, ezin zuelako salatu lozorroan zeudenek bizi zuten arriskua; dolu zen alferrik galdu zuen biziagatik. Alferrik jasan eta eraman zituen min izugarriok, hiru egunez bi ohean botata, sukarrak janda, odol-karkaxa zeriola... Alferrik!

Mutikoa, ordea, aspertu egiten zen. Osabari han zela adierazi nahiez, eskutxoa jarri zuen zaurituaren belaunetan.

—Osaba, triste zaude?

Lehen unean, osabak ez zion erantzun. Lotsa pixka bat sortu zitzaion, gailentzen utzi ziolako tristurari. Gero malkoek estaltzen zuten aurpegitik aldendu zituen bere esku meheak...

—Txiki...

Eztul-kolpe bortitz batek astindu zuen gizonaren gorputz ahula.

Aurpegia begiztatu zuen ispiluan, odol-gorriturik eta ubelduta; eta izutu egin zen.

—Lehertu behar diat! —esan zuen ahopean.

Hego-astintze eroa, hondar astinduen antzeko hotsa ateratzen zen saihets arteko kaiola hondatu hartatik.

Mutikoak, beldurrez, atzera egin zuen eta ez zen gehiago mugitu.

Baretu zitzaion, azkenean, eztula. Eraman zuen mukizapia ahora eta odolbilduz zikindu zuen. Burugabekeriazko keinua egin zuen, orduan, beranduegi gaitzetsi bazuen ere. Bat-bateko mugimendua izan zen. Mukizapi gorrixkatua erakutsi zion mutikoari.

—Hauxe da gerra! —esan zion.

—Gerra odola da! —bota zuen haurrak, harrituta.

—Bai.

Malkoak, emeki, masail meheetatik behera zetozkion.

—Negarrez ari zara?

—Negarra eragiten dit zuretzat dibertigarri denak.

—Gerrak?

—Bai.

Eta berriro berotu zen. Gerra —azaldu zion— hanka gabe etorri den Mauricioren aita da, aitarik ez duen Geo txikia da; gerrak du etxekonekoaren

semea itsu egotearen errua; baita sendiak hondamendian uzten dituen milaka eta milioika zorigaitzena ere.

—Orduan... Ez genuke gerratan jolastu behar? —galdetu zuen haurrak, ulertu nahian.

—Hala da.

Eta mutikoak luze jardun zuen hausnarrean. Gizonak arretaz begiratzen zion, buru txiki hartan gertatzen zenaz jabetu nahian. Mutikoak, azkenean, kanporatu zuen:

—Baina nik beste zerbaitetan jolas egin nahiko banu, ez luke inork nirekin jolastu nahiko!

Bihotzaren oihua!

Erantzun nahiko ziokeen zaurituak, baina burua astun zuen: ez zituen hitz egokiak aurkitzen. Mutikoa, beraz, are gehiago jolastuko zen gerratan, besteak, hala ezean —adierazi zion xalotasun osoz—, ez zirelako berarekin jolastuko. Geroago, gerra baletor, mutikoa, jada gizon eginda, hara joango zen, kidekoen gaitzespena ez jasatearren.

—Ai! Eta zer egin?

Zer egin zezakeen berak? Hain zegoen gaixo eta hain da zaila haurren bihotzetan ere esnatzen den piztia-senaren aurka joatea!

Une batez biak isilik geratu ziren.

Krisialdiak nekatu egin zuen gizona. Lur jota zegoen. Bart ezin izan zuen lorik hartu. Orain, loaren premiak petraltzen zuen. Nekeari aurre egiten saiatu zen, baina bera baino indartsuagoa zen.

—Ea bada, txiki, zoaz jolasera; nik lo egingo dut —amaitu zuen.

Haurrak musu eman zion eta joan egin zen.

* * *

Bide bazterrean, haurrak jolasean. Zaurituaren belarrietaraino datoz oihuak eta hotsak. Nahiaren nahiaz oraindik esna eustea lortu du une batzuez. Gurasoen egiteko astuna darabil buruan: gurasoek sumatzen ez duten edota aurrez aurre begiratu nahi ez duten egitekoa. A! errudunak dira...

Zaratak hurreratuz doazkio.

Haurrak alboko zelaian ari dira saltoka. Dagoen tokitik ikus ditzake haien maniobrak. Iloba sumatu du tropel zaratatsu haren erdian.

—Erne! —oihu egin du ahots mehe batek— Kontuz, han daude-eta gaiztoak! Hiru umeez salto egin dute zuloatik. Are eta garrasi handiagoak egiten dituzte. Zaurituak ez ditu jada entzuten. Aulkiaren besoan burua ipinita, lo ari da. Goizeko eguzkiak margo berriz apaintzen dio aurpegi zurbila.

AHOTZARRA

Motorrak zurrunga egin zuen eta, zulo batekin estropezu egin ondoren, ate nagusia zeharkatu zuen autoak. Ia ilun zen. Atea zarataz itxi eta salto batez jaitsi zen autotik.

—Vélez jauna?

Arduradun-lanetan aritzen zen cholo batek erantzun zion:

—Ontxe eituko. Beendatzen ai da.

—Utzi. Banoa

Oraindik laneko burrunba entzuten zen harrobian. Birringailuak lurra dardaraka zerabilen. Pikoxkada ugari entzuten zen metal-soinuzko kolpeak ematen: berrogei peoi ari ziren lanean, muinoaren sabelean irekitako lubakiaren oinetan, gerriz gora biluzik, altxa eta makurtu, izerdiz blai zituzten gorputzak. Bi kamioi hartxintzar-karga hartzen ari ziren.

Arellanoren nahiak bete ahalko ziren. Vélezek, hori bai, aparteko orduak ordaindu beharko zituen. Baina berak itxura ona emango zuen gringoen aurrean. Galtzada harriztatzeko lan-gaia hornitzen zuten kontratisten artean onena zela erakutsiko zien.

—Vélez adiskidea.

—A!, Arellano jauna. Unetxo bat. Banoa.

Afaltzen ari zen familiarekin, etxetxoaren atzealdeko korridorean. Teilaz eta kanaberaz egina zen; ate nagusitik gertu jaso. Arellanok igo nahiko zukeen, Vélezen alabengana hurreratzearen, baina harrobi-jabeak asmoak ezagutu zizkion eta aurrea hartu eta harengana jaitsi zen.

—Zertan lagun zaitzaket, nire lagun zaharra?

Eskua ematen zion une berean, irribarrerik adeitsuena erakutsiz, buruaz agur egin zion goian agertu zen Vélezen alabetako bati. Arratsaldeko haizeak zurrunbiloak sortzen zituen, sudur-ahotan harri-hautsaren ahogozo lakarra utziz.

* * *

Hiriaren hegoaldean, kanalizatze-lanetako estolda nagusian, ponpa hondatu zen eta ur-parrastada izugarri batek lohiz betetzen zuen zulozerra: ura, gorri-horia eta lodia, minututik minutura igotzen ari zen oholezko zoladura artetik eta arriskuan jartzen zuen zulo-sare osoa. Telefono-txirrina jauzika zuen. Zenck sutan jartzen zen idazmahai gaineko telefonoaren jardun etengabea zela-eta. Egun osoan deika ari zitzaizkion. 1. etxartetik, 2.etik, 5.etik, biltegitik, kudeatzailearen bulegotik, kontularitzatik, edo al zekien nondik! Hartu zuen entzungailua.

—Hiltegiko atala? Ongi, bai. Zer diozu?

—...

—Ehun metro? Ordu honetan? Ezinezkoa.

—...

—Eta zer dela-eta utzi dute horrelakorik gertatzen? Ardura langile-zainarena da eta taimquiper⁹⁵-arena.

—...

—Eskatuko diot kontratistari. Txao.

⁹⁵ Jatorrizko hitza mantendu dugu apropos bere jatorrizko idazkeran. Hala ere, argi dago ingelesezko *time keeper*-etik hartua dela. Lanaren antolaketa 'modernoak' eraginda, lantoki aurreratuenetan, lanorduen kontrola eta langileen sartu-irtenak neurtzen zituen pertsonari ematen zitzaion izena dugu ezberrik gabe.

Lan-maisua Arellanoren aurpegi irribarretsuaz eta urrezko hortzaz oroitu zen bat-batean. Kontratista azkarrena, adeitsuena eta eraginkorrena zen, zalantzarik gabe. Eta maitea zuten konpainia osoan. Deabrua bezala sartu ohi zen bazter guztietan. Sarritan, ordainketa-egunetan, peoi cholo eta beltzen artetik igaro ohi zen autoz, Harrison kudeatzaile ingelesa ondoan zuela. Zenck-ek adeitasunaren eta komenentziaren alde egin zuen. Telefono-deia egin eta zera eskatu zion:

—Ehun metro kubiko harri gaueko hamabiak bitartean hiltegiko estolda nagusira. Hirurogei, oinarria; hogeita hamar, bat eta bi; eta hamar, tximistarria.

Arellanok erantzun zion:

—Berehala. Ehuneko hogeita hamarren errekarua. Eta... badut neska haietaz zer kontaturik; elkartuko al gara bihar, hitz egiteko?

—Ongi; baina orain ez huts egin.

* * *

Autoa triki-trakaka zihoan, gure gizona harat-honat astinduz. Kaleak lokatza besterik ez ziren, hartxintzarrez doi-doi estaliak kamioiak pasa zitezen. Ezinbestekoa zen aspaldidanik zolatzea. Eta orain baino ez ziren hasi. Quiton, baina, —zioen berekiko Arellanok— noiztik zeukaten! Ez zen, ordea,

mendialdekoengatik.⁹⁶ Kostaldekoak⁹⁷ ziren errudunak, dena utzi egiten zutelako eramaten; itsasadarra baino ez zitzaien falta eramatea!

Hiriaren erdigunean –zortzi kale bider zortzi– oraindik irauten zuen kolonia-
aroko adokin-zolak. Buztinezko lur lau eta bigun haietan oso zaila zen
ubideak eta zoladura egitea, bi metro zulatu orduko ura azaltzen baitzen.
Baina Arellano gustura bizi zen batera eta bestera, zarata eta jendetza
artean, hiriaren barren lohitsu, berdexka eta labaina erakusten zuten
erretenez jositako kaleetan barrena. Beheko hondoa aritzen ziren leher
egin arte, egunsentitik gaueraino, langile-kuadrillak. Kontratastaren autoa
igarotzean, gorantz egiten zuten ziprirtinez betetako aurpegi lokaztuek,
palakada bat eta bestearen artean:

—Hoi duk oilarra, hoi!

—Horrek bai, neoziyuak! Oingontan aberastuko uk.

⁹⁶ Ekuador iparretik hegora zeharkatzen duen Andeetako lurretan, lur garaietan, bizi dena. Ekuador, geografia aldetik eta meridioen arabera begiratuta, hiru eskualde nagusitan banatzen da: *Kostaldea*, *Mendialdea* eta *Ekialdea*, bakoitza oso bereak diren ezaugarrien jabe. Banaketa, esan liteke, kulturala ere badela, biztanleak, geografiako, klimako, demografiako... ezaugarriek baldintzatuta, oso izaera berezikoak baitira bakoitzean. *Mendialdea* Andeetako lurraldea da; 2.000 m-tik gorako altueran kokatutako herriek osatzen dute. Eskualde honetan dago Quito ere (2.200.000 biztanle), nazioko hiriburua. Areago, banaketak isla zuzena du administrazioan ere. Hezkuntzan eta lanean, adibidez, oso egutegi desberdinak dituzte batean eta bestean, baldin eta '*régimen de Costa*' edota '*régimen de Sierra*' jarraitzen den. *Mendialdean* eguraldi epela dute; inoiz, lurren garaierari lotuta, baita hotza ere. Herrialde indigenetako gizon-emakumeek presentzia nabarmena dute (%45); horregatik edo klimak eraginda, beste eskualdeetakoek baino izaera berekoi edo serioagoa dute. Banaketa horrek baditu eragin politikoak ere, horretatik sortzen baitira idazleak oso modu grafikoan islatzen dituen herrialde batzuen eta besteen arteko lehia eta sestrak.

⁹⁷ Ekuadorren mendebaldean, Itsaso Barera ematen duen *Kostaldean* –hots, Itsaso Barearen isurialdean kokatutako probintzietan– bizi den pertsona. Garaiera baxuan kokatutako lurraldea da, oso laua. Horrek eta ekinokzio-lerro parean kokatuta egoteak klima berezia sorrarazten du: oso bero eta umela neguan eta bero, lehor eta haizetsua udan. Guayaquil da *Kostaldeko* hiri nagusia (3.000.000 biztanle); bera da Ekuadorko ekonomiaren motorra ere eta beti eskatu izan du maila horren araberrako aitorten eta pisua nazioko gauzetan. Biztanleak oso biziak dira, ekimen handikoak eta ikusmiratzaileak.

—Gringoen kuttuna,

—Harrison-ekin eate ik.

Ez zituen entzuten txutxu-mutxuak. Albait ondoen eserita joan ohi zen, autoaren astinduei aurre egiteko. Apur bat berandu izan arren harrobira iristean, nagusiarekin ari zen solasean etxetxoaren atarian. Irribarre egiten zion, urrezko hortz tentagarria erakutsiz. Bizkarrekoak ere ematen zizkion. Besotik heldu eta alde batera eraman zuen, isilpeko handiren bat esan nahiko balio bezala, ahots konbentzigarrienaz mintzo zitzaion bitartean:

—Zuk ahal duzu, nire Vélez maitea. Industri gizon gaztea zara, eraginkorra; lantalde bikaina duzu, langile ezin hobekak eta, batez ere, Karmengo muinoan den harrobirik onena. Horregatik etorri naiz zurera eta ez, Rosalesengana.

Ezker besoa luzatu zuen jakaren besoari tiratzen zion bitartean, agerian uzteko eskumutur iletsua lotzen zion urrezko esku-erlojua.

—Seiak bost gutxi. Erabakia hartu behar duzu. Oraintxe, jendea altxa eta joan baino lehen. Sei ordu dituzu.

—Baina, kontura zaitetz: ez dut stock-ik harrobian, eskatzen didazunerako. Gutxienez eztanda pare bat egin beharko genuke.

—Ba egin. Zulorik bai eginda?

—Bai, baina euria dator eta kargatu gabe daude.

—Horregatik ba, euria egin aurretik.

Solaskidearen aldera egin zuen, begi ia magnetikoz begiratzeko:

—Badakizu; ehuneko bost, metro bakoitzeko.

Vélezen alaba zaharrena Arellanori begira-begira zegokion korridoreko barandatik. Gustuko zuen. Egia, bizimodu onak gehitxo gizendu zuela eta oso estua zuela brillantinaz leundutako ile kizkurrek mugatzen zuten bekokia, nahiz eta, pintzaz depilatuz, soilguneak zabaltzen saiatu. Egia, ezkondua zela

gizona... Neskaren 'zaharra', berriz, oso jeloskorra. Oso noizbehinka baino ez zien uzten alabei erdialdera joaten. Auzoa leku bazterrean zegoen. Choloak baino ez zituzten ikusten. Eta zer esan, banantzen direla dioten guztiez, berriz ezkontzeko? Neskak ikusminez jarraitzen zion gizonari, egiten zituen keinu adierazkorretan.

Hartu zuen jada erabakia:

—Ahaleginduko gara.

—Hori ez da zuri dagokizun hitza, nire Vélez estimatua. Gu hitzekoak gara. Ahalegindu bakarrik ez, egin egingo dugu. Nahi duzu?

Vélez zuri-gorritzata zen. Are gorriago jarri zen, zimurtu zuen bibotetxoa eta jaso zituen zerura begiak. Zerua jarri nahi zuen lekuko... edo eguratsari so egin. Hodei beltzak altxatzen ziren lubakiaren gainetik. Argitasun horia jausten zen hautsez betetako harrobiaren zirkuluerdira; harri bizi berotan irekitako zoru eta paretek labe-lamada botatzen zuten. Gertuko Saladoaren eta, etorri, bazetorren zaparradaren usaina arnas zitekeen. Barralarien, aitzurlarien, harri-jotzaileen eta zamaketarien besoak gelditzen ari ziren; txoferrak, turuta joka; eta azken kamioiak irteerara bidean. Vélezek agindua eman zuen:

—Ez dadila inor atera. Aparteko orduak ditugu. Deitu Negro Llorel-i.

—Gooz kontra re, harria bota ber dik! —iragarri zuen honek, zulaketa amaitu zuela adierazi zuenean.

Hiru eguneko lan-jarduna eman zuen, hogeit hamar metrora zegoen pendiza estu hartan. Apurtu arte jardun zuen, harrobian esaten zuten bezala.

Goizeko zazpitan La Proveedorak urrunean jo orduko, han zegoen goiko bere lekuan. Mazotzarrak kanpai soinuaz jotzen zuen barra zapalaren buruan.

Mazo elektrikoa balute, Benjamin Rosalesen harrobian bezala! Eulitzar erraldoi baten antzeko burrunba egiten zuen, hortzen karraska eragiteraino.

—Hori sasoiā, bitan jo eta mendiyan erdiraino sartze uk.

—Ta egiya ote uk diamantezko muturra ula?

—Al tzekit pa! Bino oso goorra uk... harri urdinerako; ta biunerako re.

Negro Llorelek, ordea, gauzak ongi begiratuta, ez zuen bere laneko harrobian zulagailu elektrikorik nahi, ez zuten-eta haren premiarik izango. Soldata jaitsiko zioten agian... Hori, botatzen ez bazuten. Ezingo zituen erakutsi mendiko harkaitzetan zizelkatuak ziruditen bere saiheits-sorbaldak. Ez zuen mazoā jotzerik izango. Ez zuen inork esango inoiz alboan entzundako hura:

—Gorputz puska, Negro horrek! Boxeatzeko hukek aproposa!

Goizean goiz, fresko egiten zuen; geroago, eguna piztu egiten zen eta egarriaren eztenkadak sumatzen ziren. Hainbeste izerditzeak emango zion halako egarria. Ertzera atera eta, bi eskuez bozgorailua eginez, deiadar egiten zuen:

—Ura! Ura, mutikua!

Izurde-kontserbatako bi potokada edaten zituen zurrutaka eta lanean jarraitzen zuen. Bera zen tiro-aldiez zekiena harrobi hartan: zuloen sakonera eta norabidea kalkulatzeko zuen, harri-zainen lodiera, kartutxo-kopurua... atera nahi zenari loturik beti; horrez gain, mazoaz ematen zion zulagailuari, azken orduan dinamita aztertzen zuen, kableen lotuneak jartzen zituen eta bateriaren botoia sakatzen zuen.

Azken hiru egunetan barreno-zulaketan baizik ez zuen jardun. Emazteak, neska zuri, zurbil eta ahul hark, ia ez zion txintik ateratzen. Urte eta erdi eskaseko semetxoa laztandu baino ez zuen egiten, lur lohitsuā, txarrantxarrik gabe, itsatsitako ohol zikinetan katuka zebilen bitartean.

Korrika afaldu eta ahituta erortzen zen lozorroan. Emaztea kexuz aritzen zitzaion:

—Akatzen ai za. Harria putzuan bino arino eortzen za; hortaino zaude nekauta. Hitzein e al da ba zukin!

—Sekulako tiroka eman ber dinau: hemezortzi oinka bai, gutxinin. Earra zulua, haitz urdin garbiyan!

Goizean, tiroa jo behar zutenean, Vélez penatuta joan zitzaion:

—Nola diren gauzak, Negro! Ezingo diagu gaur tiroa jo! Ez genikek zer eginik harriarekin. Eskariak urritzen ari dituk. Negozioa gaizki ziak. Garai txarretan gaudek!

Egun osoan harat-honaka jardun zuen, ezinegonean, barrarekin. Negro Llorel asko poztu zen, horregatik, ugazabak tiroa jotzeko deitu zionean arratsalde hartarako bertarako.

* * *

Harrobiaren itxura eraldatu egin zen une batetik bestera. Vélezen etxe ondoan, ate nagusitik gertu, biltzen hasi ziren kuadrillak.

—Dinamita jartzen ari-tuk.

—Ez duk sumatzen birbano-oliyun usaia?

—Latza, ezta? Zarta earrak eman bea izkitek!

—Zenbat?

—Hiru. Hiltegirako uk. Ehun metro inguru ber omen dizkitek

Kamioiak joanak ziren jada; baina berriro itzuli ziren. Aurreko joan-etorrietatik itzultitako beste batzuk ere kalean zeuden itxaroten, itxituratik at. Itxarotearen isiltasun hertsia ebakitzen zuen airea. Bakandurik, mazo baten

kolpea zen barrenetik –lehen ilunak estaltzen zuen lubakitik– zetorren soinu bakarra, zulagailua jotzean.

Harresia ez zen zuzena, bidexka malkartsuak sortzen zituen edo zeharkako tontortxoetan jaisten zen edo arrakalatako zerrendetan edo irtenguneetan. Beheko laztabin-zuloa prestatzen amaitu eta zulo handienera igo ziren. Negro Llorel izerdi patsetan zen.

—Goazen azkar, zaparrak harrapau bino len.

Prestatu zuten arin-arinka bigarren laztabina ere: zuloa harri urdinezko harri-zainetan sartzen zen eta mendiaren muinera zihoan. Batek harriari kosk egiten zion eta besteak harri arinaz eta legarraz estaltzen zuen. Beltzaren azazkalek kirrinka egiten zuten hautsetan. Eztarrian listua loditzen ari zitzaion, leherkariaren olio-kutsuaz.

—Mendia konkortu ber dik honek!

—Hesitik kanpo re bota ber dik harria.

Pendizaren ertzak ia ez zien lekurik uzten. Zaparrada iragartzen zuen haize zakarrak gorputzari itsasten zien atorra. Hogei metro beherago dena txiki ikusten zen: nagusiaren etxea, jendea atarian, birringailua itzalita, hesia, kamioi hutsak, kale zuria argi-itzaletan eta, are harago, lautada lohitsu choloen etxetxoz josia eta, azken argi izpitan, Estero Saladoko barra okerra, zilar findua bezain dizdizari.

* * *

Arellano ernegatzen ari zen. Dagoeneko baziren zazpiak. Zer ordutan hasiko ziren garraiatzen oraindik ez bazegoen materialik? Harria mailaz maila botatzen zuen birringailua isilik zegoen, ehotzekorik gabe. Jendea gazta-

ogiak eta enpanadak jaten ari zen, otarretako saltzaileei fidantzan erosita.

Gaua eta euria gainean ziren. Vélezek oihuka deitu zion:

—Zer gertatzen da, Negro?

Keinu egiten ikusi zuten eskuaz eta atorraren, begien eta hortzen zuria nabaritu zuten behetik.

—Beala.

Makurtu zen beste behin, bateriako hariak maneiatzeko ziurrenik. Arellano ordua ikusi nahirik zebilen bere erlojuko esfera txikian. Denbora emango ziola espero zuen, lehen eztrandak jo eta emakume dotoreak “Olmedo”ko⁹⁸ emanaldi berezitik irteten ikustera joateko.

Negro Llorel laztabin-zulotik aldentzen ari zen. Bi besoak astindu zituen goitik, jendeari aldentzeko aginduz. Vélezek pasa zuen mezua:

—Alde, alde! Bazterrera denok! Edo hobe, hesiaren atzera!

Peoi-taldea ate nagusitik kanpo jarri zen. Auzoko jendea leherketa ikustera zetorren. Mutiko batek oihu egin zuen:

—Kontu... buruak eta saihetsaldeak hautsi gabe!

Lehen tantak ugaltzen ari ziren hauts artean. Lur bustiaren usaina zabaldu zen beste guztiaren gainetik. Ilunagatik ia ikusi ezin bazen ere, Vélez eta Arellanok laztabin-zuloan zituzten jarrita begiak. Beltzaren eta mendialdeko laguntzailearen atorrak nabarmentzen ziren zulotik aldentzen eta erlaitzean zehar ibiltzen.

⁹⁸ *‘El Edén’*ekin batera, XX. mende-hasierako areto eta antzoki ospetsu eta puntakoena Guayaquilen. Horren erakusgarri, bertan Anna Pavlova dantzaria ere aritu zela. Izena José Joaquín Olmedo poeta eta independentziaren aldeko borrokalari patriota guayaquildarragandik zetorkion.

Itxaroten den guztietan bezala, bihotz-taupadak apur bat azkartuta zituzten aparteko ezer ez bazen ere. Berandutzen ari zela, besterik ez. Eta begiak zorroztu zituzten, beltzak noiz altxa eta jaitsiko besoa, argindarrari bide emateko. Tantak euri-jasa itxi bihurtu ziren. Isiltasunaren erdian, jendearen marmarioa gero eta ozenagoa zen. Berehalakoan tiro egin ezean, urak hartuko zuen dena eta ez zen leherketarik izango.

—Ze ote?

—Etzekiat. Trabau ingo huen. Hara, hor zihoaztik berriz e zulo aldea.

Erlaitza zeharkatu eta zulaketa egin zutela zekiten gunera iristen ikusi zituzten. Mantso-mantso zihoazen. Arellanori bi panpina iruditzen zitzaizkion. Iritsi zirela ikusi zuten eta beltza belauniko jartzen eta aurpegia ia harritan sartzen.

Tximistaren aihozkada batek ebaki zuen ilunpea. Eztandak Vélezi eta Arellanori saihetsa ito eta burua leherrarazi zizkien. Mendia zartatu egin zen harri eta hauts arteko leherketa ikaragarri hartan.

—Jainko mattia!

Oihartzunak behin eta berriz errepikatu zuen ondoko mendi-hegaletan halako danbateko sakona. Harri txikienek etxearen teilatua, hesia, kalea metrailatzen entzun zen. Jendartean garrasiak lehertu ziren. Lasterka, harrobira sartu ziren denak.

—Hilko hituan!

—Jasaus!

—Korri!

—Mediku bat! Andak!

—Goazen ikustea!

Arellanok indarge esan zuen:

—Medikuagana noa

Gaueko ilunak inguratzen zituen. Laguna gelditu egin zen.

—Bai, zoaz. Zerbait trabatu egingo zitzaien eta, haria mugitzean, indarra pasa... Hau zoritxarra!

—Beldurgarria!

Autoan sartu zen. Ez zituen gorpuzkiak ikusi nahi. Beso- eta hanka-ondoak ebakita izango zituzten, kiskalita, odoleztatuta. Zorabiatuta, azeleragailua zapaldu zuen. Euria fresko eta gozo uzten ari zen gaua. Autoaren aurrealdeko garbigailu automatikoa abiarazi zuen, euri-erauntsiagatik malkoz betea ordurako. Malkoak! Malkoak! Kanabera-hesi baten artetik, autoaren ibilian, orikai-belarraren usaina atera zitzaion bidera. Murmurika esan zuen:

—Lorategiren bat. Ez, ez da gure errua izan.

1937

“ETXE BAT ERORI DA”

Kamioiak, mamutzarrak ufaka bezala, artean eraikinik ez zuen kale zabaleko lokatzetan sartu ziren; han altxatzen zen, bakarti, lantegia, orube eta txabolen artean. Makinen gurpil leunak jirabiraka zebiltzan gurdiek irekitako zirrituen hobi lohitsueta. Mosaikozko atarian utzi zituzten aduanatik atera berri zituzten pinuzko kutxa handiak.

—Zaldi gehiagoko motor berriak?

—Sono lo diesel de maior potenciale, sí...

—Zenbat?

—Due. Baina apurarsi, mijito.

Lantokiko nagusiak, tripaundi ilehori bat, izerdia xukatu zuen. Zamaketariak bultzaka ari ziren. Batera heltzen zioten lanari, txindurrien talde-jarreraz.

—Erne, ez daila atea arrabola...

—Eutsi handik, eeeup...

—lyok palanka atzetik.

Ohol trinkoz egindako ate ilunek ahoa ireki zuten. Barrutik –transmisio-uhalen adatek lotzen zuten makinen eta fideoak oratzeko mahaien eta kakao-biltegien arteko nahas-mahas berezi hartatik– bizi-usainaren kutsua zetorren: olio, gaileta eta txokolate usaina. Lehorgailu erraldoia jiraka zebilen, apalak gainez eginda. Haientzat atondutako leku berrietan utzi zituzten, azkenik, kutxatzarrak.

Kale ertzean, txabolak ez zuen ezer sumatu.

* * *

Rugel zaharrak agure samurtasunez zimurtzen zuen bere cholo-aurpegia, txabolaz mintzo zenean.

—Zarra! Ne zar txikiya...

Ahurra zurbil eta atzea beltz, esku dardartia gorputzean jarrita zeukan: une batetik bestera hauts bihurtuko zela zirudien kanabera nabar errezko gorputzean. Sabaia estaltzen zuten auskalo noizko bijao-lasto higatuetan irristatzen ziren eguzki-izpiak laztantzen zituen.

Esana zion italiarrari:

—Ne zartxoa, gringo jauna, ne txabolatxoa! Aspaldi bino lenotik bizi naiz, geo, hemen: hor hil tzen ne emazte zena re! Eunen batian bota ingo iate kutxatzar hoiek, beorren makina berri hoiek...

—Eta zer egingo diogu bada? Per sentimentalima no si pierdono negoci, signor Rugeli. Ordainduko indemnizacioni, erosiko sua txabola...

Rugel saiatu zen azaltzen axola zitzaiona ez zela txabolaren diru-balioa: oroitzapenak zirela... Lantokiaren kudeatzailea ernegatzen ari zen:

—Badakizu lo que possiamo facere, Rugeli, ordainduko...

Saiatu zen tarte batez oraindik, baina ezin izan zuen gehiago; iraganeko egunak gogoratu zituen; haserretu zen:

—Hoa pikuta, bachiche⁹⁹ kupigabia. Lapurra... Bertako semia izorrau besteik ez die iten gringo aluok!

Gringoak, orduan, zaharra jo zuen.

—Nei ez, geo, eskuik altxa, gringo!¹⁰⁰

⁹⁹ Ameriketako zenbait herritan, italiarrak deitzeko erabiltzen den gaitzizena.

¹⁰⁰ Latinoamerika osoan, hertsiki, Estatu Batuetako gizon edo emakumea aipatzeko erabiltzen da. Horiekin parekatuz, alabaina, azal zuri edo/eta ile horiko pertsonak adierazteko ere

Banandu zituzten. Baina Rugel zaharra Cuenca kalera eramán zuten guardiek: polizia-etxera.

* * *

Pintura berri usainen artean, argi zabalera atera zuten kutxatzarretik diesel-makinen altzairuzko egitura. Zilindroak dizdizari agertu ziren; behealdeko estalkia beltz zabaltzen zen. Igeltseroak hormigoizko harri-oheak prestatzen ari zitzaizkien; mekanikariek azken ukituak ematen zizkieten; langile adituek tresna espezializatueta lotzen zituzten.

Eguerdi batez, mamutzar ufakari haiek –kamioiek– berriz ere dardaratan jarri zuten auzo bakartia. Petrolio ontziz zamatuta zetozen orain; orbanetz betetako peoiek irristarazi zituzten lantegiko mosaiko gorri gainera.

Kale ertzean, txabolak ez zuen deus sumatu.

* * *

Dardara gogor bat hedatu zen hormigoira. Txinpartak petrolio leherrarazi zuen zilindroetan. Enboloak lasterka hasi ziren; ekin zioten mugitzeari kojineteei; jo zuten beren kantua balbulei; egin zuten oi-hu transmisioei; uhal koipeztatuak ere garrasika hasi ziren. Haize bafadak begira zeudenen aurpegietan jo zuen. Oinpeko lurra ere, astindu ikaragarriak eraginda, dardarka hasi zen.

Lur azalean jarrai zitekeen astindu haren olatuak hedatzean egindako bidea. Arraildurak eragin zituen mosaikoetan, kanporatu zen atarira, lantokiko

erabiltzen da. Gehienetan, mesprezu-kutsua du. Dirudienez, 'green go' "(begi) berdeak, etxera" oihutik eratorria litzateke.

eraikinaren apal trinkoei heldu zien. Balantzan jardun zuen mugitu nahiez, temati. Ezin izan zuen eta aurrera egin zuen bidean. Zoladurarik gabeko buztinezko kalean, hartxintxarrak banandu zituen; mugitu, galtzada-harriak; zartatu, buztinezko zirrituetako zokorrak.

Diesel-makinen itzulinguruan zebilen korrika. Trabesei azaletik lotutako tranbiaren burdinbideetara iritsi zen eta airean atera zituen. Jo zuen beste atari bat: lurrezkoa oraingoan eta nola edo hala lotutako guacayezkoa, lurrean erdi finkatutako ohol zaharrez egina, ziririk gabeko habe ustelez eutsia. Rugelen txabolaren oinarriak. Astindua barrez ari zela zirudien.

Kale ertzean sortu zen zaratak kanpora atera zituen proba –diesel berrien proba– miresten ari ziren guztiak. Txabolatxoa egon zen tokian hauts-hodei bat besterik ez zen ageri eta, sakabanatzean, pila bat ohol zahar, kanabera apurtu eta lasto astindu utzi zuen begi-bistan.

—Etxe bat erori da.

—Rugel zaharraren txabolatxoa zen.

KAKA-PATARRA

1

Jada ate aldera abiatu zenean, bitxia egin zitzaion Miguel Saavedrari edan gabe zambuluka hastea. Are harrigarriagoa oraindik, bere zapatari-mahaira lotzen zuen oilarra urdin kolorekoa ikustea. Mozkortuta zegoenik ere ez igartzeraino mozkortu ote zen?

—Azucena! —deitu zion emazteari.

Zapatari-mutilak erantzun zion:

—Señora Azucena eosketak itea atea da.

Betazalak igurtzi eta sakon arnastu zituen lantokiko kutsu eta itzal urdinak. Oilar-lumen margo-janzkera bitxi hark, ordea, ez zituen urdindu ez mokoia, ez gandorra, ezta hankak ere. Baina, halako batean, begiak hormara jaso zituenean, Miguel biziki aztoratu zen: argazkiaren gibel grisaren gainean ageri zen Stalin-i ere urdin bihurtu zitzaizkion azken filmetan hain zuri ikusten zitzaizkion ilaje-biboteak.

Langileagana itzuli zen:

—Eta Juan Illich ere amarekin joan da?

—Bai, nausi.

Behatzak bekokitik pasa zituen Miguelek: halako beldurra sartu zitzaion bat-batean. Gehiegizkoa zen. Langileak berak ere, Anselmo ile kizkurrak, gaitzizenez Sapo de la Grecia¹⁰¹ deitzen zionak, urdin petoak zituen ile kizkur

¹⁰¹ Gaztelaniako '*sabio*' hitzaren erroa baliatuz, herriak asko erabiltzen duen hitza eta asmatutako adiera da '*sapo*' hau: jakituna izan ez eta bere 'jakitateak' iruzurrerako edota besteen bizkar bizitzeko nahiz gaineratik jartzeko erabiltzen dituen pertsona maltzur eta

beltzak. Eta horixe gertatzen zen bere azazkal nabarrei edota eskuetako eztenari zegokienez ere.

—Ea, Sapo de la Grecia, hator eta utz iezadak begian putz egiten. Esadak, benetan, nire hatsak pattar usaina duen. Trukean, egia esaten badiak, agintzen diat ez naizela berotuko.

—Nik usainduko iot, nausi, bino ez izan ni jotzeko asmoik: hala ez ba, ez paitiot esango.

—Alajainkoa ez hautela joko. Beste arrazoi batengatik duk...

Jaiki zen Sapo de la Grecia eta hurreratu zitzaion kontu handiz ugazabari, sudurra luze eginda.

—Miraria! —jakinarazi zion— Tipula- eta hagin zulatu-hatsa besteik ez du botatzen. Zurrutan ostiaik ez do.

Miguelen belarrondoko bizarrak izerdi hotzez bustita zeuden. Goragale-aldi batek bihurritu zion urdaila. Abiatu zen ate ondora eta besoak gurutzatu zituen, kale aldera jarrita. Baina hantxe itzuli zitzaion mundua erabat hankaz gora: bizikletaria, eta otarrea balantzaka igaro zen sukaldaria, eta zibotan ari ziren mutikoak, eta aurreko etxeko goialdean ari zen etxekoneko neskaren piano-notak... denak ile urdinez zihoazen, urdinak ziren.

—Arranopola! Zer izan liteke hau? Zer ordutan etorriko da Azucena?

Itzuli zen lantokira eta, aulkian eroriz, eseri egin zen. Estali zituen begiak esku biez. Sapo de la Greciak nabar ikusi zuen nagusiaren azal iluna: lehenago, antxume-larrua bezain lehorra eta orain, ardi-larrua baino ahulagoa. Kezkatuta egin zion galdera:

iruzurgilea adierazteko erabiltzen da; latino amerikarrek '*viveza criolla*' esamoldeaz adierazten dutena, alegia. Horretatik, idazleak egiten duen hitz-jokoa.

—Ze gertatzen zaio, nausi? Tripako minez do? Basoka bat ur ekartzia nahi? Altxa zen zapatari-mutila eta nagusiaren sorbaldan jarri zuen bere esku urdina. Nagusia erotu egin zen; ez zegoen zalantzarik. Ezingo zuen, nola bada, galde-erantzunetan jardun. Sapo de la Greciak ihes egingo zuen. Bere hartan utziko zuen, hain urdin omen zeuden ezten, tenaza, oilar, argazki eta kaleen artean!

—Ez hadi joan, Sapo, ez hadi joan! Ez, ez; ez diat urik nahi. Hobe; har ezak ayora¹⁰² bat eta erosi txurrut bat puro¹⁰³.

2

Lasaitu; hori zen egin beharrekoa. Nola erotuko zen bada hala, bat-batean! Nerbioak izango ziren. Edo bezperako afariak kalte egin ziola. Eroek barrabaskeriak bota ohi dituzte zentzurik gabe. Berak, aldiz, ez al zizkion, bada, hitz zuhurrez eman aginduak Sapo de la Greciari? Une hartan ohartu zen Miguel txanpona eta ahotsa bera ere urdinak zituela.

Zorabio makur haren mende zegoen burutik oinetara. Aulki ertzean eseri zen. Begiak itxita jarraitzen zuen, baina betazalak ere soldatzerakoan bezain urdin zekusan.

—Azucena! Azucena! Zatoz laster! Gaixo nago, pozoituta, edo nik al dakit! Kaka zarra! Non sartu dira denak? Eta hik, Sapo de la Grecia, zer egin duk sucreekin? Non duk agindu niana?

¹⁰² Isidro Ayoraren presidentetza-garaian (1929-1931) Ekuadorren atera zen zilarrezko txanpona. Sucre 1en balioa zuen, baina ordura arteko txanponek baino zilar-kalitate txikiagokoa zen. Deitura hau eman dio herriak txanponari berari ere.

¹⁰³ Ekuadorko nekazarien artean, azukre-kanaberaren zuku hartzitua baliatuz egiten den pattarra.

Ikusi egin behar zuen, ezinbestean; eta begiratu zuen. Barreneko atea baino harago, gela ziztrinean, arropa-kutxari, mahaiari eta liburuei printza urdinxkak zerizkien.

Alboan, argi fluoreszenteak argituko balu bezala ageri zitzaizkion oin-izerditan higatu eta larru-kiratsez kutsatutako konpontzaile zantarraren lantegiko argi-itzalak. Margoa ere joanda zeukan apal bakarrak luxuzko erakusleioa baino areago distiratzen zuen: zola-erdietako zapatak berak, beti bakanak, eder ikusten ziren!

—Maisu, hemen tzu txurruta. Bino kontu, kalte handiyoik ez iteko.

Ez zion galdetu Sapo de la Greciari berak ere argiztapen miragarri hura sumatzen zuen. Nahi ez bazuen ere, aitortu beharrean zen apur bat gaizki zegoela. Hitzik esateke hartu zuen edalontzi iluna. Keinurik egin gabe edan zuen itsaso zabal urdinaren zurrutada. Miguelek ez zuen itsasoa ezagutzen, zinetik ez bazen. Nola ezagutuko zuen, izan ere, lohi zuriz janzten zen itsasadarraren ertzetan kokatutako kai bateko zapata-konpontzaileak?

—A! A! —klask egin zuen mihiaz.

Suspertuta altxa zen. Ziurtasuna berreskuratzen ari zen. Ez zuen jada izerdi hotza botatzen. Ez zegoen erotuta. Erogoa zen Anselmori Sapo de la Grecia ezizena jarri zion jendea. Zer zuen bere mutilak *sapo*-tik, edo jakitunetik nahiz aditutik?

—Ta? On in dio txurrutak, nausi?

Kaka-pattarraren sua olatu-kolpeen antzo igotzen eta jaisten zitzaion. Distira urdinak dantzan ari zitzaizkion itsasoaren erauntsi edo erasoak bezala, zutik, sabaitik lurrera.

—Hobetzen ai da, nausi?

3

Sapo de la Greciak ere, ziur, urdindu egin zion ahotsa, iseka egiteko. Zer zela-eta erotu behar zuen? Egia, alderdikideek ohartarazi ziotela, militantzia hiru hilabetez eten ziotenean. Mozkorren ondoriozko zigorra izan zen. Miguelek helegitea jarri zuen taldeak hartutako erabakiaren aurka. Emandako arrazoiak arrazoi, Eskualde-Komiteak berretsi egin zuen zigorra. Epaia are gorrotagarriagoa egin zitzaion —ondo gogoan zuen—, unibertsitateko ikasle bat bidali ziotelako berri ematera.

—Bai, kamarada Saavedra, zuzendu beharrean zara. Zure grina txar horrekin alderdia kaltetu eta izen ona kentzen diozu. Hiru hilabete oso tarte laburra da: itzuliko zara gure borrokara...

Drillezko jaka garbia zeraman kamarada ikasleak, ukondo-ukabil aldeetan adabatua. Erakusten zuen irribarre zabalak osoan mugiarazten zion aurpegi-azal iluna, bizarra egiten zuen kokotsetik hasi eta kopeta zabalera. Beti estimu handia erakutsi zioten Migueli. Orain, horri ere amorruta zion:

—Zuek, intelektualok, elizara bezala zatozte alderdira... Arauak, diziplinak eta lelokeriak jartzera! Egunen batean bota egin beharko zaituztegu!

—Zu ez zara langilea, kamarada, artisaua baizik.

Gero adeitasunez heldu zion bizkarretik eta erantsi zion:

—Ez ezazu edan gehiago. Ez zaitetz alderditik aldendu: zelulatik besterik ez bada ere, hel iezaiozu lan sindikalari. Zigorra, gainera, ez da alderdiaren onerako bakarrik, Miguel, baita zure mesedetan ere. Zurrutean jarraitzen baduzu, gaixotu egingo zara. Eta seme-alabak epilepsiak jota edo memelo jaioko zaizkizu. Zu zerori ere erotu egingo zara...

4

Hamabost egunez utzi zion edateari. Baina eraman ezinezko tristuran erori zen. Loak hartzen zuen sindikatuan. Harrituta utzi zituen denak bere gogozagatik. Lehenago, berriz, bizkor eta berritsu, batzarrak astintzen zituen bere alkohol-arnasaz. Orain aspertu egiten zen berriketaldi eta irakurraldietan.

Azkenean kaka-pattar hartara itzuli zen, ongi zekien arren, esan ohi zuenez, alkohola dela etsipenean eroritako herri gosetua gehien pozoiz dezakeen gaitza. Miguelek amesgaiztoen olatu itsuen artean ito nahi zuela zirudien bere burua.

Taberna-zuloetan mozkortzen zenean, berekin ez ziren kamaradak iraintzen zituen. Errudun egiten zituen bere buruari aurre egiten ez zekielako. Zelulan balego, ziur mendean hartuko zuela akats hura.

Zurrutaldietako azio-lagun batek era petralean erantzun zion. Burezur edo momia belzkara moduko bat zen. Ez zitzaion ahazten. Begiko zuria gorritzat ageri zitzaion:

—Hik, alproja horrek, uste duk kapritxo ezan diatela? Neuri ere ohartarazi zidatek anaiak, medikuak eta gainerakoek: zurruteroak ero bihurtzen gaituk. Erotuta hiltzen gaituk beti...

—Eta zeatik jarraitze uk, ordun, zurrutai ematen?

—Mundu honetan bost axola zaidalako dena... emaztea, semea, alderdia eta kaka guztia... Hori duk egia, konpai. Zenbat eta lehenago lehertu, hobe!

Egun batzuk geroago, Miguel odolezko obramenduak egiten hasi zen. Izutu zen! Abailan jo zuen, ospitaleko medikuek ikus zezaten. Alkohola debekatu zioten. Garai bertsuan, alderdiak jakinarazi zion beste hiru hilabetez luzatzen ziola zigorra. Oraingoan, bizkarrari eragin eta kaka-pattar gehiagoren bila joan zen.

5

—Azucena! Azucena... Juantxo!¹⁰⁴ Etorri, etorri... Sapo de la Grecia, hoa bila. Ez, ez nago erotuta: gezurra! Dena urdin entzun eta ukitzen dudalako da. Etxekoneko neskaren pianoaren malenkoniazko ubera, olatuen graziaz aireraturik zetorren han-hemenka apar-farfailak uzten. Azucena, ordea, ez zetorren. Ez zen etorriko Miguelek erregututa ere. Begietara so egin nahi zion. Besarkatu nahiko zukeen, minberatzeraino laztandu gorputza, ahoa jateraino musukatu. Urdin ikusiko ote zizkion ezpainak, gorri eta bustitan distirantak ikusi ordez, azkenekoan bezala?

—Ez, inondik ez urdinak.

Azucena zuen geratzen zitzaion azken ederra. Aspaldi batean zapata dotoreak sortzea amestu zuen, larru ustelduak konpontzen jardun baino. Orain ohartu zen ez zuela hiltzerik nahi, munduko inongo emaztek jantzi ahalko zuen zapatarik ederrenak josi gabe harentzat. Emaztea zuen.

Klase-borrokako etsaiek zituzten emazteen arteko edozein andre zuri baino hobea. Bai ederra zuela andrea: egunsentiko kantutan, zeruertz gorri gardenak —beti gorriak, ez urdinak— beren dorre, antena, terraza eta guzti, ekarriko dizkiguten etorkizuneko hiri komunistetako emakume guztiak batera bezain ederra. Berari zegokionez, ordea, berak ez zuen inoiz itsasoa ezagutuko.

¹⁰⁴ Euskaldun garen aldetik, ohartzekoa da egileak, jatorrizko lanean ere geure erara idatzirik dakarrela: '*Juancho*', alegia. Euskaldunok Ameriketako espainierari utzi diogun ekarpenetako bat ote?

SOLASALDIA GUAYAQUILEN ¹⁰⁵

(eszena amerikarra)

Itsasadarraren uhin laburrak arre datoz. Ontzitxoaren txopa ondoan eserita, San Martín jenerala, uniforme urdinez jantzita, oharkabean bezala doa kai aldera, baltsetara, ur-bazter paduratsuetara begira. Bolívar jenerala antzeman nahi du. Txalupak eta batelak datozkio ondotik arraunean. Nasako mastetan txandaka jarri dituzte Kolonbiako banderaren ostadarra eta Guayaquil eta Argentinakoen urdin argi-zuriak. Han dauden militarretako nor ote Bolívar? Ikusteaz bat ezagutuko duela uste du. Susmoa du odol koloreko begiak, azal iluna eta kondor-moko itxurako sudurra dituen soldaduetakoren bat behar duela. Kondorra, izan ere, ez da kolonbiarra bezainbat argentinarra? Ez al da Argentinako Andeetan irabazi Chacabuco¹⁰⁶ edota galdu, Cancha Rayada¹⁰⁷?

—Komandantea, —diotso landa-laguntzaileari— ezagutzen al duzu Bolívar jenerala?

¹⁰⁵ Kontakizun honen bidez, egileak irakurlearen gogora (eta gogoetara) ekarri nahi du Simón Bolívar eta José San Martín, ipuineko bi pertsonaiek, 1822ko uztailaren 26 eta 27an Guayaquilen, independentzia eskuratzeko kinka hartan, Amerika librearen etorkizuna hizpide, egin zuten elkarretaratzea.

¹⁰⁶ Hego Amerikako independentziaren aldeko borrokaldia: Andeetako eta Rio de la Platako Probintzia Batuetako armadek, José San Martín buru zutela, garaipen erabakigarria lortu zuten 1817ko otsailaren 12an Espainiako erregearen aldeko armadaren bizkar, Santiago (Txile) hiritik iparrera, 50 km-ra dagoen etxalde honetan.

¹⁰⁷ Gudu hau —‘*Cancha Rayadako Ezustekoa*’ zein ‘*Hondamendia*’ izenez ere ezagutua— 1818ko martxoaren 19an gertatu zen. Independentziaren aldekoen armada, José San Martínen esanetara, galtzaile atera zen Talcatik (Txile) gertu dagoen leku honetan erregearen aldeko armadaren aurkako borrokan.

—Nola ez, nire jenerala; hantxe dago.

—Nor da?

—Zutarriaren kontra dagoen hura.

—Hori!

Ez dio harrezkero begirik kenduko. Bolivar adeitasunez makurtu zaio, hain berea duen ausardia erakargarriz eskua luzatu dion une berean. Ofizial guztiak ditu inguruan. Denak, heroiak. Ez daki zergatik bereak ere ez dituen heroi ikusten, edota bere burua. Neurri batean, badirudi ez dituela atsegin heroiak. Nahiago zukeen bakean gobernatu, antolatu. Ez ditu guduak eta odola atsegin. Gorroto dio kuartel-giroari. Bizitzak agintzen du, ordea, eta gerra egin behar izan du; eta irabazi. Garaitu bada, ordea, guduak xake-partidak bezala jokatu dituelako izan da. Cádizen ez al zen Errege-Eskolako kadeteen artean matematikaririk onena? Orain Argentinako armadaren buru da. Bihar Argentinako bakearen lehen agintaria izango ahal da!

Dena dela, Bolivar jenerala, zer da egin beharrekoa, guduak amaitzean? Cúcutan, diotenez, Konstituzio miragarria emana omen du. Eta agintari demokrata handi bihurtuko balitz, beste Washington bat izanen ote? Ez, Espainiatiko Amerika hau ez da Estatu Batuak. Hemen, Amerika espainiar honetan, eta Kolonbian bereziki, jeneral mulato eta basati gehiegi dago, soldadu analfabeto gehiegi. Eta jauntxo eta apaiz gehiegi, horiek xaxatzen Iparraldeko beste haren antzeko demokrazia jaio dadin. Monarkiak ere ezingo lirateke gure mundu berri honetan loratu, gure ezdeus honetan, ameskeria omen delako kendu zaigu-eta. Orduan? San Martín bere buruari galdezka ari zaio, amildegira ateratzen ariko balitz bezala: Amerikaren etorkizunaren amildegira.

—Jenerala, pozarren naiz, ohore bat da niretzat!

—Irrikaz itxaron dut bizi-aldiko une hau!

San Martín altuagoa da; Bolivar, lerdengoa. Altzairuzko eta sotiltasunezko zuzentasuna nabarmentzen dira argentinarraren itxuran. Axolagabe izatera iristen ez den lehia-jarrera fin batek ederragotzen du lautadatarra oharkabeko eta talentuzko ukituz. Irribarre egin diote elkarri, eskuak kemenez ematean. Guayaquil argitsu hartan, bete-betean erortzen da eguzkia uniformeetan eta ezpaten gainera.

Guayaquilgo herriak egin du urriaren 9a¹⁰⁸. Konta ezin ahala soldadu eman ditu Bolivarren armadarako. Yaguachin¹⁰⁹ borrokatu da; baita Pichinchan¹¹⁰ gailenduko ere. Paludismoak azala ilundu dien gizon eta emakumeak atera dira lokatz-inguruetako etxeetatik, algarroboen gerizpeko ethezuloetatik, Amerikako heroiak ikusteko irrikaz.

San Martíntzat gauza bera dira itzal urdinez eta eguzkiz beterik azaldu zaion tropikoko hiriaren bero-zantzua eta ostatu eman dion gizonaren adeitasuna. Mingostasun-kutsu bat ere badu, berak harrera egin baino,

¹⁰⁸ 1820ko data honetan gauzatu zen Guayaquilek Espainiaren harremanak eten zituen altxamendua. Independentzia zale izateagatik Guayaquilera aldatu zuten militar venezuelar gazte talde batek Guayaquilgo burgesiako intelektualekin bat egin eta, espainiar soldaduak mendean hartu ondoren, egun horretako goizean Guayaquilgo Probintzia Askea eta Guayaquilgo Errepublikak izenez ezagutzen den estatua aldarrikatu zuen. Horrek abiarazi zuen Ekuadorko Errepublikaren independentziako gerra.

¹⁰⁹ Guayas probintzian, hiriburutik oso gertu dagoen herria. Bertan eman zen, 1821eko abuztuaren 19an, Ekuadorko independentziako gudu ezagunenetako bat. Guayaquilgo independentziaren aldeko armadak, Antonio José de Sucreren esanetara, mendean hartu zuen Yaguachi inguruetan espainiar erregearen aldekoa eta behin betiko ziurtatu, Guayaquilgo Probintzia Askearen independentzia.

¹¹⁰ 1822ko maiatzaren 24an, Quito ondoan den izen bereko sumendiaren hegaletan, 3.000 m-ko altueran eman zen gudua. Antonio José de Sucre buru zuen independentziaren aldeko armadak mendean hartu zuen Espainiako erregearen aldeko armada. Gertakari honek Quitoko Presidentziaren independentzia ekarri zuen eta horretatik sortu zen egungo Ekuadorko Errepublika.

berari egin diotelako. Baita mesfidantza gorde bat ere. Berak itxaroteko begiramena agertu zuen Liman. Bolivar, berriz, atzerabiderik ez duten gertakariz datorkio: bera dago hego itsasoetako ontziola nagusian, mendeetan piratek irrikatutako portuan, kolonbiarra izango den hiriburuan. Ezin zaio, halere, herrarik gorde ospeak alde batera utzi eta zinez abegikor hartu duenari. Ezin dio eutsi berak nahiko lukeen adei-lege hotz eta ia uzcurrari. San Martín tolesgabea da, xaloa eta ona. Dagoeneko miresten ari da ia gorrotatzekotan zen soldadu puska. Hain du irribarre zintzoa, hainbeste amets eder eta hain indar handia ametsok gauzatzeko, nire Jeneral Bolivar! Elkarrizketa izan duten etxeak teilazko estaldura du, balkoi kolonial zabalak eta ontzien belak diruditen mihisezko errezelak. Palmondo kokodun batek ematen dio geriza. Tropikoko zur gordinen usain-zantzua darie gelei. Bakarrik direnean, bi gizonak isildu egiten dira tarteka. Aldika bizi-bizi mintzo dira. Noizbehinka algara egiten dute. Bataren eta bestearen ahots hain desberdinen oihartzunak kolore bereziz janzten dira –ia ukitzerainokoak– gela durunditsu haietan.

—Amerikaren etorkizuna eta askatasuna, Jenerala! —diotso Bolivarrek.

—Eta bakea eta ordena? —erantzun dio San Martínek.

Bien gaztaroak antzekoak izan dira, urte heroiko haietako denenak bezala. Liburu berak irakurri dituzte, baita bidaia bertsuak egin ere. Espainolek urrezilarrak eramaten zituzten Mexikotik eta Peru Garaitik barna. Kakaoz beterik Guayaquildik Sevillarantz ateratzen ziren galeoiek geldialdia egin behar izaten zuten Acapulcon, zentralizazioak eta nor-noren burutazioak aginduta. Eta zer esan, beltz eta indiarrek haziendetan jasan behar izaten dituzten zigorkadez eta zepoez? Amerikarrak izaki, mingarriak zaizkie bie.

Onartezinak. Amerikak borroka egin du eta garaile atera da. Aske da. Zer egingo du, ordea, askatasunaz?

—Inoiz neure buruari galdezka hasten natzaio ez ote garen itsasoa goldatzen ari... Gehiegi pentsatzen dudanean izaten da. Horregatik, nahiago dut egin dezakedanaz bakarrik pentsatzea.

—Zer izango da gure lanaz? Antolatu egin behar dugu etorkizuna.

—Nola? Bizitzak gainez egiten die aurreikuspen guztiei. Nire izarrak esaten dit, ordea, Amerikak askatasunerantz joaten jarraituko duela.

—Eta herrien bakea eta zoriona?

—Ziur zaude, jenerala, bakeak ezer balio duen, askatasunik gabe?

Gaua egin denerako, bi gizonak hiru aldiz elkartu dira. Bolivarren pentsamoldeek harridura eta etsia hartzera eraman dute San Martín. Bolivar, bere aldetik, huts eginda dago, aurreiritziak aurkitu dituelako Amerikan bere parekotzat duen gizon bakarrarengan edota, gutxienik, beraren ondoren, bigarrengotzat jotzen duenarengan. Behin hiriko aire kiskaldua freskatu duen gauean, ordea, gizon biek berriro hurbilago sentitu dute elkar. Finean, beraiek dira kontinente berrian milioika gizon-emakumek hauteman duten itzarobidea. Ezer adostu gabe aldentuko ote dira?

Bihar banandu egingo dira. Bihar Kolonbiako gaiztoek eta Argentinako zintzoek bazter utzi eta ahaztu egingo dituzte. Bihar dira Santa Marta¹¹¹ eta

¹¹¹ Kolonbiako Karibeko kostaldean, Magdalena departamentuan kokatutako hiria. Hor, erretiro-bidean, hil zen Simón Bolivar jenerala 1830eko abenduaren 17an.

Boulogne Sur Mer¹¹²; bihar baita, Amerikako anabasaren gain, Espainia beltz haren oinordeko diren jeneral mulatoen eta jauntxoek tropel hezigaitza ere. Bihar, harako beste bihar batean, Bolivarren izarra ikur hartuta, beste gizon eta emakume batzuk hasiko dira, askatasunaz hitz egiten.

Orain, tropikoko gau usaintsu honetan, jereza edan eta azal zuriko neska kreoleekin dantzan arituko diren jaialdira abiatu aurretik, Bolivarren eta San Martínen belarrietara gitarra lakar baten zotina dator urrundik. Bertatik ohartu dira bat bera dela bien zoria: bien arteko adiskidantzaren senidetasuna bizi dute. Elkarri begiratu eta elkar ulertu dute.

¹¹² Frantziako 1848ko iraultzaren karietara, Paris utzi eta hiri honetara erretiratu zen San Martín jenerala; bertan hil zen 1850eko abuztuaren 17an. Frantziako ipar kostaldean dago Calais-tik gertu.

ETXEKOANDREA

Frou-frou bakarrik geratu zen haziendako berrehun peoien artean. Botila-beira iduri, "Relámpago" planeagailuak –150 HP eta 90 milia, haize-helizez– "Esterón der venao"ko ur geldien botila-beira ebaki zuen begi-bistatik galdu zen arte. Leman Jiménez zihoan, bekainak zimur belar-hesiei jarri behar zien arretagatik: zorigaitza ekartzeko adinakoak baitziren, bere hegazkin ahulaz jo ezkerro.

Frou-frou moilatxoaren baranda labainean kulunkatu zen aspertu lizunezko keinuz. Emakumearen begi berdeak –chilca-hosto bustiak bezain argiak–, keinuka hasi ziren eguzkipean. Argi-errainuak, izan ere, urre koloreko izpietan zatiturik erortzen ziren, inguruetakako lurrak estaltzeraino. Hodei-izpirik ez zen ageri urdinean. Sabanako lau haizetara zabaltzen zen, bitartean, pacharacoaren¹¹³ oihua. Kaiaren estalkiko xaflak krakada latzak ateratzen zituen. Balsa-hesolak argiz beterik ikus zitezkeen esteroko uraren musu freskoaren bila makurtzen. Eta Frou-frou aspertzen ari zen.

Erlojutxoari muare gorrizko zintaz eusten zion eskumuturreko txikia begiratu zuen. Hamaika eta erdiak ziren

—Zer egingo dut egun osoan?

Senarraz burutaziotan ari zen: hiruretan Guayaquilen izango zen eta ez zen hurrengo eguna arte itzuliko.

—Joan egin behar nuen... Gauean Olmedora aterako da Juan eta nik zortzietan oheratu beharko dut.

¹¹³ (*Penelope purpurascens*) Ekuadorren, soinu karrankaria egiten duen txori mota bat.

Aukera hori ezinezkoa zela ikusiz, zapatatxoaz nasako ohol durunditsuak jo zituen. Arretarik jartzeke, begirada erratuz behatzen zuen, itsasbeheretan agertzen ziren sakanen gainei erreparatuz: ikusteke behatzen zituen arraildura sakonak, ibaiko mamu arraroen kobazuloak ziruditen sakonune beltzak. Goialdean, maskalduta, ihartuta eta zintzilik airean, belar zimelak. Behean, esteroko gurgur leun fina itsasgoran. Frou-frou, irudi liraina, jantzi trinko gorrian bilduta, azulejoaren¹¹⁴ pausoz igo zen etxera, kaian barrena. Eguzkiak erre-mina eragiten zion –ez zuen ohiturarik– mahukarik gabeko soinekoak agerian uzten zituen beso leun eta zuri-zurietan.

* * *

Frou-frou Jiménez aberatsaren amorante apaina zen. Montubioek esan ohi zuten:

—Eme puska, hoi! Jiménezena! Nahiko nikek; diabruakin harremana omen dik-eta. Ia bea den deabrua. Duen grazia masoia bea re: Fru-frú...

Miresgarri egin zen haientzat rodeo eta haziendako señalada¹¹⁵ ospetsuetatik. Aditu zaharrak bezala, moxalik basatiennen gain eseri eta ibiltzen zen. Eskularrutan bildutako eskutxoez baliatzen zuen beta¹¹⁶. Ez zekiten zer pentsa emakumeaz, bat-bateko ateraldietan markatzeko burdina goria ferratzaileari eskuetatik kentzen zionean eta, belaunikaturik, hortzak

¹¹⁴ (*Pipraeidea melanonota*) Ekuadorko oihanetako txoria. Kolore urdin eta urdin argia du eta horretatik datorkio izena ere. Mozorro itxura du, begien bueltan daukan marra beltz bat dela-eta.

¹¹⁵ Hego Amerikako hainbat herrialdetan izen hau ematen zaio abereei zigilua edo seinalea jartzen zaien aro eta lanari.

¹¹⁶ Ekuadorren, behiaren larruaz egiten den zati bakarreko hedea; abereak lotzeko-eta erabili ohi da.

karraskatuz eta, bere begi berdeak erdi ixten zituen bitartean, aberearen burdin gorria hankari itsasten zionean eta, aberearen orro-kolpe zakarra entzutean, hede artean ostikoka ari zen gorputza sentitzen zuenean.

Guayaquilen bertan apartekoa zatekeen luxuz apaindurik zeukan etxea. Eta ikusgarriena: koadro, panpina eta fetitxe arraro, altzari bitxi eta liburu apaingarri artean, hegan bezala, gustu handiko eskuaren dotorezia. Bazen han pianola bat ere.

Gelak, argitsuak. Burdin hesiak, lorez gainezka. Inoiz ikustera iritsita ere, buztinezko eta guayacánezko gizon arlote haiei beste mundu batekoa zirudien giroa.

Eta denen erdian, bera, behortegiko egunsenti distiratsuz apaindurik, adatsetako urrezko kizkurren jauzia erakusten.

Frou-frou... Etxekoandrea.

* * *

Beti lemaren gurpila eskuan, haziendako esteroen labirintotik Babahoyo ibaiaren korrante zabal eta sakonera atera zen Jiménez. Ur-azala leun-leun ageri zen. "Relámpago"ren abiada areagotu egin zen. Ibaiaren ertzak bi suge beltz ziren, zuzen eta pare-parean ihes egiten. Uretan zehar tximinia beltzeko eta estalkia esne-kaikuz betetako bapore zuriak zihoazen.

Jiménezek –masailean beti txikle, begirada xaloe, sorbalda karratuak, jertse batean sartuta– Alfredori, txinatar txoferrari, utzi zion lema.

Bihotz-ondoan hutsartea egin zitzaion bere Frou-frou utzi zuelako. Piztuko zitzaion, bai, Guayaquilen haren mira! Giroa freskatzean, bulegoan gauzak konpondu ondoren, bere "Marquette" a hartu eta joan ahalko ziren elkarrekin Chongón-era edota Pascuales-a, izen txarreko areto txikietan

dantzan egitera. Bakarrik, ordea, ez zuen ezertarako gogorik. Igaroko ahal zen denbora... Hurrengo egunean, bidali beharreko gutunaren erantzuna prestatu bezain agudo, itzuliko zen.

* * *

Galeriako chaiselongue-an¹¹⁷ luze etzanik, laranja zurrupatu zituen. Zukua ezpainetatik zerion eta are zuriagoak egiten zizkion hortz zuri zorrotzak... are gorriagoa, ondo parekaturik eta txiki, haiei eusten zien hagin-oia.

Erantzi egin zen bainura sartzeko. Azkarrago freskatuko zen oihal txinatar mehetan –arroz-soroz, dorre zorrotzez eta herensugez brodatutako kimono berdetan– bilduta. Mugimenduek gogo-gabeziako makaltasuna zuten. Buruko ilajea, utzia, zeta distiratsuzko kuxin batean etzan zuen.

Egoteko era hartaz nekaturik, bat-batean mugitu egin zen, hanka bat airean jaso eta, eginahalean, urrun jaurti zuen oinetakoa. Alboan zuen mahaitxotik "Capstan" kaxatxoari heldu eta zigarro bat hartu zuen ezpain artean. Erretzea baino atseginago egiten zitzaion, ekialdeko aierupenez osaturik, tabako hark zekarkion piku zahar edo te nahiz opio usaina.

¹¹⁷ Horrela –frantsesez eta hitz bakar gisa idatzirik– dakar egileak. Etzanda egotea ahalbidetzen duen aulki edo sofa moduko altzaria adierazten du. '*Etzaulki*' kontzeptuaz ere itzul dezakegu, gaztelaniazko '*tumbona*'ren adiera jasotzeko.

Liburuxka bat hartu zuen, irekita zeukan hartan. Excelsior¹¹⁸ txikitxo bat zen: Medardo Angel¹¹⁹, bere buruaz beste egin zuen poetaren olerki gaixoak. Irakurtzen hasi zen:

*«Por donde ella pasaba, la tragedia surgía:
tenía la belleza de una predestinada»*

Une batez bertsoek aipatzen zuten gela mingotsetako dama zela iruditu zitzaion. Irribarre egin zuen. Azkenean, olerkari penatuaz barre eginez eta liburua jaurtiz amaitu zuen. Une batez mahaitxoaren gain-azpietatik igaro zuen begirada.

—Zer irakurriko dut? Blasco Ibáñez hori zakarra da. Veronako beste hori, lohia. Borget hori, berriz, aspergarria... A! Bai, zu: Loti. Nire Loti.

«Aziyadé»¹²⁰ hartu zuen. Irakurtzen hasi zen. Berriro aspertu zen. Ez; ezta Loti ere.

—Hori da!; zeu: Musset.

Bazuen Elzevir¹²¹ arroxa bat, txikia, Japoniako paperez egina, "Nouvelles poésies" zekarrena. Pasa zituen Rolla eta Luzia. Ez, ez zen hori. Poeta gaztea,

¹¹⁸ Ahaleginak ahalegin, ez dut lortu hitz honen esanahia argitzea. Jarduna are zailagoa gertatu zait, jatorrizko hizkuntzan minuskulaz idatzirik datorrelako. Solaskideen iritzien bidetik, halere, ez dut uste okerra izango denik pentsatzea idazlearen garaiko liburu-bildumaren baten izena izan litekeela.

¹¹⁹ Medardo A. Silva (1898-1919): Guayaquilgo poeta lirikoa. Beste hiru kidekorekin batera, kritikariek 'La Generación Decapitada' izenez deitu duten literatur taldeko kidea. Zenbait urteren buruan, denek beren buruez beste eginez amaitu zuten; horregatik, aipatu deitura.

¹²⁰ Pierre Loti-ren lehen nobelaren izenburua eta protagonista. 1879an eman zen argitara. Idazlea irakurle frantsesen artean ezagutzera emateaz gain, lanak aski ospe handia eman zion.

¹²¹ Holandan 132 urtez iraun zuen argitaratzaile-familia baten eta, horiekin loturik, haiek argitara eman zituzten liburuei ematen zaien deitura. Liburuok ospe handia lortu zuten XVII. mendean, txikiak, merkeak eta entretenigarriak zirelako. Gure egunotan 'poltsiko-liburu' deituraz ezagutzen ditugunen aitzindaritzat har ditzakegu.

jainko ilegorri gaztea irudikatzen hasi zen. Hura ere "Georges" damaganako maitasun ankerrez penatua. Garratz egiteraino gozoegiak ziren bertso haien ahogozo beroa dastatuz irakurri zuen:

*«Honte a toi, femme a l'oeil sombre
dont les funestes amours
on enseveli dans l'ombres
mon printemps et mes beaux jours...»*

* * *

Bero egiten zuen. Arratsaldeko ordu bietako bero-eztanda olatuka sartzen zen leiho zabaletatik. Barne muinetatik igo eta bekokian lehertzera zetorkion mina sentitu zuen Frou-frouk. Eskua jaso eta izerdi epela lehortu zuen. Lo hartu zuen. Gero bainatzera joan zen.

Mosaiko urdinez jantzitako gelatxoan sartu zen; oinutsik, lurretiko freskura hartzeko. Sartu zen bainuontzian... eta hala ere aspertzen ari zen.

* * *

—Eta hi zein haiz?

—Ahuntzaina.

—Eta zer duk?

—Ba, ne amak biali nau, indioilun arrautzokin. Ta san dit esateko Fru-fru señoritai bialtze iola, ño Jimene nausikin jateko. Ta barkatzeko huskei eta zikinkeiau.

—Hator hona.

Andreak ez zekien zer gertatu zen. Hain zuen tolesgabea irribarrea, hain zen sendoa eta gihartsua udako buztin lehorretan eta neguko behortegietako

lohi bigunetan ahuntzak bazkatzen zaildutako hamalau urteko mutikotearen itxura!

—Zein da hire izena?

—"Er Chumbote"... Barka: Lui Piedra.

—Ez, ez, hobe duk "El Chumbote". Eseri hemen, nirekin. Laguntxoak izango gaituk.

Mutikoak ia ikaratuta begiratzen zien Espainiako larru-gandua eta maitezko emakume-haragia zerion andre ilehori garbitu berriari edota asto-sabela iruditzeraino tenkatuta ikusten zuen chaiselongue mueiledunaren ahuntz-larru belgikarrari.

—Andereño, prakauekin zikindu ingot larru oi.

—Tontoa! Baina nik esanez gero...

Eskumuturretik heldu zion. Chumbote mozkortuta bezala zegoen. Larria zen gertatzen ari zena! Etxekoandrea —nolatan?—. Hurreratu izan zitzairen bere kolore bereko emakumeak pentsatu zituen. Tipula eta xaboi ilun usaina zerienak. Nola edo hala janzki ilun eta koipetsuetan biltzen zirenak. Tamal¹²² baten antza hartu izan zien beti, txerri-tamal batena: platano-orriak ireki eta, halaxe, beltzaran, bero, gustagarri ageri dena. Ametsetan ere alboan edukitzerik pentsatuko ez zuen emakume honek, berriz, zirrara berriak sorrarazten zizkion. Zorabiatzeko modukoa. Behin taberna batean, gogor-itxurak egiteagatik, pattarra pattarraren gain edanarazi ziotenean bezala... Halaxe jarri zen.

¹²² Latinoamerikan, arto-irinez, gaztaz eta haragiz prestatzen den jatekoa. Oso hedatua dago kontinente osoan. Osagaiok nahasi eta platanondoaren orritan bildu eta lurrunetan nahiz labean egosita jaten da.

Horregatik, ez zen ondo ohartu musu eman zionean. Ezta zeta gorrizko gona, azpiko arropen apar artean, jasotzen ikusi zuenean ere. Ezta berna trinko, zuri eta arrosa haiek, musker arraro baten ahoa bezala, ireki eta erdian hartu zutenean ere.

* * *

Jiménezek autotik salto egin eta indarrez itxi zuen atea. Gauerdia zen. Malekoia, lau eta bakarti, ibai-besoan luzatzen zen goitik behera. Noizbehinka, gauzainen baten txistuak, kometari eusten dion hariak bezala, sigi-sagan zeharkatzen zuen kalea. Erdi-lo igarotzen suma zitekeen txistuka ari zena, argi gautxori bat edo besteren parean, bere soingaineko urdin nabarretan bilduta.

Soto ilunetako porlana zurituta sumatzen zen. Nasa, beltz. Jiménez, antzokian ikusten izan zen filmean bezala, dena argi kontra behatuz, zaintzailearen txabolara jaitsi zen.

—E, txino!

—Zer da? Zein da?

—Neu nauk. Hator, bagoztik-eta.

Pospolo-zarrasta. Argia ezpaldurik zabaldu zen arrakalatik. Txoferrak, ugazabari umore txarra ez erakustearren isilik, etxolako atea ireki zuen. Gauerdiko haizearen erratz beltzek orrazten zuten ur ertzera atera ziren. Ñirñirka ari ziren kale-argien errainutara, ibai-uren mugida nabarmentzen zen, indarka gora etortzen.

—Itsasgora dugu; eta ez bagenu ere, hegazkinak bezain azkarra da "Relámpago" hau.

—Beldurrez hago?

—Ni? Ez horixe!

—Hala balitz ere, esadak lasai. Joango nauk-eta bakarrik, ohepean gordeta utzi nian-eta beldurra.

Irristailu sabelandia kulunkan zebilen, itsasaldiak eraginda. 150 HP-aren burrunba zakarra taupaka hasi zen, gauaren bihotza balitz bezala. Lehen erreketaren gasek gasolina gordin usaina zabaldu zuten. Helizearen haizeak Jiménezzen aurpegia jo zuen. Egunsentiarekin batera jasoko zituen laztanen aitzinerapenak motor eta ibaiena baino doinu gozoagoa zuen aurrera makurtutako gizona baitan. Ilunperantz, andereñoagana.

* * *

Eromenezko gau haren egunsentiarekin batera esnatu zen Chumbote. Dena isilik zegoen, erabateko isiltasunean. Zer zuen, ordea, gainean? Bere onera etorri zen. Anai-arreba txikienen masailak bezain leun eta usain gozoko zera. Lo nahasiaren erdian, aurpegia inguratzen zion etxeakoandreaken iztermamia zen. Luzatu zen, jaso zuen esku bat eta lotsarietako ileen zetazko hariekin topo egin zuen. Frou-frou esnatu egin zen...

Biek batera salto egin zuten, egur hautsien zaratak ostikada batez zapaldu zuenean isiltasunaren aire urduria. Emakumeak xuxurlaka galdetu zion:

—Nor da?

Chumbotek erantzun:

—Diabrua? Ez dio, ba, jendiak nausiyak...?

Egin zen haziendako dieselaren argi elektrikoa eta gela guztia argitan geratu zen, apaintzeko mahai zuritik ispiludun arropa-toki txikiraino eta zetazko ohe-gaineko gorriak estaltzen zuen oheraino eta honen oinetako tigrelarruraino.

Antzerki-keinuz bezala, han zegoen Jiménez. Besoak gurutzatuta. Lasai. Bekozkoa ilundurik. Beltzez jantzita eta gorbatako harribitxiaren printza ñirñirka zuela. Oinetan, jauzi egitean itsatsi zitzaizkion lokatz puskak zituen. Frou-frouk ezpainak hozkatu zituen, irribarreka, mainaka. Jaitsi zuen eskua eta gerrira jaso zuen pijamaren galtza. Eta chilca-hosto bustiak bezain berde ziren begi argiak jasoz...

—Zer?

—Ez duzu ikusten zertan ari zaren? Eta norekin!

Gizonaren erabaki irmoaren seinale, mingostasun itxuragabe batek masaila kateatzen zion, txikleak bezala. Frou-frouk ihardetsi:

—Ez gaizki hartu... Antuju bat izan da... Halakoa naiz, apur bat berezia...

Chumboteren barruan hitz bakarra ari zitzaion durundaka, behin eta berriro errepikatzen: “nausiya! nasiya! nasiya!”. Ez zuen besteek ziotsen deus aditzen.

Emakumea arrenka ari zen, ezpain-ertzak hozkatuz eta irribarre artean bere burua eskainiz.

—Ez izan gogoan bestea... beste haziendako mutikote hura...

—Hura hil egin nuen!

—Hori besterik ez bada... Zozoa! Esan egin behar zenidan.

Chumbote ez zen ohartu andrea egitera zihoanaz. Eta ulertu balu ere... Beti bezala, emeki, sartu zuen bere beso leuna burkoaren azpian. Atera zuen errebolber txikitxo bat, nikeleztatua, nakarrezko kirtenduna.

Chumbotek eraztuna ikusi zuen dizdizari; eta zulo bat, biribila eta beltza. Harri eta zur zegoen. Isilik. Kopetan sentitu zuen. Tximista more bat egin zen eta harrikada gisako bat sentitu zuen buruan. Zerbait beroak gainez egin zion

aurpegian. Ez ziren malkoak. Biraka hasi eta errezel gorritzata batek estali zion dena.

Frou-frouk bultza egin zuen ohetik tigre-larrura. Erortzean, alkandora zabaldu zitzaion eta airean geratu ziren eltxo-zitzadaz jositako ipurmasail horixkak. Zakila zintzilik, zimel, janeiro orri ihartua bezala. Eta ume-mantarrak, more antzera...

Jiménezek kendu zuen gorpua sakaneko lokatzetan zikindutako txarolezko zapata puntadunaz. Eta aho maitea musu luzez zurrupatzean, chilca-hosto bustiak bezain berde ziren begi argietara hurreratu zen...

1939

GOLKO-HAIZEA

Barealdia zabal-zabal erori zen eguerdiko orduetan labarren aurrealde osoan. "Niña del Mar" ontziak bost mila kokoren zama zekarren. Belak, koipez beteta, hegal zimelak balira bezala erortzen zitzaizkion. Oholak kirrinkaz ari ziren eguzkipean. Belaontzia, masta huts, ur-laster garden eta berdeak zeraman astiro. Airea, argiaren argiz, burdinazkoa egiten ari zen. Masta ondoan bazkari-prestaketan zebilen Juana de Jesusek aitaren egin zuen.

—Geldi hor, betoker txatxua! —oihukatu zion Pablo Mite pilotuak, ertzean eserita zegoen txopatik, oin hutsez lemaren barra zeraman bitartean.

Ezagun zituen Juanaren mainak. Itzuli zuen betokerrak geldiro aurpegia eta jaurti zion:

—Urotan, euzkia goian denian, "La Mardita" ateatze un.

—Ehori haiz, hemen, "La Mardita". Gaitza ekartze una!

Emakumeari begiak are zuriago geratu zitzaizkion. Pilotuari begiratzen zion, baina urrunera, ozta-ozta nabari zitekeen palmondo sail galdu batera begiratzen zuela zirudien. Sukaldariaren soin ilunari arrain-usaina zerion, ontzian zen orori bezala. Adabakiz jositako soinekoa bera gatzez kutsatutako bela zarpailaren antzekoa zuen.

—Ehorrek bakik ondotxo re, Mite, zein dan hemen benetan gaitz-akarrena.

Pilotuak, behatza aho parean gurutzatu, eta erantzun zion:

—Kontu!

Brankan soinu bakarra urarena zen. Itsas hegazti bakar bat ere ez zebilen inguruetan. Eskifaian ziren beste hiru choloak eta nagusia lo zeuden

gerizpean. Barealdi hartan, alabaina, solaskide biek argi eta garbi entzun zuten dei egin zien ahotsa:

—Eee, bailandrakoak!

Hotzikarak gerarazi zituen pilotua eta sukaldaria: istriborretik bailandra ilun bat ari zitzaien igarotzen; ontzia pintatu gabea zen. Nabar-zantzukoa bazen ere, eguzkitan zuri ageri zen zerupe hartan. Belak, popako haizeak puztuta. Beraiei, ordea, ez zetorkien haize-ufada bakar bat aurpegira.

—“La Mardita!”

Ondotik gurutzatzen ikusi zuten. Oihu egin nahi zieten, marinelei deitu; baina eztarriak trabatuta zituzten. Ontzian cholo bat ikus zitekeen, zuriz jantzita eta keinuka. Ia-ia "Niña del Mar" jotzera zihoan unean, berriro entzun zuten:

—Labarren oinetan itxoingo zioat horko zuriyai!

Zakurra zaunkaka hasi zen zama-tokian. Igurtzi zituzten begiak. Istant batez ondo-ondoan zihoakien bailandra, ordea, desagertu egin zen. Deus ez zen inguruan itsas lautada likitsa aldatzen zuenik. Oihu batean, gerizpera abiatu ziren. Lotatik bat-batean aterata, beste choloak beren txokoetatik etortzen hasi ziren.

—“La Mardita”! “La Mardita”!

—Ze izan da? Nun? Nun?

—Ertzetik pasa berri gaitik ontxe. Ta oihu in tziuk.

—Zin in tzak.

—Alajainkoa.

Hondoratzearen seinale da “La Mardita” rekin topo egitea. Ongi zekiten hori denek eta bekozkoak zimurtu zituzten. Erremedio bakarra gaitza dakarrena nor den jakitea izaten da eta hartaz libratzea... itsasora botatzea. Verrugate zaharrak esan zuen:

—Gaizki goaztik!

—Ze in, ordea, don Verrugate? Ze in?

—Gauerako ez badizkiu labarrak atzian utzi, ez diat deusez erantzungo.

—Eta zein izango a gaitza-karrena?

—Auskalo!

Elkarren arteko lehen begiratu ilun batek inguratu zituen bidaiariak. Zuria entzuten ari zitzaien, zutik, gerizpearen ate paretik. Bizar beltzaren artetik hortzek dirdai egiten zuten, koko-haragiaren pare: bere "El Palmar" haziendan, itsaso orrolariaren ertzetan, milaka bildu eta zama-tokia mukuru zeukaten kokoen antzera.

Oinetan eserita, zakurrak zaunka motz eta zakarra egin zuen.

—Astindu arraunak, hori nahi baduzue, cholo inozook, baina ez esan niri kirtenkeria gehiagorik.

* * *

Arraunek uren eztainuzko gaina astindu zuten. Astiro-astiro, "Niña del Mar" aurrera egiten hasi zen. Aurpegiko zimurdurek Verrugate zaharrari azal ustelduko mangleen antza ematen zioten. Zuriak, berriz, txanberga aurrean besoak gurutzatuta, urrunera begiratzen zuen brankatik.

Arraina kokoaz bazkaldu, heldu arraunei berriro eta bizkar izerdituak makurtu zituzten. Bazekiten beren besoen mende zutela bizitza. Gauak zeharkatzeke harrapatzen bazituen, istriborrean, itsas otso ikaragarriak bezala, beltz ageri ziren arroka haiek, inork ez zuen, guztion truke, sareko berun-ale bat bera ere emango. Bai astuna zela "Niña del Mar"... sotoan zeramatzan bost mila kokoak eta guzti!

Mite, gainerakoak bezala, isiltasunean murgildu zen, beti txopa ertzean eserita eta oina leman zuela. Tarteka bekain-masailek salto egiten zioten, nahi gabeko keinuz.

—“La Mardita”!

Arratsaldeak, ohartzerako, zerua lainotu zuen. Ura zink-itxurako xafla leuna egin zen. Choloek lehertu beharrean ziharduten. Unetik unera azkarrago sartzen zituzten arraunak uretan, euri tanta zorrotzak ateraz. Betazal erdi itxien tarteetatik, arrainen begiratu lausotua ateratzen zitzaien. Verrugate zaharrak, bat-batean, algara egin zuen, begi bihurritz so egiten zien bitartean denei:

—Sango al digu inork nor den gaitza-karrena?.

Ahotsak ezohiko oihartzuna zuen.

—Nork?

—Almadietan ibiltze ian jentilak, lengo haiek... inguru hautan izandako indiyuak... otoiitzeakuan igarotze ia... Paitatik datozen sechurak¹²³ bezelakuk dia.

Esan zuenez gero, choloek bazuten arrazoi berria, arraunen joan-etorrian zutiarazten zituena, urrunean arakatzera. Entzunak zituzten noizbait jentilak: palmondo edo mangle artean edo esteroetan arrantzan aritzen direnei noizbehinka agertu ohi zaizkien antzinako indiar haiek. Halakoek esan ahalko zuten.

* * *

¹²³ Peru inguruetako indiarren leinu eta talde bat.

Puztu ziren golko-haizearen ufada zakarrak. Oraindik beltz ageri ziren istriborrean itsaslabarrak. Aparrezko uztai luze batek inguratu zituen. Haizearen lehen kolpeaz bat, zuriak agindu zuen:

—Gora, bela hori!

—Kontu, nausi, ez agindu altxatzeko! —egin zion aurre Verrugatek.

—Altxa! Altxa! Altxa! Esan diat! Hi, Banchón, ezpeletara! Hi, hona! Tinko lema hori, Mite!

Esanak egin zituzten. Ilunabarra zen. Bailandra alde batera etzan zen. Zabaldu ziren belateriaren guraizezko hegoak eta, olatuen bibote zuriak kateatuz brankan, uretan murgildu zen. Ezpeletek kraska egin zuten. Haizeek bejucoaren antzera astintzen zuten fokea. Behin maniobra eginda, choloak, katuak bezala kareletik karelera eta brankatik txopara ibili ziren. Ausaz oraindik begiztatu ahalko zituzten jentilen almadiak.

Aitaren batean iluna egin zen itsaso gainean. Ekaitza nagusitu zen.

Olatuak orroka hasi ziren. Bailandra amaigabeko astinduetan mugitzen zen, ohol zaharren krakateko ikaragarrien artean.

—Bildu! Bildu!

Maniobra egin ahal izan zuten. Ur-palastak itsutzeraino sartzen ziren. Amorrazioan, eskuetako azala zuritzen zuten soka haiek bizia zutela ziruditen, haizearekin. Txanberga ere, une batean itsas hondora begira zen eta zero garaira, hurrengoan. Bailandraren erraietatik triki-traka ilun bat zetorren.

—Kokoak! Maarikatuak! Kokoak!

Bost mila koko zamatan; ur palastak; gizon zuria brankan, besoak zabalik, gor, itsu, ahoa ur gaziz gainezka. Txopan, choloak satora jaitsi ziren. Bakarrik geratu ziren, berriro, Juana de Jesus eta Mite pilotua.

—Entzute en, betoker?

—Bai, cholo maarikatua.

—Jentila-ittun.

—Hori zirudik, bai.

—Beira nor tzen gaitza zekarrena!

Laster itzuli ziren bata bestearen ondotik ontzi-gainera. Zamak burrunbaka jarraitzen zuen behean. Mastaren ertzetik txinparta urdin eta gorriztak atera ziren eta uztai bat sortu zuten gabian. Juana de Jesusek inork baino lehenago ikusi zuen dena.

—Sua! Su gaiztua! Beira!

—Ikusi un? Ikus-inat. Zuria! Egia hunan “La Marditarena”! Barruan tzaon gaitza-karrena! —hasi zen oihuka Verrugate zaharra. Ahotsa itzalita geratu zitzaion, olatuen danbatekoen eta sototik irten nahiez zebilen kargaren artean.

Tigreak, zakurrek inguratu eta choloek lantzaz aritzean, aurre egiten duen bezala, halaxe itzuli zen zuria. Haren ile motz eta nahasian eta bizarretan diz-diz egin zuten mastakoak bezalako txinpartek.

—Madarikatuak! Cholo ergelak! Hori santelmo argia duk... Ez duk inolako deabrukeriarik edo tontakeriarik edo putakeriarik!

Sukaldari betokerraren ahots zaratatsua hautsita atera zen, albo-argien kristalak apurtu balira bezala:

—Zuria! Zuria uk gaitza karrena! Ureta! Bota ureta, denok ito bino len!

Zuriak errebolberra atera zuen.

—Betoker alua!

—Jentilek san tzuten. Galde pilotuari!

—In tzan zin.

—Alajainkoa.

Nagusiaren tiroak airean galdu ziren. Besoetan altxa zuten. Baina ez zuten astirik izan ertzetik botatzeko. Mendi bat ur erori zitzaien bete-betean gainera. "Niña del Mar" hondora zihoan.

Une labur haietan, ibaia bete ur gazi ahoan, Miteri dena bizi-bizi etorri zitzaion burura: taita¹²⁴ zaharra lastozko txabola zarpailean; sandiak eta kokoak jasotzen zituzten lur saila; marrazoa bezain zapala zen bongo¹²⁵ hartan egindako arrantza-egunak; gezalaga arrear jasotako petrolio-gazteluak; ahotik odola zeriela hildako bi zaharrak, arreba... Lotan zireneko hilerria; eguzki-euriek desegindako hilobi gaineko makilazko gurutzeak... A, zuria etorri ez balitz Guayaquildik abokatuarekin, lurra kendu eta denak peoi bihurtzera!

Ez zuen zeri heldurik. Hondoratuz, urperatuz zihoan, sentitzeari utzi zionean.

¹²⁴ Hego Amerika osoan, aita edo familiaburua adierazten duen deitura. Kuttuntasun-kutsua du. Ekuadorren, gutxi bada ere, zerbaiten buru den pertsona adierazteko gertutasunezko deitura gisa ere erabiltzen da, indigenen artean batik bat: *taita* Dios, *taita* obispo, etab.

¹²⁵ Ameriketako ibaietan barna pertsonak nahiz zamak garraiatzeko erabiltzen den ontzia. Barrualdea zapala izatea da bere ezaugarriarik nabarmenena.

ITZALA GURUTZATU ZENEKOA

Txalupa kaitxora sartzen ari zen. Moisesek, bitartean, buruan iraultzen zuen han bete beharko zuen ordu aspergarri andana. Egunak beti berdin izango zirela aurreikusten zuen lanbideak zeraman herrixka hartan. Halere galdetzera ausartu zen:

—Aho-zabalka jarduteko tokia, ezta, kapitaina?

—Ez pentsa. Polita da herria. Mugidatxoa dago: txalupak, bailandrak, azukre-findegietako jendea...

—Bai, e?

—Gainera, itxurak besterik badio ere, neska gazte apartak daude, pinpirinak! Txaluparen kapitaina aldendu zen. Karelak itzulbira egin zuen Moisesen eskuen azpian. Uren berde iluna bits lohitan irekitzen zen branka aurrean. Haize kirria epela zen eta urruneko ezti-usainaz zetorren.

Motorraren zurrunga entzuten zen kanaberaz eta eguzkiz urreztatutako errekondoetan. Herriko etxe gehienak lastozkoak ziren. Urrunean, kanaberadien luze-zabalean galduta, findegietako tximinia eta teilatu pintatuak ikusten ziren.

Moises ez zen inoiz landa-eremuan bizi. Ia bi urte egingo zituen han guardalanan. Denborak aurrera egin ahala, desagertuz joan zitzaion, hasiera batean, gazte txukun legez, lan hari eta lankideei zien gutxiespena.

Erreminik gabe onartu zuen Río de Cañara joatea. Familiakoek ihartuta ikusten zuten azkenaldian eta suspertuko zela uste zuten.

—Onartu, zalantzarik gabe. Ongi etorriko zaizkizu hilabete batzuk landan.

—Zaindu, hori bai: azukretako kanabera-lurra duk eta kontrabando latza egon behar dik eta montubio horiek ikaragarriak behar ditek!

—Laster batean eskatuko dut aldatzeko...

Gogoan zuen amak negar egin zuela agurtzerakoan. Bideak, ordea, burutapen ilunak uxatu zizkion. Dena berria gertatzen ari zitzaion: txalupa, ontziak, bizkortu eta, besterik gabe, gosea zekarkion uraren usain sarkor hura.

Iristean, tristura-kutsu lausoa sumatzen hasi zen bat-batean. Etxearen urruti-mina: aurpegi ezagun eta maiteak, bere kale-ertz hura, auzoko lagunak. Ez zuen inor eta ezer bere zain etxe sastar pila hartan: zerriak uxarrean eta haurrak korrika zebiltzan kale lokartuetan.

Arratsaldeak eguzki pilatuaren gandua igoarazten zuen soro beroetatik. Txori ezezagun baten kanta entzuten zen. Bai, inor ez zuen zain txalupatik salto egitean.

Guardak nahikoa talde handia ziren. Eskualdeak haien premia zuen. Montubioek gorroto zuten estankoan erostea. Jauntxoak kontrabandoan ibiltzen ziren, onean edo txarrean. Ezkutupeko alanbikak aurkitzen ziren inoiz edo behin mendi itxiko adar arteetan. Gauetan, manga¹²⁶ bakartietatik ttottaz betetako mando-taldeak igarotzen ziren, katalintzarrez zamatuta.

—Moises, goazen azkar. —agindu ohi zion inspektoreak— Gauean txinoek sorta potoloa pasa behar omen ditek Montañitatik!

—Prest, nagusi!

¹²⁶ Horrela deitzen zaio Latinoamerikan bi ohol-hesiren artean, kale moduko bat osatuz, geratzen den lurrari. Gehienetan estutuz joaten da eta gehienetan abere-biltegi baten sarreran amaitzen da.

Tiroketak, konfiskatze ikaragarriak, ezkutuko alanbikeak harrapatzea... denetik egin zuen eta sarri. Hilabete gutxiren buruan mendiko eguzkiak aurpegia belztu zion. Inspektoreak estimua zion:

—Hiriko mutikoa gizonkotea atera zaiguk!

* * *

Ez zuen aspertzeko betarik. Zerbitzuak eginbeharrak eginbeharren gain zekartzan. Herri, auzune eta haziendetako chinganetan ibaika saltzen zen ttotta.

Moisesek bazekien nola edaten zen hirian. Baina hura ez zen deus, hango peoi-taldeek zintzurretan sartzen zen zurrumbiloaren aldean. Larunbatetan lurrak mozkorrez gori izaten ziren.

Mangetako erreten eta bazterretan, herrixketako kaleetan, bijaozko lizun-etxezuloetan egundoko gizon-sorta ibili ohi zen zambuluka.

Aihotzez eta tiroka amaitzen ziren liskar askotan hilak eta zaurituak gertatzen ziren. Landa-polizia egonean zegoen. Hobe; sustatu egiten zuen jokaera hura. Ruralak alkoholaren kontrabandoan sartuta zeuden; etxeetan lapurtzen zuten; montubioen emazte eta alabak bortxatzen zituzten. Inoiz tiroka ere jarduten zuten garden aurka, hauek hobeak ez ziren arren.

Moises ez zen gehiegikeriarik egitera iritsi. Hala ere, ezustean harrapatu zuen ezkutuko taberna bat edo besteko etxeoandreak, beldurrez, zokoan – ausart eta sarkor– onartuz ordaintzen zion isiltasuna. Hori bai, nazka izugarria zion edariari.

—Hartzak zurruta bat, motel! Ikaagarriya zeok!

—Ez diat edaten. Ez diat gustuko.

—Ez hai kaskaila izan!

—Ez uste; –osatzen zion beste batek– tirotan eta emakumetan maisua uk!
Zurrutai paso iten tziok.

—Mozkor txarra izango ik-eta...

—Auskalo.

* * *

Herriko errebalean, zurezko zorua zuen etxe batean bizi zen Magdalena, don Catalinoren alaba. Leihoetan basoetako atxaparrak zituen landatuta. Inguru haietako neskarik politena zen. Ezagutu orduko, atsegin egin zitzaion Moisesi. Hala ere hilabete batzuk pasa eta gero bakarrik hitz egin zion. Maitatzen hasi zen; maitagarri egin zitzaion...

Napoleon bizargina zen Río de Cañako gitarra-jotzailea. Moisesek eskatuta, abesti-saioak eskaini zizkion neskari don Catalinoren etxe aurrean. Napoleonek beti gomendatzen zion:

—Kontu, Moises, kontu! Don Catalino agure zitala uk. Neskak merezi dik, bino zar hoi nazkarriya uk eta ez dik zirikatzeik e uzten; izorrauko hau bizkor ibiltze ez paiz!

Moisesek barre txikiak eginez erantzuten zion. Neskaren etxe-aurrea argi-ilunetan egoten zen ilargi-gauetan. Leihora azalduarik atzematen zituen, alkoholak baino areago mozkortzen zuten Magdalenaren burualde kiribila eta irribarrea. Amak harrapatzen zuenean, kolpeka eta tximatatik tiraka sarrarazten zuen.

—Atera nazazu! Eraman nazazu zeurekin!

—Bai, ‘negrita’, baina itxaron...

—Ez... Berehala. Bestela zaharrak zu edo neu akabatu egingo gaitu... Ez duzu ezagutzen!

Ohartarazi zion solas egin zuten azken gauetako batean. Behin ama lokartzean, ezkaratzera jaisten zen ezkutuka. Elkarrekin ipintzen zituzten beren malkoak. Magdalena atorretan jaisten zen, tapaki batean bilduta. Moisesek ez zuen bere egin, maite zuelako, Guayaquilera eramango zuelako, ezkondu egingo zuelako! Neskaren musu sutsuen eta malkoen ahogozoa, haren gorputz epel eta malgua, laztantzen zuen azal leuna... guztia, harrezkero, Moisesen oroitzapen kuttunena bihurtu zen.

* * *

Don Catalinok egina zuen jada ttotta gisako zera pila bat.

Itxura arraroa sumatzen zitzaion: aurpegiak –musu-luze ezaugarri haiez jantzita, ilaje zuri-zuria inguruan– zaldi-azalezkoa zirudien. Begi txikitxoak itzalita eta lehertzeko zorian bezala ikusten zitzaizkion. Kulunkan jardun zuen luzaz oinak lagunduta bultzatzen.

—Gau hontan akatu ingo iat! —ari zen murmurika.

Gelan, ilunpetan, saguzar bat zebilen hegan. Itxi-usaina zerion kuartoari. Bere ohean ahuspez, Magdalena negar-zotinka ari zen estutasun betean.

Ate irekiak alboko gela erakusten zuen argipean. Kriseiluaren argiak, kea zeriola, sorgin itxura zemaion amaren aurpegi kakotuari. Bihurdurek desitxuratuta islatzen zen itzala kanabera nabarrezko paretetan. Hortzik gabeko ahoak barre txikia erakusten zuen.

—Gau hontan akatu ingo iat! —esan zuen berriro don Catalinok, lurrean, alde batera uzten zuen bitartean ttotta edateko zerabilen ontzia.

Magdalena zutitu egin zen lotako babeslekuan. Ez, ezin zuen eraman. Moisesen azkena izango zen. Aitak hilko zuen. Eta bera! Gaez ezkaratzean elkartzeko aukera zutenean ohi zuen bezala, berak papertxo bat bidali zion,

etortzeko esaten ziona. Don Catalinok eskuetatik kendu zion eramateko mandatuetan zerabilen mukizuari. Pasa zion emazteari irakurtzeko eta, ondoren, joateko esan zion Moisesi ematera. Alaba etxean jarri zuen giltzapean, izuak jota.

Etorriko zen Moises. Sartuko zen ilunpetan aurkituko zuen ezkaratzean. Eta besoetan gorputz maitatu erdi-biluzia estutzera zihoala uste zuenean, don Catalinok hondoraino sartuko zion aihotza...

—Hoa ohera, alua! Hoa lota! Zeatik ez dun lo iten? Behorrak bezala, iel hao ala? Maarikatua!

Zotin isiletan lehertzen zen.

—Esaiozu, ama...

Kirrinka-soinuz atera zen zaharraren irri karkara.

—Izorra berko-in! Izorra berko-in, garaño izateatik! Eo ez haizela harekin etzan esan ber den?

Altxa eta herren-merrenka, sokaz mugitutako txotxongilo handi baten itxuran, ganbarara abiatu zen, korrika txikian. Haren itzal okerra paretako kanaberen kontra dantzan zebilen, kriseiluaren gorabeherekin batera.

—Gau hontan akatu ingo iat!

Isla galdu batek salatuta, Magdalenak aihotzaren distira ikusi zuen.

—Jainkoarren, ez, taita, ez!...

Hamakara hurreratu zitzaion, tximak jarioan eta ahotsik gabe. Ttotta beltz eta garratzezko korrokadak zerizkion Don Catalinori. Neska belauniko jarri zitzaion lurrean eta zaharraren belaunari helduta geratu zen, aihotza kendu nahian.

—Utzi, urdanga... Uzteko!

—Jainkoarren, ez, taita!

Zaharraren buru-begiak amaraun gorritaz inguratuta zeudela zirudien. Errainuak itzulinguruka ari zitzaizkion odoleztaturik. Oinetan zuen alabaren beso saiakorrak lehian ari zitzaizkion, aihotza eskuetatik kendu nahiez.

Indartsua zen, madarikatua! Baina ezingo zuen. Ikusiko zuen! Eta gorantz alboratzen zion labanari eusten zion besoa. Neskak indar egiten zuen eta bularren mate erdiek aitaren berna, izterra, sabela... maspiltzen zuten. Harrigarriri gogor eta zorrotzak sumatzen zituen titi-muturrak.

—Taita, taita!

Alabari oihu latz eta estua atera zitzaion, aita egitera zihoakionaz ohartu zenean. Jaitsi zuen don Catalinok aihotza eta alaba jo zuen luze-zabal. Gorputza bere pisuz erori zen; eta oholak jo zituen garondoaz. Zaharra, ilunaldiaren oihal gero eta itxiago hartan, gainera erori zitzaion.

* * *

Napoleón, barberian, orratza pasatzen ari zen bere ile likatsuetatik. Ilea mozteko besaulkian eserita, Moisesek urketari baten aldarria entzun zuen kalean behera joaten eta, bitartean, egunkari zaharrez papereztatutako sabaira begira jarri zen.

—Aizu, nausi.

Magdalenaren mandatuak egiten zizkion mutikoak orri bat luzatu zion. Moisesek eskutik kendu zion, larri. Zaldia haztegian bezala zuen bihotza, lauhazka.

—Zer deu? —esan zion Napoleónek— Emakumik eskribitu du?

—Aja.

Ez zuen nahi izaten, ordea, inorekin hartaz hitz egiterik. Jelosia modu bat zen: iruditzen zitzaion, hitz egitean, gutxiago zela berea.

Tabernarena egiten zuen dendara abiatu zen, otordu-bila. Hitzorduak mozkortuta eduki zuen egun osoan. Zer ordutan ilunduko zuen? Eta ezingo balitz jaitsi? Eta ezkaratza itxita aurkituko balu? Ez, ez zion idatziko. Hainbat aldiz ikusi zuten elkar leku hartan!

Afalondoan gelara joan zen. Herria, esan ohi den bezala, oiloekin batera oheratzen zen. Egunaren azken isla gorritzak zerumuga margotu zuen. Kanpotik kanabera gozoaren usain beroa zetorren. Kale ertzetako belarrak kulunkan zebiltzan, leunki.

Hamakan etzan zen itxaroteko eta zigarro bat piztu zuen. Gaua nagusitzen ari zen. Zakur-zaunkak sumatzen ziren urrunean. Ate-leihoetan argiak ikusten ziren.

Orduen kontu ateraz joan zen, oilar-kanta bakanak lagun zituela. Urduritasunak hamakari helaraztera, ezpainak hozkatzera zeraman. Ikusteko irrikaz zen. Aspaldidanik beharko zukeen eramana eta emazte egina...

Ohituraz, poltsikoan hartu zuen errebolberra. Gaueko ordu txikiak ziren jada, herrixka osoa lozorroan zen. Argi bat bera ere ez zen ikusten. Dena itxita zegoen eta orririk gabeko leiho bat edo batek aho-zuloa zirudien. Kalea ez zegoen iluna. Lainotzar harro haiek ez balira, ilargia izango zen. Argitasunak, lainoak zeharkatzean, zuri egiten zuen gaua. Argi-itzal garden hark ukitzeko modukoa egiten zuen airea.

Elizako dorrea multzo ilun bat zen. Beltzez jantzitako norbait ateratzen ikusi zuen ataritik. Ez zuen lortu bereiztea gizonezkoa ala emakumezkoa zen.

Izu-ikara berezi bat sartu zitzaion. Errebolberra ukitu zuen. Atzetik abiatu zitzaion eta, pausoa bizkortu ahala, itzala ere azkarrago abiatzen zen, burua itzuli gabe. Izu-ikarak tentetu egin zion ilea.

Gailentzen utzi behar ote zion bada beldurrari? Ez zegoen horretarako arrazoirik. Don Catalinoren zaintzailerren bat bazen, tiro egingo zion. Montubioetako inork ez zion egoskorretan irabaziko. Etxadi bat harago, zorionez, Magdalenaren etxea ikusi zuen. Don Catalinok bazituen luxu bat edo beste: karrerapean, atearen aurrez aurre, farol bat zuen zintzilik.

Itzala aurretik zihoakion. Dena ongi bideratuko zen: oinezkoak aurrera egingo zuen; bera iritsi, bultza eta etxean sartuko zen; Magdalena zain izango zuen; izu-ikara amaituko zitzaion; maitearen ezpainak besterik ez zituen izango...

Itzalak, ordea, ez zuen aurrera egin. Ezkaratz aurrean geratu zen, farolaren argi hori keinulariaren azpian. Emakume bat zen; tapaki bat zuen buruan. Moisesek ez zuen oilo azaldu nahi. Aurrera egin zuen.

Itzalak ere, bat-batean, atzera egin zuen atearen kontra eta, hitzik esan gabe eta lepo gainetik besoak gurutzean zabalduz, bidea itxi zion. Jaitsi zituen itzalak besoak saihets aldera eta berriro jaso zituen, bidea ixteko. Halako samin- eta erregu-zantzua zerien keinu haiei.

Ez zuen beldurrik, baina ezin zuen aurrera egin. Ezta tiro egin ere. Askatu ezinezko lokarri batek estutzen zizkion oinak. Halako zerbait sentitu behar zuten, herriko hilobien aurrean izutzen ziren zaldiek.

* * *

Hiru egunen buruan etorri zitzaion Magdalenaren lagun bat, kontatzera.

—Magda hil beharrean zen, joango zinela pentsatuz! Zaharra zure zain zegoen, aihotza eskuetan, ezkaratzeko ilunpetan. Egun santu osoa pattarra edaten eman zuen... eta joanda zegoen. Hilko zintuen, ziur... Esan dit ez

gehiago bilatzeko, ez duzula gehiago ikusiko. Eta alde egiteko herritik; eskatzen dizun azkena dela...

—Baina ikusi ere egin gabe?

—Ikusi gabe.

—Baina zergatik?

—Ez du zuk jakiterik nahi. Baina ezin dizut gorde. Jakin behar duzu... Pentsa zenbateraino zegoen mozkor don Catalino, Magda zu ez hiltzeko eskatuz lurrera bota zitzaionean... madarikatu hark... bortxatu egin zuela!

Erantzun ere egin gabe, Moises izan zen une hartan izutu zena.

BETIGOSE

—Borrokan seitzen bazue, zarta emango izuet! Bioi! Bai, bioi! Jatekoatik borrokan! Ezta zakurrak e!

—Ama, bagrean hezurra kendu nahi zian anaiak!

Senarrarengana itzuli eta amak ahapeka aitortu zion:

—Min diat, Nemesio, ezer esatian. Bihotzian argi ikuste iat eskuka bat arroz eta bagre pusqueta ez dila inor betetzeko lain.

Gizonak ez zion erantzun. Haren pauso nekatuen zirti-zartak zoruko kanabera gainean entzun ziren. Gelditu zen, sorbalda emanez, begiak kanporantz galduta. Eltxo pila batek estaltzen zuen uren azpian geratu zen arroz-soroa. Ur-gain gisako batek estaltzen zuen azal guztia, gutxi arte arroz-buruak, bete-beteak, kulunkatzen ziren ibar haietan.

Haurrak, eskuak arrain-koipez likistuta, jolasean hasi ziren. Emakumeak buztinezko lapiko eta mateak mugitu zituen. Hasperen bat atera zitzaion:

—San Jazinto mattia, eta oin ze in?

Nemesiori bost axola, berari zer. Emazteagatik eta mutikoengatik zuen mina. Ez zuten arroz-alerik. Chocotak eta tilingoak¹²⁷ hegan zebiltzan ito beharrean ziren soro urmaelduen gainetik. Txistuek algara-itxura zuten. Noizbehinka txorimaloan geratzen ziren: neguko eguzkiak zilar-zantzuz janzen zuen arratsaldeko zerupean besoak altxatzen zituen bi makila gurutzatuz egindako piura tristea.

¹²⁷ (*Crotophaga sulcirostris*) Ekuadorko txori mota. 30 cm arteko tamaina har lezake. Kolore beltz distiranta du.

—Txuiyak-e, etziuk txakur txiki bat e-maten.

—Geyei galdu omen din, sootako ongarritan.

—Eta uholde bedeinkatuok, dena itotzen.

Uso baten intziriak entzun ziren. Zeruan, garai, koartza-talde bat pasa zen hegan. Ilunpea, lurruna balitz bezala, igoz zetorren urak hartutako lur eta zuhaitzetatik. Txabola zarpailak hondakin bat zirudien: lasto, kanabera eta makila beltz pila eta su kondar baten argi-printza.

Igelak kantuka ari ziren. Txirrita bat, txirrioka. Nemesiok kea egin zuen, eltxoak uxatu nahiez. Ahoan zuen zigarro-muturrari txinparta-apurrak zerizkion. Bi mutikoek amari heldu zioten gonatik. Hamakaren lokarriak krak egin zuen, hirurak esertzeaz bat. Amaren esku latzak haurren burutxoetako ile kizkurretan murgildu ziren.

—Hau izan da, ama.

—Ez, ama, ez da egia; ne anaia izan da.

—Zeu izan tza, Pepe.

—Ez, ama, ez da egia, ne anaia izan da.

—Ixo, mukizuok. Ez hasi berriz borrokan. Biyok izan tzate. Ta ez izan holakoak. Oso txarra a-ta jan-gosea. Ez dut tripazai izaterik nahi! Beira, kontako izuet...

—Esan, esan.

—Gosezkoarena kontako-zu, Zoila? —galdetu zion Nemesiok.

—Bai.

—Erne *Zancudokin*¹²⁸: erdi kikila un ta bildurrez gaixotuko zaigun.

—Bino hala, ikasi ingo itek.

¹²⁸ Izen hau ematen dioten Ekuadorren hanka luze eta meheko eltxo handiei.

Zancudo, anaia txikiak, nahiago zukeen ez kontatzea... edo nahi bai, baina ez zuen entzun nahi. Dena ilun zen, gainera: urek gora egin aurretik hil zuten txerriaren eskorta eta jolaserako erabiltzen zituzten guadúak; hagatik zintzilikatutako zaku zaharrak; oiloen lotarako langak... oiloak zituzten garaikoak.

Anaia biek amaren gonak estutzen zituzten ukabilez. Ondo-ondoan jarri zitzaizkion. Amak kontatu zien:

—Behin batian bazen oso-oso urrun —uretan bera— emakume bat. Izena zun Maria Angula eta beti gosiak zeon. Eta gosian gosez, denetik iesten tzun: haraiya, arraya, arroza, fruta... zena zelakoa. Egun santu osua ematen tzun hortzei eraiten.

—Oso gizena berko zun.

—Hala da. Bino okerrena zen inoiz etzula nahiko be puskakin. Eta hala, bestenai heltzen zion, tripa hutsik lagako bazitun e. Senarrak e esana zion: «etzaitetz holakoa izan, Maria Angula, halako batian zerbait txarra izango zuta, makurkeitan dabilenai, eozerta dela re, gertatzen zakon bezala». Hori esaten zion gizonak. —entzun ondo— makina bat aldiz, bere arroz eta bagre puska jan eta, afairik gabe utzi zulako, mendin arbolak mozten ibili ta geo, etxea itzultze zanin.

—Kusi, ñaño.

—Hitzat huen.

Nemesio bera ere entzuten ari zen. Zeru nabarra jada erabat beltz egin zen. Lohi-kutsuz nahasiriko haize mehe batek sabaiko lastoei eragiten zien. Ipurtargi eta cocuya¹²⁹ argitsuak saltoka hasi ziren mendiko ilunetan.

—Esate nunez, Maria Angulak hainbestetan junazi zun senarra tripa hutsik lota, gizonak, azkenin, berotu eta esan zion: «Zuhaitzak bota ta etxea natorrenin, zuk jan tzulako berriz-e afairik ez bado, jo ingo zaitut!».

Nemesiok ere esku hartu zuen:

—Hortik hasi ber tzun.

—Ez ireki geyo mokoia, bestela inoiz amaituko ez den ipuina izango deu-ta. Beno. Eta halako batin gertau zen tripakik erosi zizkola ibaiyan gora txalupaz saltzen etorri zen gizonai; eta hain ongi prestau zitun piperminez, biatzak miazkatzeaino goxua geau zikola. Senarrak bazekin tripakina, ta egun osua enborrak mozten pasa zun, hortzak ur inda zitula. Baina, zer gertauko? Eta gose-bertu beldurgarri hark etziola itxoin eta dena jan tziola, katuai re lapikua garbitzeko utzi be.

—Eta gizona etortzin?

—Itxoin! Jaten amaitu zunin, goatu zen Maria Angula senarran mehatxuaz eta ikatu zan. «Ta ze ingo ut oin? Birjina mattia, argi nazazu!» saten tzun. Eta zin iten tzun etzala berriz gosetien bekatun eroiko. Baina gaitza ina zeon. «Tripakiak jarri beharrin naon, bestela, senar honek hilko nain, otoitzeakun etortze anin». Oindik etzen beandu, bino hoi: etzun arrastoik, tripakik nondik atea.

—Ta ordun?

¹²⁹ (*Pirophorus luminosus*) Ameriketako intsektu mota. Sabelaren alde bietan dituen orinetatik gaeuz argi urdin aski bizia darie eta, multzo handitan ibili ohi direnez, ikusgarria da ilunaren erdian sortzen duten giroa.

—Oin ikusko zue emakume maarikatuai buruatu zitzakona. Esate a gaitz bat ite un kristaua, ur lasterrian makila bat bezala joate ala bea bakarrik txar gehio eta okerruk itea. Eta Maria Angula maarikatua re altxa eta —isil-isilik, ezkutuka— jun tzan herriko errebalea; eta hilerrian sartu eta aztarrika hasi zen egun hartan lur eman tzioten hildako baten hilobian; eta tripak atera zizkon, etxian tripakik, pipermin eta guzti, prestatzeko.

—Ama! —atera zitzaion dardarka *Zancudori*, gorputza gonaren kontra estutzen zuen bitartean.

—Betigose maarikatu alena!

—Hasiera batin dena ongi jun zitzakon Maria Angulai. Garbitu zun kristau hilaren tripajia eta prestau zitun antxintxika tripakik. Senarra etorri zenin, atera zizkon eta oso gustoa jan tzitun. «Miraria, hain goxua eon ta ne zatiyik pe ez uztia» —esan tzon—. «Saihetsak hautsiko nizkizun hala in bazenu! Eta oin, emaiazu uretako pontxoa, konpai Tutivén-eana jun ber baitut uztako lanak lotzea». «Etzaitetz jun, gizona, beldurra emate it-eta bakarrik geatzia». «Ezer in ez dunak ez du ezen beldur ber! Ze beldur ta ze arraio!»

Zancudok xuxurlaka galdetu zuen:

—Ta bakarrik geatu zan?

—Bai, bakar-bakarrik etxian.

Izerdi hotz batek betetzen zuen haurraren bekokia. Begiak ikaragarri zabalik zituen ilunaren aurrez aurre: aurpegiaren kontra nabari zuen ilunpea. Sorotik sartzen ari zen. Zoru azpitik igotzen. Amak ez zuen dardarka sumatu. Berari ere amak kontatu zion. Guztiei entzun zien horrelakoak eta mila halako kontatzen. Atsegin zuen kontatzea. Ia ikusi egiten zuen esaten zuena.

—Senarran zai, ohera jun tzan, bino begiak ez zitzazkon ixten. Mendiko soinu guztiak entzuten zitun: zapoak, mamorroak, txoriak... Astar batek gauerdia

jotzeako, apur bat lokartuta zeon, bino hor non entzun zun urrunin zerbait zakar jotzen zutela: «tam! tam! tam! tam!».

Zoilak ahots sakonez jarraitu zuen. Hil-danborrharen soinua imitatzen zuen. Mutikoek arnasari eusten zioten entzuteko.

—Gosekilak aitaren in tzun —«Jesus!»— ta bihotza ostikoka hasi zitzakon, lepotik ata beharrian. Atsaldian bino ikara handiyua zun oin; ongi zekin-da hildakuak izate iala, saihetseko bi hezur eabiliz, soinu zakarreko kutxa jotze utenak. Horratik, sartu zikon buruan bere bila zetorrela. Altxa zen, beaz, ta e tzanez behartsu-etxin bizi eta bere etxia ate ta guzti zanez, langa jarri zion; bota zion krisketa eta jarri zun traste pila. Izerditan geatu zen, uren kontra arraunin bino gehio. «San Jazinto mattia, promes ite izut Yaguachira jungo naizela, senarra azkar ekartzen baiazu!». Bitartin, ordia, mendiko ilunpetan geo eta hurbilo entzute zan soinu zakarreko kutxa: «tam!... tam!... tam!...». *Zancudo* airean igeri bezala zegoen. Hotz arin batek inguratzen zuen. Amak nabarmen sentitzen zuen soinekoari heltzen zion eskua, taupaka, bost chagüiz izuturen bihotzak balira bezala. Bazirudien mutikoa bera zela Maria Angula, soinu zakarreko kutxa jotzen entzuten zuena.

Nemesiok, zergatik jakiteke eta bere baitan milaka eta alehunka arroz-ale zuri irudituz, ohartarazi zion Zoilari:

—Etzazu jarrai.

Baina *Zancudok* nahi zuen:

—Jarrai, jarrai, ama.

—Ba ordun etxe ondoa iritsi zen soinu zakarreko kutxa, gogor-gogor juaz. Eta bat-batin isildu in tzen eta gosetia sudur-kutsuko soinu bat entzun zun: hildakun ahotsa zen —izan-e, diotenez, hala mintzo omen dia, eztarria harrez betia utelako— hola saten tzula: «Maria Angula! Maria Angula! emazu ontxe

hilobi santutik lapurtu iazun tripatxua!». Ta hor ezin izan tzun gehio eaman gosetiak: sartu zan ohe barrenin eta koltxoiaz bildu zan; bino hildakuan ahotsa etengabe iristen zitzakon.

Zoilak eztarria leundu zuen. Zerbaiten plisti-plastak entzun ziren ur geldietan. Zuhaitzak, haize epel eta tinkoak eraginda, kulunkan ari ziren. Hamakaren soka ere, habetik zintzilik, giza intziritan bezala ari zen kirrinka.

—Karramarro-sorta bezala bilduta koltxoian, Maria Angulak hildakua sumatu zun atia bultzatzen; ta eskutako hezurraz oholak hautsi ta barrura sartzen ai zala. Geo, ia gela bertan entzun zun lengo ahots hua: «Maria Angula! Maria Angula! emazu ontxe hilobi santutik lapurtu iazun tripatxua!». Ta hildakua – eundoko indarra baitzun– koltxoitik tiraka hasi zen; ta Maria Angulak ohe parian ikusi zun luze-luze tente.

Eta Pepek, anaietako handienak, jakin nahi izan zuen:

—Ta nolakua zan?

—Oin ikusko-zu. Ba be burua galduta ikusiz, gosetiyai hildakuakin solastia otu zikon, ea bitartin senarra itzultzen zan. Beitu zion, beraz, arpegira –ez baitzeon oindik ziharo burezur inda, ustelduta baizik zati batzutan eta hortzak aeriyan zitula–. Eta galdezka hasi zitzakon: «Hildako! Hildako! Zertako ituzu begi handi hoyek?». «Maria Angula! Maria Angula! zu ondo ikusteko!». «Eta zertako ituzu hain belarri handiyak?». «Zuri ondo entzuteko». Ta hildakua, bitartin, geo ta gertuo zon. Ta gosetiak e, be onetik ateata, galdezka jarraitu zun: «Ta zertako zu sudur hoi?». «Zuri ondo usaitzeko». «Ta ahotzar handi hoi?».

Zoilari umetan kontatu zioten Betigosereren ipuina eta bazekien ez zegoela ondo kontatua, baldin eta, azken galderakoan, oihu handiz eta begiak zabal-

zabal eginda, adi-adi ziren umeei bat-batean oihuka eta eskuez mehatxuka erantzuten ez bazitzaien.

—«Zu jateko!!» –garrasi egin zuen, jauzi eginez.

Eta aldean, hatsaldi batean, entzun zen:

—Ai!

Soinekoari dardarka heltzen zion eskua askatu egin zen. *Zancudoren* buruak irrist leun bat egin zuen hamakaren oihalean. Bat-batean beldurra sartu zitzaion amari. Susmoa izan zuen. Ohartu zen zerbait bazela.

—Nemesio! Nemesio! Kriseilua! Piztu kriseilua! Seme! Seme! *Zancudo!* Ze gertatze-a?

Hartu zuen besoetan mutikoa. Kriseiluaren argi horixka ezpaletan zatitu zen txabolako kanabera eta lasto keztatuetan barna. *Zancudok*, zurbil, sudurra zorrotz, ez zuen arnasarik. Begiak beira ilunezko bi bola ziren. Eskua, luze eginda, zerbaiti heltzeko keinuan geratu zitzaion.

Nahasmendu eta lantuak pasatakoan, mutiko zaharrenak galdetu zion amari:

—Zigorra izan da ezta, ama? Kendu nahi zian bagre-zatibatik.

KUMEAGATIK

I

Gelditu ziren elkarri begira. Mendian catacaoa¹³⁰ kantan ari zen. Erosta-doinuen kutsua zerion kantari.

—Maarikatua! Hegazti horrek zorte txarra zekarrek!

—Ta gui ze? Jarrantuko iau, Juantxo?

—Ze ingo-a ba. Ez diau euna alferrik galduko.

Arratsaldeko laurak ziren eta bazirudien gaua erori zela. Basa-mendia ebanoz jantzi zen. Bi tigre-ehiztariak belaunetarainoko estalkiak zeramatzaten. Cotonatan arantzak itsasten ziren. Juantxok behatzak estutu zituen ahotik kargatzen zen eskopeta-ertzean.

Jarrai zebiltzan oinatzei erreparatuz, tigreak urrun beharko zuen oraindik.

—Aaaj, bino gaurkuan harrapa ber diau.

—Piztitzarra ber dik! Ta larrua! Gutxinez ateako iau...

—Altxa!

—Ze izan da?

—Nik uste, hemen nunbait euki ber dula kabi-lekua. Begi-zitzak sumatu izkiat ontxe, hor, pikonduan.

Haize-bolada batek, bat-batean, piztiaren apo-kiratsa ekarri zien. Belar handiek, bejucoek, orbel pilatuek ez zuten uzten ongi ikusten. Apuntatu zituzten eskopetak.

¹³⁰ (*Daptrius americanus*) Ekuadorko zapelatz mota bat. Ezaugarriak bereizgarriena da fruituak jaten dituela. Izena hegaztiak egiten duen soinuaren onomatopeiatik dator. Heriotzarekin zerikusia duten elezahar askotan ageri da.

—Hau izango ik be ezkutalekua. Tigría, ordia, etzeok.

—Aja. Hemen baleo, kattagorriyak ihes ingo ziaten honezkeo eta coloraoek¹³¹ ez hituzkek kantuan aituko ... Bino kusi itudan begitzarrak?

—Kumiak! Goazak; kendu ingo zizkioau.

—Baita zea re! Geo ama gure atzetik etortzeko etxeaino.

Asenciok, ordea, ez zekien nolako gogoz zegoen Juantxo. Ezta berak ere: agian, emaztea joan zitzaiola-eta, aste osoa zaputz ibili zelako izango zen. Auskalo zer ote zuen.

—Hara! —bota zuen— Gogua nin lendik e kume bat harrapau eta biberioiaz hazteko. Oin hobeto, bi izango izkiat: kume hau ta amak etxian utzi dian semia.

Eta mendiaren punta hartan, Maria de la Cintaren oroipena piztu zitzaion. Polita, kizkur hura, bere bi ile-kordak sorbaldan! Gaztea: aurreko urteko uren sarrera-garai hasiera eta gero bakarrik atera zen berarekin. Bost axola joan bazitzaion ere. Gizona zen, barre egin ahalko zuen. Nor bere eskukoa da. Emakume-faltarik ez zuen izango. Baina haurra... oraindik bularrekoa zela uztea! Horrelakorik ez da egiten. Hil ere, hilko zitzaion etxekonekoagatik — Asencioren emazteagatik— ez balitz.

—Kizkur alua! Nitzat ainakua balitz!

Hartu zuen txotx bat eta hurreratu zen zuhaizpeko zulora. Azkar ibili behar zuten. Gaua gainean zuten. Goian, lurretik ikusi ezinik, cascolen¹³² eta

¹³¹ (*Eudocimus ruber*) Ekuadorko oihanetan aurki daitekeen txori mota. Luma gorriak ditu, marra beltz batzuekin; horretatik, herriak ematen dion izena ere.

¹³² (*Libidivia corymbosa*) Ekuadorko basoetan ematen den zuhaitz mota. Aski handia da: 13 m-ko altuera harrapa lezake. Lore hori biziak ditu eta fruitua, lekale itxurakoa.

errege-palmondoen buruak durundan ari ziren arratsaldeko haizeak eraginda.

—Berriketa gutxiyo, Juantxo. Tigre amak ez dituk kumeandik urruntzen ta une batetik bestea gainian diau. Umatuta, axeia bino okerro duk tigría. Etzak, pa, holakoik in; gutxiyo gaur, catacaoak kantau diunian.

—Kristaua re aberiak bezalakua balitz! Ta emakumia re tigre emia bezalakua balitz!

Azal pikardatuzko kumeak begiak ixten zituen, zetozkion argi apurren dirdiretan. Luzatu zen, Juantxori hozka egin nahirik. Katua zirudien, jada atzapar-itxura zuten esku handi haiengatik ez balitz.

—Beno, oin itzuli in ber diau. Ta korrika!

—Goazak, goazak. Hik e baituk atealdik, Juantxo! Hiatik eunen batian oindik tigrían tripan utzi ber dizkiau hezurrak.

II

Arropak urratu zituzten sasietan. Luzea izan zen korrika-saioa mendian barna. Ehize-garaian lotarako erabili ohi zuten txabolara iritsi zirenerako, egunaren azken argi-errainuek oinetan igarotzen zen esteroa jo zuten. Izkirak saltoka ari ziren ertzetako ibai-uraza¹³³ artean. Inguruari lur- eta belar-busti usaina zerion.

—Eoskorra haiz geo, motel! Auskalo zetik nahi duan kume hoi harrapau.

¹³³ (*Pistia stratiotes*) Euskaldunok “uretako aza” izena eman diogunaren parekotzat har dezakegu landare hau. Ekuadorren ‘*lechuga de agua*’ eta ‘*lechuguín*’ deituraz ezagutzen da. Ibaietako ur lohitsueta, hostoak ur gainean igeri, ateratzen den landare mota txiki eta oso hedatua da.

—Len e esan diat: biberioz hazteko. Semiakin batea haziko iat, hala, handitzian, tigrían anaia esan tzaioten.

—Honen amak diskurun harrapatzen baatxik, handi ingo ituk, bai, benetan, tigría eta tigrían anaya.

Sua piztu eta charquia¹³⁴ jan zuten. Zenbat gau eman zituzten hala, mendian! “Tigrero” izatea zen haien ogibidea. Tigre-ehizan ziharduten, eskopetak ahate-ehizako postaz kargatuta. Piztia lantzaz akabatu eta larruak saltzen zituzten. Ez zuten haragia jaten; noiz edo noiz, bihotza; besterik ez. Mendira beldurrez ez irtetearren egiten zuten edota pultsuak bat-batean huts ez egitearren. Hori omen, erremediorik onena.

Lanbideak bizitzeko ematen zien. Okerrena, halere, zen tigreak gero eta urriagoak zirela; eta gero eta mendi barrenago bilatu behar zituzten. Haziendetako zaratak uxatu egin zituen. Buruhaustea!

Egunen batean koartza-ehizan hasi beharko zuten... “tigrero”ak izaki! Herrixketako dendetan lumak ongi saltzen ziren.

Maltzur hutsak badira ere! Erosle oro erdi maltzurra izaten da: txakur txiki batengatik negarrez hasten zaizkizu; emakumezkoak, gainera, tratuzale makurrenak. Eskerrak ez zutela irabazi-asmo handirik. Emazteari lapikoa prestatzeko adina eman ez gero! Eta larunbatetan zurrut egiteko lain geratuz gero!

III

¹³⁴ Jatorri kitxuarreko hitza. Izen hau ematen zaio Hego Amerikan gatzetan onduta jaten den haragiari. Gure zezinaren antza du.

Zerua ikus zitekeen hostoek estero gainean uzten zituzten tarteetatik. Izarrak ñirñirka ari ziren. Mendia dar-dar batean zen: mamorroen kirrinkak, furrundak, hegadak, korrokak, karrankak... arnasestu-ahots bakarrean nahasten ziren.

Lotako babeslekua habe lodi eta trinko gainean jaso zuten. Ura berotu eta kafea hartu zuten, belarriak ernai, soinurik ñimiñoena sumatzeko. Solasean ari ziren, eskopetak eskura eta begiak mendira.

—E neok loure.

—Hobe.

Zer ordutan azalduko ote zen tigre ama? Ongi zekiten, bai, etorriko zela. Ziur. Lehen asko berandutzen ziren. Bihotza taupaka zuten, zelatan. Ez zen beldurragatik, noski. Etorriko zen, hor nonbait hila ez bazen, behintzat; izan ere ordua zen.

—Itxoinazi ite atxik, aluak, emakume harruak bino areo uk!

—Etorri, etorriko uk. Oso urrundik usnatze izkitek kumiak.

Itxarroteak eragingo zien denborari luze iriztera. Izarretatik, ordea, nabari zen ez zela berandu.

—Hara, ikuste uk?

Hasperenez beteriko mendiaren ahots anizkoitza isildu egin zen bat-batean; hasi zen berriro; eta berriro isildu zen. Isiltasun sakonaren hondoetan urruneko orro baten oihartzuna zabaldu zen.

—Isilik etorri zaiguk alproja hoi ondoa –esan zuen Juantxok.

Ondotxo baitzekien, tigreak nahi bezala egiten duela orro, muturra lurrari itsatsiz nahiz airera jasoz. Eta urrun entzutean, gertu delako izaten dela.

—Maltzurra uk: emia ta zarra.

Mendia isil-isilik zegoen. Tximinoak igota izango ziren, dagoeneko, adarrik garaienetara. Guantak ezkutatuko ziren jada zuztar azpitan. Txoriak kuzkurtuko ziren, nor bere ohatzean. Izaki oro babes bila zebilen.

—Ontxe, Asencio.

—Umm...

Jauziak hondar-zakua bezala erorarazi zuen gorputza suaren erdira. Atzaparrak erretzean, marru beldurgarria egin eta beste jauzi bat egin zuen. Txabolatxoa, pospolozkoa bezala astindurik zebilen. Tigreak aurrez aurre eraso zien. Hain zebilenez azkar, ez zegoen nola apuntatu. Orain bola bat zirudien, orain biribilki nabarra, suaren txinparta ahulek argizatuta.

—Emaiok kumia, motel, jun dein.

—Ez.

Une beldurgarriak izan ziren. Abereak bere atzaparrak zoruko guadúei itsastea lortu zuen. Juantxok bularralde zuri eta bigunaren erdian egin zion tiro. Bertan erori zen.

IV

—Eamazak ehorrek larrua, etxian etzeukat-eta gatzik. Deitu iok nire amaideai launtzeko.

—Nola ez. Eta in bezin auro deituko iat, goiz jaisteko herrira, saltzea.

Etxe multzoa lo zegoen. Ez zen kriseilu bakar baten argi printzarik ikusten. Mareagora behar zuen. Haizean sumatzen zen. Behortegia baino harago, palmondo sailaren atzealdean, zerua argitzen ari zen. Juantxok Asencio utzi zuen. Saihetsaren kontra estutzen zuen tigre-kumea. Jadanik ez zuen hozka egin nahi. Lo zetorren.

Gau osoa eman zuten tigre amaren zain. Oso berandu utzi zuten txabola. Tigre-kumea lo zettorren. Ez zuen, ez jadanik hozka egiten, ez. Gupidatu egin zitzaion.

—Zertako hartu ote iat? Gainea, ama hil tzioat. Umezurtz utz-iat, neure semia bezala!

Umezurtz! Semea ere umezurtza zuen. Maitea egin zitzaion ematxar hura. A zein itsusia zen etxea hutsik topatzea. Alu alena! Lehen beti itxaroten zion Maria de la Cintak, ahoa fresko eta eskuak bero. Norekin joan ote zen? Ez zion inoiz bizimodu txarrik eman. Hori bai, orain harrapatuz gero, akabatu egingo zuen. Ez bakarrik umea botata utzi zionagatik: gizona zelako!

Igo zituen maila laburrak eta bultzatu zuen atea. Sartu zen, ilunpetan, gelara. Mutikoaren lotako txoko ingurua haztatu zuen. Eta bat-batean zerbait arraroaren zantzua izan zuen: norbait... Lapurrak ote?

—Zer da? Zein da hemen? —egin zuen orro, eskuaz aihotzari tiratzen zion bitartean.

—Neu naiz, Juantxo —entzun zen ile kizkurraren ahotsa.

—Heu? Maarikatua! Putakumia! Heu? Nun hao?

—Juantxo... itxoin... entzun... itzuli in naiz...

Ez zuen topatzen

—Maarikatu alena!

—Hemen naiz... Hilko ninduzula banekin-e, itzuli in naiz... itzuli... Ez zuatik, semiatik bino... Ezin nun eaman. Ikusi ut... titia eman yot. Oin hil nazazu ta kitto.

Emakumearen ahotsak, ordea, ilunpearen erdian apurtuta utzi zuen. Urraturik geratu zen. Zergatik izan zen hain putakumea? Zergatik alde egin zuen? Baina... etorri egin zen, mendian tigre ama etorri bezala. Emakumea,

sarritan tigre emea lakoa izaten da. Eta Juantxo bera? Hil egin nahi zuen!
Baina ezin zuen gau berean ama bi hil. Gorroto zion. Ez zen gehiago bere
emazte izango. Ezinezkoa zen.

—Maarikatua!

Besoa zintzilik utzi zuen. Behatz hotz eta izerditsuak erdi irekirik geratu
zitzaizkion. Aihotzak lurreko kanaberatan jo zuen metal-hotsez.

GIZONA ETA IBAIA

Matapaloren baten zarata izango zen burua itzularazi ziona, ibaian, goialdean, uretara erortzean. Urak puzten ari ziren lodi, nahasita zekarten lohiagatik. Baltsa gainean eginda zeukan etxetxoaren leihotik, Luis zerura begira zegoen —hori ere lohi itxurakoa—, ibai ertz ilunen gainetik.

—Hara, Polibio, atera hadi eta hoa portura, lo egitera. Hemen gaua izorratua izango diagu.

Haizea musketa eta kaiman usainez zetorren; hots, hori ere ur- eta lohi-usainez.

Langileak, zihozko kandela bezain paludismo kolorekoa, totalka erantzun zion:

—Ta beoi, nausi?

Luisek sorbaldak jaso zituen. Begiek dir-dir egin zioten alai odol-bero aurpegian. Euri-tanta mardulek gero eta itxiago jotzen zuten sabai gainean.

—Nik, diok? Nik ezin diat denda utzi.

—Izan-e, len niyonez, goitik hola jarraitze bau euriyak, gau hontan baltsa-ujun ingo zaio.

—Horregatik esan diat alde egiteko.

—Ta beoi, ito ingo a!

—Ez hain erraz. Ez dituk, bada, hiltzen bagreak eta guanchicheak!

—Hoi atealdiya! Arraiyak dia-ta!

—«Batek igeri badezake, orok dezake» ziok atsotitzak.

Irribarre egin eta Luis aurrealdeko oholtzara atera zen: estalia zen, baina horma eta eskudelen orde, zutabeak zituen. Inguruko lau haziendetatik eta

auzune batetik etorri ohi zitzaizkion eroatera. Hamaika mila sucre, ongi hornitutako salgaietan, pilatzen ziren apal-zokoetan: botilak, zakuak, latak, aihotzak, linternak... mendian baliagarri zen oro.

Zurez egina zen eta zinkeko teilatuz estalia. Balsa-enbor lodi eta ongi kateatuek eusten zioten figuroa gorritz jasotako zoruari; hogeita hamar bikotek dantzan egiteko adina azalera zuen.

Kalamuzko sokek lotzen zuten ur gaineko gaztelu hura ibaiertzaren muinetan itsatsitako guachapelízko lau zutoinetara.

Ez alferrik, Zaínoa ibai beldurgarria zen. Ertzetan bizi zen jendeak izua zion. Mesfidati bizi ziren; arriskuengatik baino, haren arima gaiztoagatik. Lehorteetan egarti eta argal zena, alderantzizkoa eta ur lasterrez betea egiten zen euriak etortzean. Montubioak sinetsita zeuden nahita hondoratzen zituela batelak; errotik ateratzen, kafeondo eta laranjondoak; edo bidetik ateratzen, errekaen ur-lerroak. Oraindik etorri berritan, zera jakinarazi zioten Luisi:

—Gaiztua uk Zaínoa eta aspalditik duk halakua! Zaindu hai, zuri! Ibai hau —ta barka, konparatza— zakurren pare uk, emia ohara denian: hozka ite ik, zaunka in aurretik!

—Pertsona edo aberea ote dugu bada?

—Hiriak in dik, txuritxo! Ze uste uk? Halakua uk ibai hau! Galde eozeini... ta entzun hau, gezurretan eo gauzak puzten nabilela esango bau re behorrek: Zaínoa alu galanta da. Haurdun uzte itu emakumiak: horreatik ez da emakumeik bainatzen; ezta ertzetan e, matea eabiliz. Eta jeloskorra da: gustukua dun andrazkoa ito ite-u eo kaimanak akuilatzen, senarrai...

Baltsan emandako hilabeteek eraginda, erasan ere egin zioten zentzugabekeria haiek. Neguko egunsentitan aski zuen, zuhaitz beltzen

artean, Zaíno uherrari begiratzea ubidearen berezko zabalera hiru aldiz handiagoa zuela jakiteko eta zubitarako erabil zitzakeen enborrak zeramatzala ohartzeko, edota montubioek egozten zioten arima gaiztoa sentitzeko.

—Baina etzioat, ez gizoni, ez ibairi, ez deabruri utziko denda hau kentzen! — erabaki zuen Luisek arratsalde hartan, bere peoi Polibiok, larrua salbatzeko hanka egin zionean.

Baltsako denda ibiltariari esker mantentzen zituen Guayaquil en ama eta arreba; irabazpidea ere handik ateratzeko asmotan zebilen, Alicia lehengusinarekin ezkontzeko. Horixe zuen bizi-jokoan zerabilen karta-sorta. Zein gizonek du beldurra, maite duen emakumea zain duela jakinik? Neskaren ile-korda arteko aurpegi argiak eta begirada beltz gozoak baieztatzen zuten, hitzik gabe, Luis ez zela kikilduko.

Denboraletik ihesi zihoazen hegaztien oihua entzun zuen, ikusi ezin den ilunpe garaietan. Eutsiko ote zuten zutoinek? Ezarian-ezarian, baltsatzarra alboratzen ari zen. Zur zaurituaren arima intzirika hasi zen. Tximista ugarien hegadak euri-jasa bezain bortitz bilakatu ziren. Ura orroka entzuten zuen, ia itsaso-erresakaren pare.

Bat-batean salto egin zuten apaleko botila eta latek. Zintzilik zen linterna dantzan hasi zen argi-ilunak pitzatuz. Zoruak ihes egin zion hanketatik. Baltsa erabat okertzen ikusi zuen. Tente jarri behar izan zuen, ez erortzeko. Ez zegoen zalantzarik: baltsa uretan behera zihoakion.

—Zaíno madarikatua, horrelakoa hintzan, beraz?

Jarraian, dendako anabasa hartan beldurtzeko moduko bizitzaz zebiltzan pote- eta pospolo-kaxa artean, Luis bizi-bizi erantzi zen. Bazekien aurrez egin beharreko joan-etorri bakoitza. Zutoinak erroetatik aterata egongo ziren,

ziur. Ibaia lapurtzen ari zitzaion bere merkatu-gaietako hamaika mila sucreak, bere bizitza eta bere ametsak, hondoaren hondoenera eramanez. Zoratuta bezala zebilen. Oihu egin zuen:

—Heu edo neu, Zaíno.

Erabat biluzik eta kalamuzko berrogeita hamar libera soka besoan hartuta, ur ilunetan murgildu zen. Beldurrak sabela estutzen zion. Baina Luisek argi zuen adoretzu izateko modu bakarra beldurra gailentzea zela. Mutikotan aitonari entzundako esakune hura zetorkion, errepika etengabe: «Jendea ez da alferrik galtzen sentitzeagatik, uzteagatik baino!».

Zaínoaren urak olio hotz likatsua ziren. Sokaren ertz bat baltsaren habe sendoenari lotu zion. Tximistek surtan zeuzkaten urak. Igeri egitean, estropezu egiten zuen urak zeramatzan guanchiche, ibai-uraza eta zainekin. Tximista baten argitara, baltsa zabuka ikusi zuen eta ohartu zen ibai ertzeko lau zutoinak askatu zirela. Aurrez aurre ziren, orain bai, bera eta ibaia.

Beldur guztiak joan zitzaizkion burutik. Ukabilen, besaburuen, sabelaren, altzairuzko bere izterren bultzadaz izan zezakeen aukera ñimiñoena baliatzeko premiak sutan zeuzkan Luisen begiak. Irabazten bazuen, ez zen izango bere kautxu gordinezko gorputzaren lorpena; adimenaren eta bihotzaren garaipena baizik. Ahapeka esan zuen:

—Ointxe; denakin!

Zaínoak, arima gaiztoko ibaiak, onartu egiten zion apustua. Kaiman usainetan zurrunbiloka zetozen olatuek oldartu eta inguratzen zuten. Iluntasunaren zorabiopean zegoen. Bere itxaropena izan zitezkeen ertzetako zuhaitz-enborrak, urrunegi ez, ezin iritsizkoak egiten ari zitzaizkion. Ito beharreko infernuak pasa zituen segundo batean. Hezur eta giharrak Zaíno

traidorearen ubideko lokatzetan hondartuko zitzaizkiola onartzera ere iritsi zen.

Halere, berrehun urteko laranjondo sendo bati bueltaka, kalamuzko sokak, tenkada burrunbatsu artean, baltsa gerarazi zuen. Luisen indarrak azkenetan ziren. Belaunak trokako lokatzetan markatuta zeuzkan. Ibaia, bere oinetan, moxal hezi berria putinka ari denean bezala ari zitzaion.

Tximistak euri-tantak bezainbat erortzen ziren. Zitekeena, bai, agian, ibai hartan sortutako hazi misterioetsuek haurdun uztea emakumeak. Egia, baita, halere, gizon batek, hala erabakiz gero, aurrez aurre garai zezakeela Zaínoa. Korapilo lakar hura, gero eta estuago, aska ezina egin zen. Gero eta itogarriagoa egiten ari zen kaiman kutsuko lur-hatsa. Luisek jirabiraka zuen burua. Ironia apur batez, pentsatzen jarri zen zein oinarri hauskorren gain jasotzen den giza adorea. Buztinezko ontzi bat eskuetan hartu, gorputzenborra eta burua jaso eta ahapeka atera zitzaion:

—Gizakiak edozein abere garai dezake, baita arima gaiztoko ibaia bada ere!

HAU DA MENDI-ITSASOEN IPUINA, ESPAINIA GABEKO INDIARREN ISTORIO BAT

Behin batean, Guayas gaztea, leinuz huankavilca, oihanean barrena sartu zen, zaíno¹³⁵ baten atzetik. Eta hain grina handiaz hartu zuenez ehiza, ohartzerako atzean utzi zituen, amildegia eta esteroak, zingiradiak eta ibaiak, sabanak eta muinoak.

Gezi-ontziak izter-saihetsetan jotzen zion; sutan gogortutako plazartezko uztaiare eskuan astintzen zuen gauchapelízko gezi batekin, jaurtitzeko prest. Basakanabera-sailen edo errege-palmondoen enbor artetik garbi entzun zituen tximino isekarien garrasiak. Baita atsedean hartzera gonbidatzen zuten perico ligeroen ahotsa ere. Zaínoa bera oihuka ari zitzaiola pentsatu zuen:

—Harrapa nazak, ahal baduk... Harrapa nazak, ahal baduk...

Haizeak, antxintxika, bekokiko kondor-luma zapaltzen zion. Luma hura, garai hobeetan, Andeetako Coyóctor-en¹³⁶ bere geziz botatako kondor batena zen. Orain zaínoa zuen aurretik: orduz ohartzeke, begi-bistatik erabat galdu gabe, baina harrapatzen utzi gabe, piztiak bila zeraman atzetik.

¹³⁵ (*Tayassu* spp.) Zenbait idazleren artean 'saíno' eta 'sajino' ere ikusi dugu idatzita. Ekuadorren, 50 cm arteko tamaina har lezakeen ugaztun espezie bat. Basurdearen antza du, baina buztanik gabea.

¹³⁶ El Tambo deritzon hiritik (Cañar probintzia, Ekuadorko hegoaldean) gertu dagoen gunea. Arkeologia balio handikoa da bertako 'Inkaren Bainu-tokia' deitu azterna-multzoa:erlijio-ospakizunetako gunea, ziurrenik.

Ilunabarrean hotza sumatu zuen. Zaínoa desagertu egin zitzaion. Atzera begiratu zuen: jaioterriko yungako¹³⁷ lautadetan Inti¹³⁸ hondoratzen ari zen: begi odolduzko Inti etsaia. Saihetsa inguratzen zion tincullparen¹³⁹ azpian, saltaka zuen bihotza. Han behean, mangle artean, itsasoa taupaka izaten den bezala. Ez zegoen beldurtuta: ezpain zulatuzko Guayasek, gizonen buruzagi dena ezin da beldur izan. Baina kezkatuta zegoen: haize hotzak, oihanik gabeko lurrek, harat-honat ibiltzen diren isats lodiko azeri ikaratiek ohartarazi zioten cañarien¹⁴⁰ lurretan zegoela.

* * *

Guayas gaztea –nola ez– beste Guayas baten semea zen: buruzagi nagusi eta aginte handiko gizon harena. Berau izan zen huankavilca haien aurpegiak, gerrarako seinale gisa, gudu-achiotez¹⁴¹ estali zituen aurrena, hegoaldeko

¹³⁷ Andeetako kulturako herrietan, mendikate horren hegaletan, altuera txikian diren ibar beroei ematen zaien deitura.

¹³⁸ Hego Amerikan, kultura kitxuarren eraginpeko herrietan, Eguzki jainkoaren deitura.

¹³⁹ Dantzari kitxuarrek bularretik zintzilik eraman ohi zuten metalezko xafla. Jaguar-buru edo abere-zantzuko giza buru baten irudiaz apainduta prestatzen zuten; irudiaren ahoak beste xafla fin eta luzeak izaten zituen zintzilik, dantzaren mugimenduari loturik, soinu erritmikoa ateratzeko.

¹⁴⁰ Ekuador hegoaldeko goi lautadetan –egungo Azuay eta Cañar probintzietan– kokatutako tribuko kidea. Ingapirca eta inguruko lurretan bizi ziren.

¹⁴¹ (*Bixa orellana*) Ameriketako lurralde beroetan ematen den zuhaitz-mota. Izena nahuatl hizkuntzako «achiotl»en gaztelaniazko forma bat da. Fruitu mamitsua du eta hazi ugariko landarea da. Hazi horrek, oliotan berotzean, ematen duen margo gorriagatik, Amerika osoan erabiltzen da sukalde-lanetan. Ekuadorren baita ilajea gorritz tindatzeko ere, egungo Santo Domingo de los Tsátsilas-eko «colorado»en taldeko indigenek, gaur oraindik ikus daitekeenez, egiten duten bezala (horretatik, izena), burualdea apaintzeko.

Inkak eskatzen zuen orein-, espezia- eta neskatxa-zerga ordaintzeari uko egin ziotenean.

—Ez dugu Quiton den bekoki berdeko shiriaren¹⁴² esanik egingo, ezta Cusco eta Tomebamban den bekoki gorriko Inkaren agindurik ere. Zer eskubide dute gu, itsasotik ateratako gizakiok, mendean hartzeko? Haien Inti edo Quilla¹⁴³ gurtzen ote ditugu bada? Gure jainkoa iparraldekoa da: Vizcilibuztli¹⁴⁴ du izena; gerraren jainkoa da eta gizakien odola edaten du, Thlaloc¹⁴⁵ jainko guztiak bezala... Ene seme-alabok, aska gaitezen Inkaren uztarpetik.

Eta ibai zuri handiaren iturburuetako ur tantak bezainbat urte bazuenez eta sabanako katagorrien pareko ilajea, bildutako leinu guztiek onetsi zuten Guayas zaharrak esandakoa.

Harrizko idoloak dituzten chongónek¹⁴⁶ eta guayacánezeko lantxadun dauleek¹⁴⁷, mangleetako huankavilca beldurgarriek eta burutik oinetara

¹⁴² Antzinan egungo Ekuadorko lurretan izan zen leinuko kidea. Shyri, schyri edota scyri ere idazten da. Quitutarren leinukoek caratarrei eman zieten deitura da, zehazki. Caratar hauek 700. urtean K.o. iritsi ziren egungo Ekuadorko Kostaldera eta, Esmeraldas ibaia jarraituz, Andeetako lurretara iritsi ziren, Quito inguruetara, eta erraz menderatu zituzten hango tribuak, agintea egungo Kolonbia, Peru eta Ekuadorko lurretan hedatzeraino, harik eta 1450ean inken inperioak mendean hartu zituen arte.

¹⁴³ Inken mitologian, Inti jainkoaren arreba eta emaztea. Jainkosa hau, ilargiak irudikatua, Intiren ondokoa zen inken panteoian, haren maila berean.

¹⁴⁴ Hitzez hitz, *'kolibri ezkerra'* zein *'hegoaldeko kolibria'* esan nahi du. Espainiarrak egungo Mexikora iristean, hauxe zen hango goi-lautadetan gurtza hedatuena zuen jainkoaren izena.

¹⁴⁵ Erdialdeko Amerikako erlijio náhuatl-culhua-n, euriaren eta emankortasunaren jainkoaren deitura.

¹⁴⁶ Espainiar konkistatzaileen etorrerakoan, Ekuadorko kostaldean hedaturik bizi zen leinu bateko kidea.

¹⁴⁷ Espainiarren etorrerakoan Ekuadorko kostaldean kokatu eta bizi ziren zenbait leinutako kideen izena. Era berean, Guayas itsasadarra sortzen duen ibaietako baten izena; bai eta Guayas probintzian kokatzen den hiri baten izena ere.

achiotez janzten diren chonana¹⁴⁸ odolberoek eta almadiaz ibiltzen diren golko urdineko puná¹⁴⁹ uhartetarrek borrokarako bilkura egin zuten mila urteko ceibo¹⁵⁰ baten gerizpean. Han elkartutako gudarien irrintzia beldurgarria izan zen eta goizak lehenik pizten dituen gailurretako elurrek dar-dar egin zuten izotza kraskatzeraino.

Kaleak jendez lepo dituen Tomebamba inperialak ere dar-dar egin zuen. Berria inken bideetan barrena zabaldu zuen kitxuar konkistatzaileak Tahuantinsuyo¹⁵¹ osora.

Cusco betierekoaren gaineko dorre zurietan, amauta¹⁵² jakitunak, aintzira behinenetik sortutako wari¹⁵³ handien semeak, galdezka ziren, aimaren¹⁵⁴ hizkuntza astunean:

¹⁴⁸ Espainiarrak konkistakoan egungo Ekuadorko lurretara sartzean, egungo Chone ibaiaren ertz eta bokalean kokaturik bizi zen indiar-leinu bateko kidea.

¹⁴⁹ Guayaquilgo golko izen bereko uhartean bizi zen leinuko kidea; tumbes izenez ere deitzen zaie. Espainolak iritsi aurretik, gai izan ziren inkei aurre egin eta menpe ez erortzeko. Haien izaeraren adibide argia izan liteke geroago uharte horretan atxilotu eta herio-zigorra eman ziotela Vicente de Valverde, Cuscoko lehen apezpikuari (1541).

¹⁵⁰ (*Erythrina crista-galli*) Ameriketako zuhaitz mota. Oso deigarria egiten da ematen dituen bost hostoko lorengatik. Estimua handia diote Ekuadorko Kostaldeko lur beroetan, urte asko eta asko irauten duelako eta egiten duen gerizpe zabalak ipuinean aipatu bezalako bilkurak egiten laguntzen duelako.

¹⁵¹ Inken agintaritzapean, XV eta XVI mendeen artean, Hego Amerikako Andeen mendebaldean hedatu zen estatua. Bi milioi inguru km koadroko zabalera zuen Itsaso Barearen eta Amazoniako oihanen artean, Pasto (Kolonbia) inguruetatik hasi eta Maule (Txile) ibairaino.

¹⁵² Kultura kitxuarreko herrietan, adin eta eskarmentu handiko gizonak osatzen zuten kontseiluko kidea. Berez agintariak izan ez arren, aginte morala eta ahalmen batzuk ere izaten zituzten.

¹⁵³ Gure aroko 600 eta 1200 urteen artean Andeen erdigunean, egungo Peru eta Boliviako lurretan hedatu zen zibilizazioa nahiz bertako kidea.

¹⁵⁴ Egungo Peru eta Bolivian zabaldurik, Titikaka aintzira inguruko eremuetan zabaldutako arraza, kultura eta hizkuntza.

—Zein dira basatiok, esaneko ez egiteaz gain, inperioko bakea nahasten ari direnok?

—Lur beroetako tribuak dira: Tomebambatik mendebaldera bizi direnak. Iparreko gizakiak direla diotse eta jatorria, diotenez, maietan omen dute: bi itsasoen arteko lur-mihia baino harago bizi diren gure senideetan.

—Quitoko shiriek, gure etsaiek, duten uste bera?

—Bai, baina Quitokoak ez bezala, hauek basatiak dira; beren esku bizi dira, kipurik¹⁵⁵ eta ayllurik¹⁵⁶ gabe. Ez dituzte lurak lantzen. Eta hiriak, guk ez bezala, amautarik gabe dauzkate...

—Ezin dira gure senide maia jakintsuen oinordeko izan.

—Quitokoak, halere, bai, laster Tahuantinsuyoren mende egongo baitira, cañariak bezala.

—Basatiak izanagatik, huankavilcak ere inkaren indar garai ezinaren menpe jarriko ditugu.

Lainoak igaro ziren dorre zurien gainetik: ezkutatzen ari zen Intiren argiz jantzi eta ama Titikakaren haize firfirak bultzatzen zituen laino gorritzak. Amauta jakintsuenek, ordea, ez zituzten iragarpentzat hartu.

* * *

¹⁵⁵ Andeetako kultura duten herriek erabiltzen zuten mnemoteknia-sistema: kolore eta luzera desberdineko soka eta korapiloen bidez, kontabilitatea eramateko erabiltzen zuten *'kipukamayuk'* deritzen jakintsu inkek. Horretatik izena ere.

¹⁵⁶ Jatorria Andeetan duten herri indiarren antzinako biziera; kultura esanahia ere eman dakioke hitzari. Jatorri bereko sendi zabalean eta taldean lan egin eta guztien jabetzako lurrean bizi diren gizon-emakumeek osatutako erkide arteko biziera eramaten dute. Guztien arbaso edo totemtzat hartzen den jatorri bereko ondorengoien familia-multzoa ere adierazten du.

Gau hartan Guayas gaztea atxilotu zuten cañariak. Gorputz-atalak cabuyaz¹⁵⁷ estutu zizkioten eta kondor-luma kendu, bekokitik. Yunga beroko gizona zen eta, mortuan zehar inkaren gudarien erdian loturik zeramatemala, haragian sartzen zitzaizkion hotzaren hortzak. Egunsentian Tomebambara iritsi ziren. Guayas irainka ari zitzaien atxilotu zutenei, epaituz:

—Kanpaleku handi, beldurtien bizitoki!

Eta Guayasek cañarien hizkuntzan hitz egin zenez, besteek zera ihardetsi zioten:

—Cañariok Tahuantinsuyoren zibilizazioa daukagu; hiria amautez gainezka dugu. Huankavilcak basati-multzoa besterik ez dira.

—Gizonak emetu egiten dira, bizitzeko kanpaleku egonkorretan ixten direnean! Cañariak Inkaren esaneko kitxuarren morroi dira! Cañariera utzi egin beharko dute! Nagusien aimara ezarriko diete! Jakintsuak izango dira, baina ez gizonak!

—Itxi zak zakur-ahoa, runa¹⁵⁸ kirtena!

Hiri handiaren zaratak zorabiatu egiten zuen. Gizon-emakumeek lllamingo¹⁵⁹-ilezko soinekoak zeramatzaten: bera biluz zegoen, achiotez soilik estalia. Herri xumea biltzen ari zen etsaia ikusi-minez. Inken kobrezko armek eta

¹⁵⁷ (*Agave sisalana*) Hego Amerikan ematen den gure arteko pitaren antzeko landarea. Ematen zaion erabilera ere gurearen antzekoa da: lokarriak egiteko. Are gehiago, lokarriari berari ere herriak hala deitu ohi dio sarritan.

¹⁵⁸ Kitxueraz, gizakia. Ekuadorren, behintzat, arraza zurikoek mespretxuz eta iseka gisa erabiltzen duten espresioa, halako hori azkenen artean azkena dela adierazteko. Idazleak, testuingurua baliatuz, zurion jokatzeko eskema darabil beren beregiz, ezinezkoa baita indiar hizkuntza eta kulturako batek irain gisa erabiltzea, haiek ez diotenez hitzari adiera negatiborik ematen.

¹⁵⁹ (*Lama glama*) Ekuadorren, hegoaldeko lurretan, llama ugaztun ezagunari ematen zaion deitura.

gudu-tresnek diz-diz egiten zuten eguzkitan. Merkatuetan patata, motea¹⁶⁰ eta lur hotzetako fruitu usaintsuak pilatzen ziren. Huankavilcak ahapeka ziotson setati:

—Kanpaleku handi, beldurtien bizitoki!

Hiriko gobernadore inkaren alabak jauregi aurretik zeramatela ikusi zuen preso zakar hura eta maitemindu egin zen hartaz. Inudeak lagunduta, ilekorda luzeko zaintzaileak erosi zituen, ziega ilunera sartzeko, gertutik ikusi nahiez.

—Intiren alaba, zer nahi duzu?

Neskak aimaraz erantzun zion. Huankavilcak ez zion ulertu. Baina ahotsaren doinua bihotz muineraino sartu zitzaion: ahots fin eta goxoa zuen eta inoiz entzun ez zuen ahoskera. Eta arroxaz zen, hodeien haragia bezala Intiren jaiotzakoan.

—Zure zori txarrak gupidatu nau. Horregatik etorri natzaizu.

Cañarieraz erantzun zion:

—Ez dizut ulertzen. Hitz egizu, baldin badakizu, iparreko hizkuntza batean.

—Triste al zaude kartzelan?

—Sutan nago: lur beheretan bizi diren itsasoko gizonen hartuko dute nitaz mendekua. Haietako bat naiz: itsasotik ateratako gizona.

—Eta zer da itsasoa?

—Itsasoa...

—Zer da?

¹⁶⁰ Latinoamerikan, Andeetako lurretan batik bat, landatzen den arto mota. Hitzak landarea bera zein artalea adieraz ditzake. Arto arruntak baino ale handiagoa du eta hango sukaldaritzan, egosita jateko erabili ohi da gehienbat.

—Urdina da: nire baltsa itsasoaren azala ebakiz lihoakeen alaba bezala da uretan; nire arrauna, ezpata bezala. Itsasoa ama da. Laztanka edota marmarka izaten da. Ertzetara mangle-lore horiak ekartzen ditu. Haren altzoan lo hartu nahi nuke! Ahoa haren gozo mikatzez betea eduki...

Neskak burua jaitsi zuen, begiratzeko.

—Nik ere maite dut itsasoa. Ezagutu nahi nuke. Ihes egin dezagun. Eraman nazazu. Maite zaitut...

—Zuk ni maite, etsaia izanik? Zuk ezpain zulatuko Guayas hau maite? Zuk, azal zuriko cañari horrek? Isekaz zatozkit, Intiren alaba? Ez dakizu hil egingo nautela?

—Ez nator isekaz: maite zaitut. Nahiago zaitut kobrez estalitako edozein gudari inka baino, edozein barbaro belarri-handi baino. Maite zaitut.

Eta gau beltzaren erdian, urruneko mendi-elurak besterik zuri ez diren gau batean, ile-korda luzeko zaintzaileak engainatuz, biak ihesi joan ziren. Tomebamba inperialak, muino arteko arroan kokaturik, elurrezkoa zirudien haien atzean.

Haizeek jotzen zituzten mortuak zeharkatu zituzten. Mendien isuri hotzak jaitsi zituzten. Amildegi eta leizeak gainditu zituzten. Arratsalde batean hondoa harrizkoa ez zuen ibaiaren ertzera heldu ziren: ur ilun geldoak zituen. Han hasten ziren oihan beroak.

Aho biko harrizko aizkora egin eta enborrak bota zituen. Zapán lodiz lotu zituen. Eta ibaian behera abiatu ziren biak baltsan.

—Beroa, Intiren alaba. Sukarra duzu?

—Sukarrez nago, itsasoagatik eta zure alboan egoteagatik, itsasoaren seme. Egunak eman zituzten ibaiak astiro zeharkatzen: lautadako lur malguetan ubideak irekiz, gero eta zabalagoak ziren lur beroetan. Guayasek kaiman

erraldoien aho sendoak, tigre motadunen buru motz zarpailak, sobrecama¹⁶¹ bilduen larru latza, iguana pozoitsuen burua eta equis rabo de huesoen lepo malguak kolpatu zituen. Ontzia zurrunbiloetatik eta kontrako uretatik gidatu zuen endai-zabaleko arraunaz.

Eta, azkenean, ibai zuri handira atera ziren. Huankavilca arrantzaleen tribuekin elkartu ziren. Baltsak atzean utzi zituen mangladiak eta gazteak punáen uharte ondotik igaro ziren. Guayasek besoa luzatu zuen eta, xalotasunez, betiereko itsasoa erakutsiz, hauxe esan zion betiereko mendiak besterik ezagutzen ez zituen neskatxari:

—Hauxe da itsasoa.

* * *

Hau da mendi-itsasoen ipuina, Espainia gabeko indiarren istorioa

¹⁶¹ (*Boa cenchria*) Boen familiako sugetzarra. Erdialdeko Amerikatik hasi eta Argentina iparreko oihanak bitartean aurki liteke.

USAIN GALKORRAK

—Gonzalo! Gonzalo! Zatoz!

Nesken jantziak, argi-itzal mehe hartan, garden ageri ziren. Hemezortzi urteko Maria Teresagandik hasi eta sei urte baino ez zituen Maria Ligia arte, zazpi tutu lerdeneko zarpoina baten gisako ilara osatzen zuten.

Alde batera egin nion liburuari, leihoko kristaletik begiratzeko. Zuhaitzak errainu lilaz inguraturik zabaltzen ziren. Ireki nuen balkoia. Kanpoko hozkirria mila lurrinen aireaz zetorren, mendarenaz bereziki kutsaturik. Ertzera atera nintzenean, lehengusinek lorategitik deitu ninduten.

—Gaugiro aparta dugu, Chalo: jaitsi!

—Orain ez, zazpi antxumetxuok! —erantzun nien— Irakurtzen ari naiz.

—Zatoz, goazen ibaira, afaltzera deitu aurretik.

—Benetan ariko bazinete, jaitsiko nintzateke...

—Laguntzen badiguzu, piper egingo dugu. Ikusiko.

Amonaren baserrian ginen, ohi bezala, oporretan. Maitea zitzaigun txiki-txikitatik capulí-¹⁶², lorategi-, abaraska-usaina zerion etxe hura, hirustazko erreka-ertzak zituen errotaren zabalgunea... Merezi zuen, iruditu zitzaidan, tarte batez irakurraldiaren mundu magikoa ibaiagatik uztea.

Ahots berria altxatu zen txantxaka.

—Eta fidatu egiten zara emakumeek promestutakoaz?

—A, horretan zarete? Orduan ez naiz joango.

¹⁶² (*Physalis pubescens*) Ameriketako zuhaitz mota. 15 m inguruko altuera har dezake eta usain gozo eta estimu handiko fruitua ematen du.

—Ez diozu, bada, Eva odol-hotz horri kasu egingo!

—Ez erreguka hasi! Joango gara, Ama Doloretakoagatik, alafede!

Begiak itxita ere, bereiz nitzakeen nire lehengusinen ahotsak. Erakargarria zitzaidan, erreka bera baino areago, mintzo zitzaidan neskatoa: Maria Estela, neronen hamahiru urte berak zituena. Egun berean eta guzti jaio ginen, ia ordu berean, gainera.

—Ilargi betea zuritzen ariko da errekaen beste ertzeko sigsia¹⁶³...

Bazekien Estelak gustukoa nuela, oso, erreka. Ezagunak zituen nire mainak. Ongi zekien —bai ote?— aurrena bera zela, nire ustezko apaiz-bokazioarekiko lehian. Agian, gainera, biok genekien bagenekielan.

Atera nintzen gelatik eta saltoka jaitsi nituen mailak. Zeharkatu nuen atondo iluna eta atera nintzen aire zabalera. Lorategiak, belarrak, aireak, neskatilek eta arrosak —guztiek— menda-usaina zuten niretzat. Lehengusinak, nire begi berrizaleentzat, agerkunde baten pareko ziren.

—Horrela, hain isilak, Grial Santuaren aingeru guardakoak zinetelakoan nengoen.

Maria Evak trufaka erantzun zuen:

—Celeste bai jar dezakezula aingeruen artean, santatxoa delako; edo Ligia ere, txikitxoa delako; ez, ordea, Estela, carishina¹⁶⁴ da-eta; ezta Remigia ere, handia izan arren, oraindik ohea bustitzen baitu. Are gutxiago Zoila, chola-itxura horrekin, deabrua bera ematen duelako!

¹⁶³ Kitxuerari hartutako mailegua. Ekuadorren, ezaugarri zehatz batzuk dituen lur mota bat adierazten du: lantzeko oso erraza eta ura erraz iragazten duena, alegia.

¹⁶⁴ Kitxuerazko hitza. Ekuadorren emakume buruarina adierazteko erabiltzen da.

Zoila hau neskame indiar txiki bat zen: ilea motz ebakita, cocola¹⁶⁵ bat.

Remigia, bat-batean, eztena sartu baliote bezala atera zen:

—Ezta zeu ere; armairutik pioquintoa¹⁶⁶ lapurtzeaz gain, mojekin txutxumutxuka ibiltzen zarelako!

—Isil zaitezte, zuntzunok! —moztu zuen Teresak— Goazen azkar ibaira.

Abiatu ginen korrika baratzean barrena. Eskutik helduta gindoazen, arnasestuka, alai gauagatik eta gure urte laburrengatik. Jaitsi genuen bidezidorra. Txaboletako argiak ezkutaketan zebiltzan enborren artean. Eskutadaka bezala sakabanatuta, ninacuroek¹⁶⁷ argitxoaz beterik zeuzkaten orbel arteak.

—Hau menda-usaina! Sumatzen? —galdetu zuen Estelak.

Teresak itoka erantzun zion, korri egiteari utzi gabe:

—Pila dago. Amonarenak dira. Berak landatu zituen...

* * *

Tamaina guztietako harri pila —biribilak nahiz zapalak, leunduak edo goroldiotsuak— zuen hondartza-bazter batera atera ginen. Estela isildu egin zen. Haren urratsak eta nire bihotz-taupadak batera zihoazen. Erakargarri egin zitzaidan... inoiz baino gehiago, inoiz baino bizkorrago. Bat-batean nigana itzuli zuen aurpegiaren harzuri zoragarria.

—Gonzalo, zer da Grial Santua?

¹⁶⁵ Kitxuerazko hitza; '*neskato*' adierazi nahi du.

¹⁶⁶ Ekuadorren, ardo zuriz, arrautza-gorringoz eta beste osagai batzuek egiten den gozokia.

¹⁶⁷ (*Lampyrus noctiluca*) Ekuadorko mendietan aurki daitekeen intsektua; '*candelilla*' eta '*carbunco*' izena ere ematen diote. Gorputzeko azken segmentuetatik argi bizia dario. Horretatik, arestian aipatu berri ditugun bi izenok.

—Jose Arimateakoak gure Jaun Jesu Kristoren odol santua jaso zuen urrezko edontzia; Espiritu Santua ere irudikatzen du. Jainkoak lur honi utzitako seinalea, ideala... —esan nion apur bat nahaspilatuta, azalpen garbirik ematen ari ez nintzelako susmoaz.

Ibaiaren betiereko doinuak ilunpeetara bultzatzen zituen apar multzoak.

—Zein liburutan irakurri zenuen Grial Santuaren hori?

—Mahai Biribileko Zaldunak izeneko batean: Arturo Erregearekin batera, hura berreskuratu nahiez, bila zebiltzan hamabi gerlari ziren.

—Nortzuek zeukaten bada?

—Mairuek... edo fedegabeek. Baina hobe, Estela, emango dizut, zerorrek irakur dezazun.

Mendaren usain gozoa gero eta nabarmenagoa zen.

—Hau gaua! Uztail betean gaude, oporren erdian! —bota zigun Teresak, harri handi batean eseriz.

Atzera egitean, xala askatu eta bularrak jaso zitzaizkion, jantzitik atera nahiez bezala. Zorabiatuta, beldur nintzen haiei begiratzeko bekatuagatik. Barrena arindu nahiez, urrian garbituko nintzela pentsatu nuen, eskolak hasi aurretik aitortzera joanda. Eta Estelaren bularrak nolakoak ote ziren? Ez baitziren horrela oldartzen! Ia etsipena eman nion neure buruari nire gaiztakeriagatik. Handinahizko irrikak eraginda, harropuzkeriatan hasi nintzen:

—Grial Santua oraindik lurrean balego, haren bila joan eta borrokatuko nintzateke berreskuratzearren.

Teresak, begiratu batez, agerian utzi ninduen:

—Orduan, zer izan nahi duzu: soldadu ala apaiz?

Galderak nahasita utzi ninduen. Ikusi ez arren, Estelaren begi gozoak sentitu nituen jakin-minez eta liluraz beteak.

Haize fin batek kulunkan zerabiltzan eukalipto, haltz eta intxaurrondoen adaburuak. Bat-batean, ohartu nintzen menda-usain gozo hura Estelari – ileari, ahoari, gorputzari, jantziei– zeriola.

—Ez dira baratzeke belarrak, zeu zara menda-usaina duena!

—Lehen orri batzuk mastekatzen jardun dudalako izango da...

Jaso nituen begiak lehengusinagana eta berak, lotsarren gorrituta ere, begiradari eutsi zion. Teresak barre txikiak egin zituen, zergatik esan gabe.

Gero jarraitu zuen:

—Ez da mastekatu dituzun orritxoengatik bakarrik... denok dugu geure-geurea den usain bat; eta zuk, Estela, beti duzu menda-usaina.

—Ez dut deus sumatzen, ñaña¹⁶⁸. Zuri, ordea, beti darizu banilla-usaina...

Usna iezaiozu, Gonzalo, ilea, aurpegia, belarria.

Hurreratu nintzaion eta, ustekabean, nire masailak Teresarena ukitu zuen.

Egia: banilla-gandu sakon beroa zerion. Yungetako haziendetan diren arboladi beroak gogoratu zizkidan. Maria zen nire zazpi lehengusinetan handiena: luxea, bejucoaren pareko gerria, ezpain pipilduak eta kanelazko azal urreztatua.

Baina Teresaren usainak odola berotu zidan. Erakargarria egin zitzaidan.

Gonak jasota, inoiz erreketako ibiak zeharkatzen ikusi nituen neska indiarren izter lodi, leun eta ilunak gogorarazten zizkidan; edota, gerritik gora arropak kenduta, bular lodi beltzaranak eguzkitara, erreka-ertzetako harri labainetan arropa jotzen zuten lixiba-ginak.

¹⁶⁸ Hitz honek (ñaño/ñaña) Ekuadorren, senidea nahiz adiskide oso kuttuna adierazten du. Lagunarte eta familiako hizkeran erabiltzen da.

* * *

Egiaz, hain ote nuen amarena nire apaiz izateko promesa? Harengandik jaio zitzaidan, zalantzarik gabe. Baina nire grinak, nire erabateko eskaintzak egiteko irrikak, nire burutazio eta irakurketek neure-neure egin zuten ia-ia berez. Gogoan dut apaiz izan nahi nuela santu izatera iristeko.

—Santutxoa! Handitan santu txikia izango da eta mirariak egingo dizkigu...

—Poxpolina! San Luis Gonzaga bera dirudi!

—On puska! Aingeruen ñaño txikia!

—Eta nolako debozioro otoizten duen! Ez dago horrelako besterik!

Larunbat goizetan, eskaleek nire limosnak jasotzean, etxeko atarian botatzen zituzten lausenguen soka luze horrek eragina zuen niregan. Ez ninduten harropuzten. Mistizismora eramaten ninduten baizik. Neskameek beraiek ere horixe berresten zuten:

—Salbea errezatzen entzun diote! Nolako debozioro! Andre Mariarentzako jaiera du.

Oheburutik Ama Birjinaren irudi bat nuen zintzilik. Leonardo da Vinciren «Hostiaren Ama Birjina» koadroaren kopia bat. Nire amaren irudi edertutzat nuen. Liluretan jartzen ninduen oheratzean eta pozarren, esnatzean. Aurpegi hura, niretzat, froga bizia zen munduan garbitasunak eta duintasunak tokia dutena.

—Agur, Erregina, ama errukiorra...

Bost urte nituela, eskeko agure indiar bat ikusi nuen. Astebetez ia ezin izan nuen lorik egin. Berbetan niharduen. Horregatik, aurpegi koipetsua, zornez beteriko zauriak, zorriak eta tonto-begirada zituen arren, ez nuen onartu asto, ardi edo zerrien moduko aberetzat hartzerik.

Segituan ikusi nuen herdoil hark ez zituela eskaleak soilik jaten. Indiar guztiek egoera bera bizi zutela baizik... hori bizitzea bazen: lurrezko txabolak, arropa zarpailak, gosea, lanaz leher egindako txikitxoak. Kapelagileak begietatik odola zeriela eta besteak ahotik jaurtitzen... nire amesgaizto bihurtu ziren. Nork, Jesus Jaunak eta haren Ama Santisimak baino, sendatu ahalko zuten, beren aurkako biraoa zen gaitz hura? Aita Mortier-ek Maria Estela eta bioi batera irakasten zigun irakurtzen. Txokolatezko gozokiak eta santu-santen irudiak ematen zizkigun. Polinesiako eta Afrikako gizon eta emakume basatiak biluzik bizi zirela esaten zigun, inork ez zielako kristau fedea hots egin. Hari esker jakin genuen bi poloak izoztuta daudela eta urte erdian egun argiz direla eta bestean, gau beltzean. Bene-benetan, nik santu izan nahi nuen.

HARAT-HONAT, AZKENEKOZ

Herrira sartu aurretik, errepideak zubi bat zeharkatzen zuen. Behean, amildegia bideratuta, ibaia zihoan. Heinrich baranda-ertzetik begira jarri zen. Behera botatzeko burutazioa bazuen ere, ez zuen leizearen erakartze famatu hura sumatu.

—Hau da Guadual?

—Hauxe, patronsito; zubia pasata —erantzun zion indiarrak irribarre batez. Arreka ari zitzaion astoak ere, Heinrich-en aburuz, irribarre bertsua egingo zukeen.

Norbaitekin hitz egitearren bakarrik galdegin zion. Ezagutzen zuen Guadual: ilunabar hotz hartan, eukaliptoaren kedar-usaina zekarkion teilatu gorri eta etxe zurizko herria.

Begia kendu gabe jarraitu zituen une batez indiarraren tximajea, pontxo zaharkitua, orpoak...

—Ni baino okerrago zagok hori! —pentsatu zuen berekiko.

Eta ohartu zen, luzez ia espainiera hutsean ari eta gero ere, ez ziola alemanez pentsatzeari utzi.

Kalexka-hasieran auto bat zegoen. Heinrich buruhandi ageri zen gurpilaren apaingarri kromatuan. Ile eta bizar nahasien artetik zurbil nabari zituen bekoki-masailak. Kanean sartzean, nazkagarriena zitzaion bainatu gabeko bere gorputzaren kiratsak jota utzi zuen. Zirikatzen zuen gose lotsakorra bezain jasan ezina egiten zitzaion.

* * *

Azken bi egunetan, Cuencatik atera zenetik, ez zuen ogi-puskarik eraman
ahora. Guayaquilerantz zihoan oinez. Ekuadorra iristean, Cuencan jarri zen
bizitzen, han bizi baitzen Walter Nussbaum, aitaren anaia, naziek agintea
hartzean ihesi etorria. Ihesi atera zenean, bizikleta bat eman zion opari
Heinrich-i. Hamasei urte zituen une hartan.

Nussbaum-darrak, jostailuen industrian ziharduten aspaldidanik
Nuremberg-en. Giro atseginagatik eta bakeagatik, Walter-ek gustukoa zuen
Cuenca. Lantegitxo bat jarri zuen. Ongi zihoakion. Berak baino hogeita bost
urte gutxiago zituen Rosita Heredia neska ekuadortarrarekin ezkondu zen.

Walter-ek beso-zabalik onartu zuen Heinrich. Lana eman zion. Etxean hartu
zuen. Hasieratik bertatik, ordea, ez ziren ongi moldatu. Heinrich-ek
belarrietan zuen beti aitaren anaiak botatzen zion errepika amaigabea.

—Ekuadortarrak baino okerragoa haiz! Indiarren parekoa! Ni ez edukitzera
Ameriketara, goseak akabatu hintzen honezkero.

Azkenean hautsi egin zuten. Heinrich isilik geratu zen. Walter oihuka hasten
zitzaion ezagun guztien aurrean. Cuencan ziren beste judu apurren
esanetan, izango zuen zerikusirik eztabaida hartan Nussbaum-darreneko
zaharrenaren emazte gazteak.

Cuenca berrogeita hamar mila biztanle eta ehun eliza katolikoko hiria zen.
Juduenganako ezinikusia ez zegoen arrazari lotuta, erlijioari baizik. Eta
Heinrich-ek ez zuen lana aurkitzerik lortu.

Ez zuen alde egin, ordea. Lehendabizi, lanbide baten itxaropena zuen. Gero,
sosik gabe geratu zen. Jateko, hala-hola saldu zituen estilografika, jakak eta
frantsesezko liburuak. Alemanezko liburuak, alabaina, ez zituen inork nahi.
Miseria gorria, nolnahi ere, azken hilabetean bakarrik etorri zitzaion.

Bat-batean, lur jota geratu zen: ogirik gabe, aterperik gabe, piltzarretan. Heinrich-en txukuntasuna, irakurtzeko grina, emakumeei hain erakargarri egiten zitzaien inoiz erabat zabaldu gabeko ameslari-irribarre hura... dena pikutara joan zen. Ez edukitzez, kalerik ere gabe geratu zen, mukizuak atzetik etortzen baitzitzaizkion harrika:

—Hara, hara gringo eroa!

—Judua! Judua! Hik hil huen Jainkoa!

—Beira, entzun nola ai den be kasa.

Kankailu bati entzun zion azalpenak ematen:

—Be lurretik bota izkiate Jainkoa hil tzutelako!

Zubipe batean, hondarrezko ertz batean lo egiten zuen. Egunkari batzuek eginahalak eginda ere estaltzen, hotzak jota egoten zen. Poliziek uxatu egiten zuten. Ez jateak, izarpean bizitzeak eta bakardadeak apur bat itxuraldatuta zeukaten bere ustez.

Arrazakeriak kaltetuetako bat izan arren, bere buruarekin haserre egoten zen, indiarrentzat, nahi gabe ere, zuen nazkagatik. Arratsalde batez, ogia saltzen zuen emakume indiar zahar batek atera zuen bat otarretik eta ama-begirada zabaletan bildurik eskaini zion.

Espaloi ertzean zegoen eserita. Harri eta zur eginik, giza itxurarik ere hartzen ez zion aurpegi hartatik nola hala kendutako lokatzari erreparatu zion. Zalantza izan zuen. Salto batez zutitu eta korrika abiatu zen, ogia sabelean estutuz eta oihuka negar eginez, Karmengo auzoa, une hartan eguzkiaren urrezko itzaltze geldotan pausatua, gizonaren intziriengatik aztoratzeraino.

* * *

Guayaquil urrun geratzen zen bere oin nekatuentzat: Nuremberg hura edota zoriotsu bizi zen Aathenan Strasse 27ko etxea bezain urrun. Bere kalea, naziek izena aldatu ziotenetik, Rosenberg Strasse zen. Odol palastaz estalita zeuzkan oroimenean ihes egin eta Ameriketara etorri aurretik han bizi behar izan zituenak.

Ibiltzeari ekin zionean, laborariei lagunduz ogia irabazteko ametsa zuen. Ez zuen, ordea, inork lan egiten! Izurri bubonikoak hondatu zituen landa-lurrak. Txabola hutsak besterik ez zituen topatzen. Zakurrek eta curiquire¹⁶⁹ harrapariak borroka-gai zituzten sarraskiak baino ez zituen aurkitzen. Gailur urdinen gainetik ke beltzezko mordoiloak altxatzen ziren: Osasun-Zerbitzua erretzen ari zen izurriteak jotako ukuilu-etxeak.

Lanturuka eta mozkor, beren hildakoei lur ematera zihoazen laborari-taldeekin gurutzatu zen. Erostariek jan-edanean ziharduten. Eskatu balie, ziur emango ziotela. Baina Heinrich harroegia eta lotsatiegia zen eskean aritzeko. Ordura arte, gainera, lapurtzeko zirikadak baztertzea lortu zuen.

* * *

Guadualera sartuko zela erabaki zuen, azkenik. Kalekan aurrera egin zuen. Belarra hazten ere entzun ahalko zen bakardade hartan. Mendi-lepoek, geldirik, zorabiatzerainoko hegan nabarmentzen zituzten hodeiak. Horma, itxitura, ate, argi ahul haiek... guztiek inguratzen zuten Heinrich, baraualdiaren errainu hauskorren dardara-lainotan.

¹⁶⁹ (*Phalcoboenus carunculatus*) Bere aurpegi biluziagatik, gure putrearen antza duen hegaztia. Hego Kolonbian eta Ekuadorko Andetan hedatuta dago. Inken hegazti sakratuetako bat zen.

Ubideak, murmurioka. Atsegin zuen Erdi Aroko erreken antza zekarkion Andeetako herrixketako errekaen jarioa.

—Alemania! Alemania! —atera zitzaion ahapeka.

Alemaniatik larrimina herri horrek berak hil zion amagatik nahigabeaz nahasirik bizi zuen.

Zakur batek zaunka egin zion horma atzetik. Otorduaren beroa usnatu zuen. Kale batzuk barrurago, elizako kanpaiak ordua jo zuen. Harri oso astun baten pareko zerbaitek estutzen zion sabela. Hautsez jositako horma hotz bati heldu behar izan zion.

—Jauna! Señorsito! Lagun iezadazu...

Emakume bat zen txabolatik irteten: laborari ez-indiarra, chazo¹⁷⁰ deitzen dioten nekazari horietakoa. Luzea eta zuria zen. Gona iluna zeraman. Zapi handi batez estaltzen zuen burua. Sorbaldan behera ile-korda luzeak erortzen zitzaizkion. Ahotsa dardarti atera zitzaion:

—Jainkoarren!

—Andrea, lagundu nahiko nizuke... Baina esan, zertan.

Emakumea negar-zotinari eutsiz ari zitzaion:

—Jainkoak ez du utziko zuri ezer gertatzen... Baina beldur bazara, hobe izango da ez...

Heinrich-ek ia ezin zuen hitz egin. Jada ez zen ari dardaraz. Masailezurra zuen orain lotuta:

—Ez izan beldurrik. Lagunduko dizut. Zer egin behar dut?

¹⁷⁰ Ekuadorko hegoaldean kokatzen den Loja probintzian bizi den jendalde berezia. Espainiar kolonia garaian, hauen aurrekoek jendeztatu zuten lurralde hura. Bertakoen eta agian jatorri arabiarreko jendearen arteko nahasketatik sortutako giza talde berezia osatzen dute.

—Senarrari lur ematen lagundu; arratsalde honetan hil zait. Bakarrik nago, bakarrik... Biok bakarrik ginen bizitzan. Nik, nik... ez dizut gezurrik esango: izurriagatik hil da...

Emakumea gehiago hurreratu zitzaien.

—Jesus! Baina zer gertatzen zaizu? Izurria duzu?

Heinrich-i aurpegia gorritu ez bazitzaion, jadanik odolik gabe zegoelako izango zen. Hitz-totelka, gosea aitortu zion, oinez egiten ari zen ibilbidea... Emakumeak besotik heldu zion. Etxe barruan kandela gorritzat bat zegoen piztuta. Zihozko kriseilu batek hilotzaren burualde zorrotza markatzen zuen. Pilaturik, baina nahasteke, altamiza¹⁷¹ erreen usaina eta soineko zikin nahiz sukar-hats gordinena pilatzen ziren.

—Zerbait jan behar duzu. Bestela, ez duzu indarrik izango. Ez, ez da eskatu didazulako: neurez eskaintzen dizut, ez ordain- edo limosna-legez. Pobreok lagunduko ez bagenio elkarri!

—Ezin da dirurik hartu lur emateagatik, lurperatzailea ez izanik.

—Nazka ematen dizulako?

La izutu egin zen chola haren fintasun zuhurragatik.

—Ez, ez da hori. Baina, egingo dut, andrea.

—Nire izena Rosa da. Ez zara hemengoa ezta?

—Nire izena Enrike da eta oso naiz urrutikoa.

Hura halabeharra, andreak Walterren emaztearen izen bera izatea! Ez zion aipatuko judua zela. Pontxo batek estaltzen zuen, lurrean zerraldo zegoen gorpu sendoa.

¹⁷¹ (*Ambrosia peruviana*) Urtetik urtera jaiotzen den zuhaixka. Zurtoinetatik adar ugari ateratzen zaizkio, hostoz beteak. Landa-inguruetakoko herritarrek beren etxeetan erretzen dute, usain atsegineko kea egiten duelako eta, bere gaitasun ugarien artean, desinfektatzailea ere badelako.

—Ez gara hemengoak; Cuencakoak gara. Horregatik ez dugu hemen senide eta ezagunik. Etorri berriak ginen chacratxo¹⁷² bat lantzera.

Heinrich-ek ez zekien zer esan. Rosak erantsi zuen:

—Zatoz kanpora eta hartu gure cucayotik¹⁷³.

Ilargiak, sekulakoa eginda, zeruan gora egin zuen. Rosak atariko lurrezko jarlekuan eserarazi zuen. Heinrich-ek astiro jan zituen arto egosia eta zezina. Bukatutakoan, zuloa egiten hasi ziren arta soroan, txabolaren atzealdean. Gizonak zuloa egin eta emakumeak erretilu batez ateratzen zuen lurra. Jatekoak eta ahaleginak beroa eman zioten Heinrich-i.

—Sakon egingo dugu, zakurrak ez daitezzen uxarrean aritu.

Hildakoari atsedean eman ziotenean lurraren eta txotxez bertan egin zuten gurutzearen azpian, egiteko guztiak burutu eta gero, gauaren isiltasuna erori zen —berdexka, bubonikaz jantzita— bien gainera. Une hartan elkarren beldur zirela zirudien.

Heinrich-ek agur esan zion. Hurrengo herrira zihoala. Agian biharamunean trena hartzera iritsiko zen. Eskua ematerakoan, Rosak semaiko batzuk pasa zizkion. Ezin ziela uko egin pentsatu zuen Heinrich-ek.

Ilargiak argi-errainu zurbila egiten zuen Rosaren bekokian. Neska ekuadortarretan hain gustukoak zituen begi beltz mindu haiek ume izutuen eskaria igortzen zioten.

* * *

¹⁷² Latinoamerikan, barazkiak lantzeko erabiltzen den lur-sail txikia, gehienetan beste ezer ez duen jende behartsuarena.

¹⁷³ Ekuadorren, bidaiatzerakoan eskuan eramaten diren jakiak.

Ibilian, herria zeharkatu zuen. Bakardadeak ia durundaka zekarkion belarrietara lanturuen oihartzuna. Itzuli eta Rosari eskatuko zion utz ziezaiola atarian etzaten. Elizak ordua jo zuen beste behin. Heinrich-ek gailur garai batean bezala sentitzen zuen bere burua. Egia: indiarrek baino okerrago zegoen. Oinazearen aurrean, ia aberetzat jotzen zituen. Bera ordea, jazarpenetan ere, espirituzko bizitzadun gizakia zen. Barneko solaskideak, ordea, isekaz erantsi zion:

—Eta judu zerri bat!

Ez zen oroi Cuencako mukizuen irain inozoez. Nazien ahots pozoituen oihartzuna zen belarrietan lehertu zitzaiona.

Pozoia hitzetan baino, hitzon soinuan zeramaten. Haiekiko belarri-mina ez zen gizatiarra, ezta aberetiarra ere. Karkaxazko euri-jasa baten marmar zabala oroitarazten zioten. Edota mikrofono batek mila aldiz areagotuko balu bezala, milioika bakterioek harren antzera egin zezaketen borborra.

Ez zekien Heinrich-ek zergatik, baina ahots haien artean, emakumeenak ziren okerrenak. Argi-zitzak izututako saguzar pilaren kirrinka madarikatuak bezala karraskatzen zuten. Gorrotoak jotako algara haien artean, ikasketalagun zituen eta amazona nazionalsozialista egin ziren neska batzuen nabarmentzen zitzaion besteena baino likitsago: Elsa Loeve, Amalia Schmidt, Frida Stein...

Koru hura, hitzez hitz, belarrietara amiltzen zitzaion. Bazekien, ordea, buruko hezurrezko horma artean jaiotzen zitzaiola. Gehiago jan beharko ote zuen?

* * *

Plazan —hainbat tamainatako galtzada-harriz egindako dama-jokoko taula hartan—, ilargirantz jasotzen zen harrizko eliza, ilargi berezko harribitxi izoztu

galant baten pare. Argi eskaseko denda baten aurrean zegoen eta hara sartu zen.

—Erosiko dut... Ea... —eta Rosak emandako semaikoen bila hasi zen poltsikoetan— Erosiko dut erreal eta erdi ogi.

Choloak, erdi lo, erakustokiaren atzean zutik, kaxoi bat zabaldu zuen. Eramangarriagoa zen hotza han barruan. Gantzagi kerratuaren kutsua zerion bonbilla zikinari.

Sartzerakoan, ate ondoan eserita zegoen emakume baten ondotik igaro zen. Zapi handi batek estaltzen zuen eta azpian babesten zituen eskuak. Entzun orduko, bat-batean altxa zen emakumea. Goitik behera begiratu eta kezkazko irri zuriz galdetu zuen:

—Zenbaten ogia esan du?

—Erreal eta erdi —argitu zuen saltzaileak.

Atzea eman eta atera egin zen emakumea. Hartu zituen Heinrich-ek ogitxoak, izoztuak bezainbat gogorrak, eta atarira irten zen astiro. Pontxo baten hegadak eta sorbaldatik eusten zion esku batek harrapatu zuten.

—Hi al haiz judua?

Pontxopeko gizonaren kiratsa hain zen pattarretan bustia, su hartuko zukeela aho parean pospoloa piztu baliote. Heinrich astindu batez libratu zen.

—Zer? Zer gertatzen da? Zer nahi duzu?

—Esan! Nor haiz!

—Eta zuri zer axola?

Une gutxiren buruan, hogei bat morroi zituen inguruan. Emakume eta mutiko gazteak, gehienak. Mutur zabal beroko pontxodunak atzaparrak jarri zizkion berriro gainean.

—Oin ikusko zue froga! —oihukatu zuen, pilaka, gero eta handiagoa zen taldearentzat— Ia, esan egiya: zenbaten eosi uk Mañorenean ogiya?

Galdera, pontxoduna, taldea... denak amets gaiztoa ziruditen Heinrich-en begietan: goseak eragindako zorabioa agian.

—Zer nahi duzue, baina? Utzi bakean! Ez dut inorekin sesiorik nahi. Zer duzue?

—Zenbaten eosi uk ogiya? —jaurti zion besteak, astinduz, belarrira.

* * *

Udaberri batez, baziren bost bat urte, unibertsitateko igerilekuan, Elsa Loevek, barreka egon ezinik, zapladak ematen zizkion eguzkitan belztutako sorbalda-saihetsetan:

—Bai indartsua zarela!

Hain zen zuria Elsa, begiak itxiarazten zizkiola. Modako bainujantzia zeraman: bularretako eta pantaloitxo arinak, puntu gorrikoak. Bai indartsua zela, egiaz, garai hartan! Eta nola hondatu zuen miseriak! Baina Elsa nazia zen!

* * *

Eta lehertu egin zen:

—Hi, kaiku! Hamabost xemaiko-ogi erosi diat, eta zer?

Besteak pozez salto egin eta zoruan ostikoka hasi zen:

—Ha hor! Ha hor! Jainko mattia! Entzun tzue? Bea duk —zioen oihuka, malko-algaraz, keinuka.

—Bea da! —errepikatu zuten berrogeita hamar ahotsek aho-batean.

Taldearen hatsak aurpegian jo zion Heinrich-i: arratsalde hartan bertan garbitu gabeko bere gorputzean higuigarri egin zitzaion piztia-kirats berbera.

—Bea duk!

Eskuak mehatxuka ari zitzaizkion, soroetako galburuak bezala. Aurrean zituen, azal bizitan emandako hozkada bat adina gertu eta mingarri, zuhaitzek izerdia eta gizakiek odola bezala, oinordetzan hartutako amorruak itxuragabetuta zituen aurpegi ubelak.

Minik eman gabe —bitxia—, harri-koskor batek jo zuen bularraldean. Bekokian listukada bat lehertu zitzaion. Pontxodunak sorbalda askatu, eskumuturretik heldu eta, besoa okertuz, ahuspez bota zuen lurrera.

Astindu zituen hankak eta sorbalda gainean etzanik geratu zen; zerua handi eta urrun ikusi zuen... giza adimenak ezin pentsa adina urrun. Ostikadak, harri-koskorak, listukadak eta oihuak nondik-nahi erortzen zitzaizkion.

—Oin bai mendekauko gula Jesu Kristo gure Jauna! Harria! Harria!

—Hil tzagun judua. Eta Guadual, hola, herri beinkatua izango uk!

Dendako etxeoandreak, zapia kenduta, arnasestuka, Heinrich-en aurrean astintzen zuen ukabila:

—Argi ta garbi, Jainko mattia, seinale guztiak: beak dakar izurria, huahuak¹⁷⁴ galtzen ai zaizkiu, zeruetan planeta ageri da eta poltsikoan errial bat t'erdi damatza beti! Bea duk! Harrapau diau judu maarikatua: Jauna earri zenin ura ukau ziona eta mundu zabalean hara ta hona ibili ta ibili dabilena!

Maño deitu andreari pitza zerion ahotik. Burdina batez belauna lokatu zion norbaitek. Sastaka ari zitzaizkion besapean, eraman ezinezko kilimak

¹⁷⁴ Ekuadorren, jendarteko hizkeran, besoetako umea adierazten du.

eraginez. Emakume batek, bere gorputz lodi zabal eta beroaz estali, eskua bragetara bota eta hil zorian jartzeraino estutu zion.

Ezerk ez zuen, ordea, aldentzen izaki haienganako izu-ikaratik: Ashaverorekin¹⁷⁵ nahasi eta iraganeko mendeen ilunpeetatik, bi mila urteren sakonetik, harrika hiltzera atera zitzaizkion piztietatik.

Entzun, bai, entzuten zion Mañori, hitz-jario negargarrian ari zela. Eta entzuten ziolako, ez zituen sentitzen harrikadak.

—Hemen do ne amaide Encarnación eta beak esango-u gezurra diodan; beak e, aldekoekin batea, nekin batea jardun tzun okindegiko gaubeilatan "Judu Alderraia" irakurtzen; han dakar Jainkoaren borrero eta hiltzaile honen berri.

—Hil! Hil tzagun judua! Harrika! Harrika!

Tximista-zitada batek eten zion Heinrich-i gauaren ilargizko kobazuloa. Hiltzen ari ote zen? Kendu zioten aurpegi aurrean babestearren zuen besoa. Eskutada-hauts bota zioten begietara. Erremin urragarri batek bete zizkion betazalak eta malko-zuloak.

Betiereko ilunpeetara jaio zen. Hartatik apalki ulertuko zuen ustea zuen. Bere herritarren patua betetzen ari zen. Bera ere, Heinrich Nussbaum, adiera misteriotsu batean, Ashavero zela onartu zuen. Bera hilez, betetzen ari zen idatzirik zegoena. Bere heriotza galdua, milioika beste heriotza galduekin batera, mendeetan barnako bidaia galduaren amaiera zatekeen, agian.

—Harria! Harria, oindik ostikoka ai duk-eta!

¹⁷⁵ Herrialde kristauetan Erdi Aroan sortu zen Judu Alderraiaren istorio antisemitako pertsonaia. Elezaharrak dioenez, judu batek (izena, herrien/kulturen arabera, ipuin honetakoa edo besteren bat izan liteke) ura ukatu omen zion Jesusi hiltzera zeramatenean eta honek munduan batetik bestera ihes ginez bizitzera kondenatu omen zuen, bere bigarren etorrera edo Parusía arte.

Goitik behera zauritua, hesteak kanpoan zituela, bizirik larrutua, kemena bere argi-errainuen azken keinutan zuen. Inori kontuak hartzeke, bere oinordetza onartu zuen. Judu izatea, gizaki izatea zen, besterik gabe. Juduak ziren Judas eta Shylock; baina juduak ziren baita Jesus eta Marx ere. Aberats zein erreboltari bakoitzaren baitan judu-arnasa dago.

"Jakob bakarrik gelditu zen eta gizon batek Jakobekin borrokan jardun zuen egunsentiraino. Gizonak galdetu zion: «Zein da zure izena?». «Jakob», erantzun zion. Besteak orduan: «Ez dizute aurrerantzean Jakob deituko, Israel baizik, borrokan egin baituzu Jainkoarekin eta gizakiekin eta nagusi atera zara. Jainkoa aurrez aurre ikusi eta oraindik bizirik zen".

Ez zen kexurik haren ahoan. Baina, zertaz zen ziur? Burdinak bete-betean jo zuen burezurrean; agian belaunburuak hautsi zizkioteneko burdinak berak.

1946ko apirila

AZKEN SOLASA

Honezkero irakurri duzu Joaquín Gallegos Lararen kontakizun-sorta hau. Egin ere egingo zenuen jada idazlearen zeure argazkia: izaera, pentsamoldea, hautuak... egingo zenuen baita haren heziketa eta kultura, haren filia eta fobia nahiz bizipenen ideia bat ere. Ez naiz harrituko zenbait pasartetan hunkituta edota txundituta geratu zarela esaten badidazu. Niri neroni ere horrelako zerbait gertatu zitzaidan.

Gogoan dut Ekuadorren izan zela, 1991n Guayaquilen egonaldi bat egin nuenean. Ekuadorko kultura ezagun nezan, lagun batzuek liburu bat jarri zidaten eskuetan. Azala aski zaharkitua zuen: urteek nahiz eguzki-izpiek itsasten duten kolore nabar ezin zehaztu horretakoa. Argi erakusten zuen lehen kolpean alea apal batean gordea ez, esku askoren ahurretan eta oso giro desberdineko lekuetan erabilia izan zela. Orriek, gainera, tropikoko pipien arrastoak erakusten zituzten: gain-zama neketsua –pentsatu nuen– tropikoko kulturari tokatu zaiona literatur edukiei eusten, irakurleen eskuetara iristerako.

Gogoan dut liburukiaren izenburua ere: *Los que se van*¹⁷⁶. Ipuin-liburua zen eta, adiskideek ohartarazi zidatenez, lagungarri ona izango nuen, herrialde hartako jendea eta kultura ezagutzeko eta, agian, ulertzeko.

Irakurri ere, irakurri nituen oin-oharrean aipatzen ditudan hiru idazle haien ipuinak. Liburukiak idazle bakoitzaren zortzina ipuin zekartzan; eta, egia

¹⁷⁶ AGUILERA MALTA, D. - GALLEGOS LARA, J. - GIL GILBERT, E., *Los que se van. Cuentos del cholo y del montuvio*. Editorial Zea Paladines, Guayaquil 1930.

esan, doinu eta kutsu berriz jantzirik zetozkidan, nireak bezalako belarri europarretara. Adi-adi irakurri nuen liburua; esan ere, esan baitzidaten idazleok XX. mendeko literatura ekuadortarraren hiru ikur zirela. Eta aukera ez zen pasatzen uztekoa.

Denak aski interesgarriak egin bazitzaizkidan ere, ipuin-multzo bat arras deigarria gertatu zitzaidan: Joaquín Gallegos Lara izeneko idazleari zegokiona. Haren ipuin-orrietako egoerek, pertsonaiek, bizipenek eta abereek beraiek ere bazuten, nire aburuz, halako indar berezi bat. Jakin-mina eragin zidan. Nor ote zen idazlea? Zergatik zetozen liburu hartan hirurak batera? Argi baitzegoen, ale haren hitzaurrean adierazten zenez, argitalpena, ipuin-kopurua, gizarteratu nahi zuten mezua... ezagutzen ez nituen berariazko arrazoiengatik adostu zituztela hiru idazleek.

Jakin-min horrek eraginda, hirukote hartatik nabarmenena egin zitzaidan Gallegos Lara izeneko hartaz galdezka hasi nintzen. Eta jakin nuen idatzi zuela ipuin gehiago ere; bazuela baita nobela bat ere, *Las cruces sobre el agua* izenekoa, Guayaquilen historiako gertaera lazgarri bat oinarri hartuta, hiriaren oso argazki zuzena ematen zuena; baita, irakurri berri nuen liburuko egileekin eta beste bi gehiagorekin, *El Grupo de Guayaquil* izeneko idazle-talde bat osatu zuela ere.

ZEIN dugu idazle hau?

Joaquín Gallegos Lara (1909-1947) Guayaquilen jaio zen erabat sustrai eta ingurune kreoleko sendian. Aitaren aldetik, XIX. mende-hasieran Espainiatik joan eta urte gutxiren buruan Ekuadorri hainbat profesional eta intelektual eman zizkion familiakoa zen. Amaren aldetik, berriz, independentziaren aldeko borroketan nabarmendu ziren hainbat heroi ekuadortarren ahaidea

zen. Historiaz eta joeraz, erabat kutsu eta arnasa liberal eta aurrerakoiak bizi eta bereganatu zituen jaiotzetik bertatik gertu-gertuko testuinguruan eta horiez blai egin zen, baloreei, kulturari, politikari nahiz, oro har, gauzen ikuskerari zegozkienetan.

Aita Joaquín Gallegos del Campo izan zuen; baina gure idazleak ez zuen ezagutu, urte eta erdi zituela hil baitzen. Emma Lara Calderón, ama alargunak nahikoa lanak izan zituen bere seme bakarra aurrera ateratzen. Izen handiko medikua zen amaren anaia Julianek eskaini zien aterpea erabakigarria gertatu zen, bat-batean noraezean geratu ziren alargun-umetxoentzat.

Izan ere, ondorengo datuak pasadizoa irudi baleza ere, XX. mende-hasierako Guayaquil hartan urte eta erdirekin umezurtz geratzea nolannahiko arazoa ez bazen, oraindik gutxiago, gure ama-semeoi zegokienez, Joaquín elbarria baitzen jaiotzetik. Haurdunaldian amak izandako eroriko baten ondorioz, semea bizkarrezurreko kalte larriekin eta hanka biak ezertarako ez zirela jaio zelako.

Horregatik, hasieratik adieraztekoa da Joaquín Gallegos Lara, harrigarria bada ere, autodidakta zela. Hau da, ez zela inoiz eskolatu edo, zehazkiago esateko, ezin izan zuela inongo eskolatan jardun eta, ondorioz, inolako ikasketaren aitortpen ofizialik ere ez zuela. Izan ere, aipatu lesio larriaz gain, berari loturik sufritu zuen gernu-ihesak, ezinezkoa egin zuen haurraren eskolatzea. Horiek horrela, ama arduratu zen semearen prestaketa akademikoaz, etxera, frantsesa eta italiara irakastera, joaten zitzaizkion hizkuntza-irakasle biren laguntzaz. Eta buruz oso argia eta bihotzez sentiberatasun handikoa izaki, Joaquínek ongi baino hobeto baliatu zituen laguntza guztiok.

Harekin harremana izan zuten guztiek azpimarratzen dute irakurzale neka ezina zela, oso kultura handiko gizona, kultura orokorreko gaietan bezala, kultura garaikideko gaietan ere; ume-umetatik pilatuz –eta irakurriz– joan zen liburuetatik jaso zalantzarik gabe. Hori frogatzen du ondorengo datuak: gai zen frantsesez, italieraz, alemanez eta errusieraz irakurtzeko. Konturatuko zinen honezkero horretaz, aurreko orrietan ikus litezkeen hainbat arrastotatik.



1922ko azaroaren 15a. Langileen manifestaldia Guayaquilgo erdigunean, tiroketa hasi baino apur bat lehenago.

Idazlea mutiko zela, 1922ko azaroaren 15ean –hots, 13 urte zituela– gertatu zen «Guayaquilgo Sarraskia» izenez ezagutzen den gertaera lazgarria. Kakaoaren beherakadak Ekuadorri eta Guayaquili, bereziki, ekarri zion krisialdiko istiluetan, soldaduek ehunka manifestari hil zituzten tiroka, gaur langileen oinarritzko eskubidetzat ditugun eskaeren aldeko manifestaldi batean.

Nola bizi izan zituen mutil koskor hark gertakariok eta, bereziki, egun hura? Ez dugu arrastorik; baina zalantzarik ez, eragin itzela izan zutela idazlearen hautu politikoetan zein literaturakoetan. Horren erakusgarri, Ekuadorko literatura modernoaren mugarritzat eta «*Guayaquilgo nobela eta hiri-*

nobelagintzaren abiapuntu»tzat hartzen den eta esku arteko egile honi zor zaion *Las cruces sobre el agua* nobela-lana.



Gurutzeak Guayas ibaiko uretan, 1922ko sarraskiaren oroigarri.

Badugu, ordea, gertakari haietatik gutxira koka dezakegun datu zehatz bat. Joaquín gaztea, 18 urte besterik izan ez arren, Guayaquilgo intelektual gazteen ikur bihurtu zen jada: datu zehatza baita 1927rako haren etxean elkartzen zirela hainbat intelektual gazte, ordurako aski ezaguna zen gure idazlearekin solastatzera. Tarte horietan ezagutu zituen Demetrio Aguilera Malta eta Enrique Gil Gilbert kideko idazleak ere, laster lankide eta idazle lanetan gogaide izango zituenak. Uda bateko oporrak Guayaquilen eman zituela-eta, hara azaldu zen, baita, geroago Joaquínen emaztea izango zen Nela Martínez Espinosa, Cuencako (Ekuador) neska gaztea ere.

Idazteko zaletasuna –eta lana!– bazter utzi gabe, 30eko hamarkada hastean bat, buru-belarri hasi zen politikan: 1931n Juventud Comunista-n izena eman eta langileekin bat eginik jardun zuen urte haietako borroketan nazio osoan. Joan-etorri horietan eskuz esku jardun zuen Nela Martínez Espinosa

gaztearekin eta hartu-emanan ezkontzan burutu zen 1935ean¹⁷⁷. Bikote-bizitzak, ordea, hilabete batzuk bakarrik iraun zuen. Ez, ordea, politikako eta literaturako lankidetzak, hiltzean Joaquínnek Nelaren esku utzi baitzuen oraindik argitaratu gabe zuen hainbat eskuizkribu. Horietako batzuk –**Los Guandos** nobela da esanguratsuena– Nelak berak osatu eta argitara emanak.



Joaquín Gallegos Lara eta Nela Martínez Espinosa

Ez zen, alabaina, Joaquín “alderdi-aparatu”ko gizona, ez zen horretatik bizi; kultura-aldizkarietarako idazten zituen artikuluetatik baizik eta, horrek bizitzeko adina ematen ez zuenez, han-hemenka ematen zizkioten lanetatik: hartxintzarra garraiatzen zuten kamioien kontrolatzaile, liburutegiko laguntzaile, bulego ofizialetako administrari, udal igerilekuko txartel-saltzaile, besteak beste; betiere baldin eta agintean zegoen unean uneko

¹⁷⁷ Mariana de Jesús “Nela” Martínez Espinosa (1912-2004), Joaquín Gallegos Lararen emaztea izateagatik gainera, Ekuadorkoko literaturari eta politikagintzari egin zion ekarpenengatik da ezaguna. Feminista eta ezkertiarra, bera da, besteak beste, nazio hartan diputatu kargua eskuratu zuen lehen emakumea.

politikoari ongi irizten bazitzaion, aldaketak eman ahala, sarri gertatzen baitzen lana ere galtzea.

Jardunbide neka ezin horretan, pentsatuko zenuenez honezkero, ezinbestekoa zuen Gallegos Larak harat honat mugitzea. Juan Alberto Falcón Sandoval indigena txiki eta sendoaren sorbaldak (1912-2005) izan ziren 12 urtez Joaquín-en hankak. Bien artean osatzen zuten irudia oso zen ezaguna garaiko Guayaquil hartan. Elkarren begirune zintzoan oinarritutako harreman hura 1945ean amaitu zen, garraiatzailea ezkondu zenean. Idazleak, bere aldetik, egitekoari ekitean agindutako laguntza eman zion Juani eta, lortu zion lanari esker, atera ahal izan zuen aurrera bere familia. 1946an hasi zen idazlearen hil arterainoko beherakada. Alderdi komunistaren baitako liskar ideologikoak tarteko, lagunek bazter utzi zuten, batetik. Jaiotzez zuen ezintasun fisikoari loturik hainbat urtez sexu-ataletan izan zuen infekzioak, bestetik, okerrera egin zuen eta minbizi bihurtu zitzaion. Osaba medikuak Estatu Batuetara eraman nahi zuen, baina hango agintariek ukatu egin zioten sarrera. Etsi-etsian Limako erietxe batean jarritako tratamendua beranduegi etorri zen eta, lau hilabete egoera oso larrian egin ondoren, 1947ko azaroaren 16an hil zen Guayaquilen, Joaquín-entzat hain esanahi sakona zuen dataren biharamunean.

ZER dugu idazle hau?

Zertzelada biografiko laburren ondoren, ongi etorriko da egilea –eta, bidenabar, liburua bera– behar bezala kokatzea irakurle euskaldunarentzat, historia, kultura, literatura, estilo... aldetik.

- **Guayaquildarra**

Horixe jarriko nuke –hiriaren izenari loturik, apropos– idazlearen lehen ezaugarritzat; baina berdin esan nezakeen «montubioa», «herriko semea» edota herri-erroekin zuen lotura estua adieraz lezakeen besteren bat.

Izan ere, Ekuadorko modernismoaren erreferentea den Medardo Ángel Silvaren (1898-1919) heriotzakoan¹⁷⁸ eta 16 urte bete artean eredutzat zuen poetaren taxu modernistan idatzitako lehen poemak izan ezik, Gallegos Lararen lerroetan herriko pertsonaia xumeak eta haien egoerak dira erabateko protagonista: bizitzeko lain ozta-ozta ateratzen duten nekazariak, gizarteko zibilizazio-moduekin eten eta hirira mozkortzera baino ez datozen ehiztari eta basomutilak, jornaleko peoi eta ofizialak, azken-aurrekoen menpeko ziren indiarrek, edo beltzak, edo emakumezkoak, edo kaleko mutikoak.

Ezaugarri horiei loturik, pertsonaia horien guztien izen-deiturak ere batere osperik gabekoak dira: Chancho-rengo, Lucha, Chumbote, Negro Manuer, Negro Llorel, Cuchucho, Manflor... Herriko zoko lohietan ezereztuon ezpainetan kontakizun bakoitzean ageri bezala erabiltzen eta entzuten zirenak. Hori bai: lotura handia dute aurrerago aipatuko dugun idazlearen militantziarekin.

¹⁷⁸ Adierazgarria da, zein kontzienteki ekin zion Gallegos Larak aipatu poetaren suizidioaren ingurumarian bere literatur lanari. Hamabi urte besterik ez zituen, baina argi zeukan, Zorrilla berri gisa, bere lehen urratsa ematen ari zela literaturgintzan. «*Data Medardo Ángel Silvaren suizidio-egunak eman zidan: egun hartan poeta sentitu nintzen... Nire bizitzaren ontzia mila bederatzirehun eta hogeita bataren uberan zihoan, ilusioz eta gazte-goiztiartasunez beterik... Ezin izan nuen, Zorrillak Larraren heriotzakoan bezala, nire ahotsa gure suizidaren buruan irekitako ildoan bota. Oraindik ez nuen ahotsik. Poesia sentipen-olatuaren gainez egitea besterik ez zen niretzat: barreneko sua. Hamabi urte nituen... hori bai, han nintzen*».

Idazle-lanari gagozkionez, literatur kritikariek diote gure Gallegos Lararekin hasten dela Ekuadorko literaturan errealismo soziala. Literatur hautuak merezi adinako isla du bere idazkeran eta, ipuinetan barreiatuta, ugariak dira herri-esamolde eta mintzairak, edota herriaren nahiz indigenen lexikoaren lekukoak. Are gehiago: protagonistok gehienetan gramatika aldetik zuzena ez den herri-hizkeran mintzatuz ageri zaizkigu ia kontakizun guztietan. Are gehiago: Gallegos Larak pertsonaiari ondo erreparatu eta gero erabili ohi idazkera 'okerra' edo 'zuzena'.

Idazlearen muga ote? Ezta gutxiago ere! Itzulpen honek, horregatik, haren borondateari jaramon egin eta nolabaiteko irtenbidea eman behar izan dio eta, konturatuko zinenez, hala egiten saiatu naiz herri-hizkeran eman ditudan pasarte ugarietan, herriak berak, zenbaitetan zuzen egon ez arren, darabiltzan esaera-esamoldeak erabili ditudanean.

Ezaugarria inoizko eskandalu zaratatsuenetakoa izan zen Guayaquilgo zirkulu akademiko formaletan eta, oro har, ahalmen politikoa eta ekonomikoa bere gogora erabiltzen zuen jendartean. Aipatu hizkuntz janzkera herritarrean kaleraturik, garaiko kritiko bakar batek salbu, gainerakoek oso harrera txarra egin zioten arestian aipatu *Los que se van* lehen ipuin-liburuari. Urteek, halere, bere tokian jarri dute gure idazlearen eta talde osoaren ekarpena eta gaur egun Ekuadorko nobelagintzaren une eta ekarpen aipagarrienetakotzat hartzen dira idazlanok eta egileok. Apustu handia izan da niretzat jokaera hain bitxi hori euskaraz eman eta euskal irakurleari gerturatu eta ezagutzera ematea.

Horri loturiko beste detailea: egileak etengabe aipatzen ditu herriak erabiltzen dituen joskera, hitz eta moldeak. Abere-landareen izenak izan litezke, edota Guayaquilgo zoko nahiz aretoak, edota Hego Amerikako

independentziari loturiko datak eta lekuak, edota herri xumearen era guztietako erreferentziak. Errazegia zatekeen beren hartan utzi eta besterik gabe ematea. Baina herri txiki hartako idazle handi honen eta Euskal Herriko hizkuntzaren nahiz irakurlearen errespetuagatik, zor niela pentsatu nuen batari zein besteei itzulpenarekin batera, hainbat hitzen azalpenak ere ematea. Hori izan da liburuan hainbeste oin-ohar aurkitzearen arrazoia. Asmatuko ahal nuen! Eta, batik bat, lagungarri izango ahal zitzaizkizun!

Dena dela, nire ohar eta azalpenak gorabehera, konturatuko zinela uste dut Gallegos Larak zenbait pasartetan erakusten duen Ekuadorko abere eta landareen hain ezagutza zabalaz. Miresgarria, zalantzarik gabe, Guayaquilgo kale eta inguruetara ezinbestean mugaturik bizi zen 'kalekume' honetan ageri zaigun ezaugarri hau; ez baita mugatzen bere flora/fauna-ezagutzen aipamen akademiko hutsala ematera, bete-betean asmatzen baitu baizik, horietako bakoitza den, kokatuta dagoen, erabilia zein balioetsia nahiz gorrotatua den ñabarduretan.

Argi eta garbi, jendearekin –jende xehearekin– luzaz izan zituen hartu-emanen hitz egiten digun datua: pertsona eta ezagutza horiek aintzat hartu eta beren jatorri xumetik literaturaren maila unibertsalera igotzen saiatu zen ikertzaile nekaezin honena... bere ezkertiar hautuetatik, geroago esango dugunez. Aurreko guztia gutxi balitz, esandakoak oraindik harrigarriagoak gertatzen dira bere ezintasun fisikoengatik eskolara joan ezinik geratu zen pertsona gazte bati buruz ari garelako.

Gorago aipatzen nuen gure egilearen estilo-aldaketara itzuliz, zerikusirik izan ote zuten horretan azaroaren 15eko gertakariak? Kontuan izanik idazlearen lehen literatur urrats haietatik urtebetera gertatu zirela, niri behintzat ez litzaidake harrigarria egingo pertsona helduaren izaera finkatuz doan

nerabezaro-gaztaro bitarteko gertaera haiek nortasunean, hautu politikoetan eta arte-joeretan utzitako zantzua izatea.

Aipagarria da, bestalde, idazlea erabat kreole-girotik etorri arren, taxuketa horretako pertsonaiek ez dutela kontakizunotan protagonista-rolik: kontaktaren ardatza direnen kontrapuntu edo kontraste gisa ageri dira gehienbat, askotan kutsu peioratiboz, gainera... jakitateari dagokionez idazleak hain maite duen kulturaren jabe badira ere.

Gallegos Lara erditze-minetan den Guayaquil berriaren lekuko da. Min du desagertze-zorian den Guayaquil zaharra. Atzera bueltarik gabea ikusten du, pausoz pauso ertz batean eta bestean azaleratuz doan Guayaquil berria. Ez du hura erreibindikatu azken honen aldean. Bere burua hiri berri honetan kokaturik eta beronen aldeko apustuan murgildurik ikusten du; baina ezin du utzi mahai gainean jarri gabe gera ezinezko eraldatze horrek dakarren sufrimena. Azaroaren 15eko gertaerak, hain zuzen, ez al ziren gertatu horren erakusgarri gordinena?

Nola edo hala, gauza da joera eta ideia horiez jantzita sortu zela gure idazlea sortzaile izan zuen hala deituriko **Grupo de Guayaquil** taldea. Are gehiago: taldea osatzen zutenen asmo eta bat-egitearen erakusgarri da taldeak irabazi zuen **Los cinco como un puño** deitura.



Grupo de Guayaquil sortu zuen idazle-taldea: Joaquín Gallegos Lara, Enrique Gil Gilbert, Alfredo Pareja Diezcanseco, Demetrio Aguilera Malta eta José de la Cuadra

- **Kultura unibertsalean kokatua**

Arestian aipatu ezaugarriak gorabehera, harrigarria da neurri berean herri-kulturaren ardurak ez zuela gure idazlea txikikeriatan itxita utzi, ezta folklorismo ederzale, bukoliko edo nostalgikora eraman ere. Gallegos Lara erabat hiritarra dugu, buru-belarri murgilduta bizi da metropoli bihurtzen ari den Guayaquil hartan; kultur korronte unibertsalaren baitan guayaquildar ageri da deliberatuki bere hautu ideologiko argietatik.

Esaten dudanaren erakusgarri, beti egin zait harrigarria –‘txundituta uzteraino’ ere esango nuke– eskolatu gabeko gazte elbarri hark hain ezagutza sakona zeukala mundu zabalean eta, bereziki, Frantzian egiten zen literaturaz. Ipuin-sail honetan jarraitu ahalko zenituen esaten ari naizena egiaztatzen duten hainbat arrasto aski esanguratsuak. ***Etxekoandrea*** izeneko ipuina gomendagarrienetako bat, nire ustez, esandakoa frogatzeko. Berori egin zait Joaquínek kultura europarrak duen ezagutzaren erakusgarri behinena. Neronek ere, ipuin horri esker, ezagutzen ez nuen hainbat xehetasunez jabetzeko zoria izan dut. Bada han paragrafo bat, non bizpahiru lerrotan aditzera ematen duen ezaguna duela P. Loti idazle frantziarra, baita zer iritzi duen Blasco Ibañezi buruz edota erreferentziarik aurkitu ez dudan beste idazle italiar nahiz frantsesei buruz ere. Paragrafo beretik atera gabe, ohartu nintzen bazekiela baita zein deitura ematen zaion (Elzevir) XVII. mendean guk «poltsiko-liburu» deituraz ezagutzen ditugunen parekotzat har dezakegun Errenazimentu garaiko liburu-motari ere.

Hori gutxi balitz, ñabardura berri bat erantsi behar zaie datuoi; izan ere beste arrasto batetik ondoriozta dezakegu idazlea jakitun zela garaiko literaturak – frantsesak, kasu honetan– une hartan zeraman bilakaeraz. Horren erakusle izan liteke **Gerra** izenburua daraman ipuina, Henry Barbusseri eskaintzen diona. Ezezaguna izaki niretzat, bilatu beharrean aurkitu naiz hari buruzko datuak; baita ikusi ere XX. mende-hasierako naturalismoan kokatzen duten idazle frantsesa dela, Goncourt sariaren irabazlea **Le feu** nobelari esker, militante komunista liluratu eta kartsua, eta 1935ean hil zela. Horiek horrela, zuzenean datorkit galdera: gertaera horren kariatara idatzi ote zuen ipuina? Lehenagotik ere ezagunak ote zituen haren lan-pentsamoldeak? Era bat edo bestera, pasarteak nobela hura du oinarri eta, bidenabar, Gallegos Larak, bere muga eta guzti, Guayaquilgo ertz hartatik Europako kultur ikuspegiatz zuten ezagutzaren erakusgarri esanguratsua da.



Idazle latino amerikarrak Guayaquilen (1939). Ezker-ertzean, Joaquín Gallegos Lara; hirugarrena, Alfredo Pareja Diezcanseco; erdian, John Dos Passos, idazle estatubatuarra, eta Demetrio Aguilera Malta; eskuin-ertzean, Enrique Gil Gilbert.

Literaturarekin loturiko adibideok ekarri baditut ere esaten dudanaren erakusgarri, ipuinotako lerroek eguneroko bizitzako askoz datu gehiago

islatzen dute, Joaquínen aipatu ezaugarria baieztatzen digutenak. Gomendatuko nioke irakurleari begi zorrotzez errepara dezan datua.

- **Bidegilea**

Joaquín Gallegos Lara zerbaitengatik bada deigarria, ez da nola edo halako eskolaren ezaugarriak nabarmenki edo maisutasunez erabiltzen dituelako, kontziente delako baizik, bere herrian, oro har, bide berriak ireki behar eta nahi dituela. Gizartean, politikan eta ekonomian bezala, Ekuadorko literatura ere bide berriak ireki beharreko kinkan ikusten dute gure idazleak eta kidekoek. Horri begira elkartzen ziren kultura-gizon eta -emakumeak Joaquínen ganbaran eta horretarako sortu zuten *Grupo de Guayaquil* izena eman zioten idazle-taldea.

Hastapeneko urratsak une hartan hedatuena zen modernismoaren bidetik eman bazituen ere, egileak eten egin nahi du harekin, oso bestelako bidetik jotzeko; eta urte gutxiren buruan, idazkera goitik behera aldaturik ageri zaigu: aditzera eman nahi duena esaldi laburretan jantzita dakar, kaleko hitz eta hizkeran –eta ‘kakografian’!–, ahal bezain apaingarri eskasenez. Hala ere, aldian-aldian pasarte oparoak azaleratzen zaizkio hainbat paragrafotan, literatur “eskolako” modu eta moldez idatzirik. Susmoa dut “ezin” zuela beste erara aditzera eman barruan sortzen zitzaion literatur etorria eta arnasa. Irakurleari kutsatu nahiez deskribapenetan hariltzen du, bereziki, modernismotik edan zuen idazkera akademikoa. Kutsatu nahiez-edo errealtate deskribatuak sorrarazten dion inpresioa? Edo horrela baino ezin duelako azaleratu paperera jaulki nahi dituen sentsazioak?

Gauza da estilo-aldaketa hori beren-beregi ikusgarri egiten duela: esaldiak ezin laburragoak egiten ditu, perpaus bereko zati izan litezkeen atalak puntu

bidez zatikatuz. Berriro diot: propio hautatu eta jarraitu nahi duen idazkera da. Eta egileari zintzo izan nahirik, neronek ere hori islatu nahi izan dut itzulpen honetan... geure hizkuntzari ere zintzo jarraitzearekin uztartu beharrak aski buruhauste potoloak ekarri badizkit ere zenbaitetan. Jakingo ahal du irakurleak horrela hartzen jatorrizko asmo hari jarraituz osatu ditudan pasarteak! Asmatuko ahal nuen bi irizpideei leial izaten!

Horiek guztiek ekarri zuten kidekoek taldearen lidergoan jartzea eta Ekuadorko idazle onenen artean hartua izatea. Esate baterako, hau esaten zen 1926an aipagai dugun idazleaz Guayaquilgo bi aldizkaritan: *“Laburbilduz, esan dezakegu Joaquín Gallegos Lara dugula Ekuadorko literaturgintzan etorkizun handiena duen idazlea”*¹⁷⁹. *“Medardo Ángel Silvaren ondoko intelektualen belaunaldiko izenen artean, lehen lerroan jarri beharrekoa dugu Joaquín Gallegos Lararena”*¹⁸⁰. Idazlea, une hartan, 16-17 urteen mugan zebilen eta, oraindik modernismoarekin eten ez bazuen ere, hasita zegoen jadanik bere maisutasunaren arrastoak ematen.

Zerabilen hitz eta hizkeragatik hartzen da gure idazlea bidegiletzat. Taldekideekin batera, ordura arte ikusi gabeko ahalegina egin zuen herri-hizkerara hurreratu eta zuzenean jasotzeko. Literatur balioa eman nahi zion herri-hizkerari, berori delako berarentzat hizkuntzaren arnasa; eta hitza letra egin nahi duenak iturri horren jarioari zor diolako bere emaria.

Baina, idazlaneko hitzak baino harago, kostunbrismoa edo folklore-arreta baino sakonago, Gallegos Lara bidegiletzat hartu beharrekoa da hitz egiten sumatzen duen herritarra bera jartzen duelako protagonismo-rolan:

¹⁷⁹ *“Variedades”* aldizkaria, 60-61. zenb. Guayaquil, 1926ko urtarrila-otsaila.

¹⁸⁰ *“Páginas Selectas”* literatur aldizkaria, Guayaquil, 1926.

objektutzat hartzea baztertu eta subjektu egiten duelako. Kontakizunok direla bide, idazlea ingurunearen argazkia eskaintzen ari zaigu eta, une berean, baita istorioaren testuingurua gainditzen duen irakurketa historikoa egiten ere.

Liburu hau, horregatik, Ekuadorko errealismoaren erakusgarriarik behinenetakoa dugu: distiratsua, berritzailea eta sustatzailea. Aro berria ireki zuen herri hartako literaturan. Zenbaitek “*Ekuadorko narratibaren urrezko aro*” deitu dio eta, zalantzarik gabe, Latinoamerikako klasikoen hainbat izenburu ezagun ekarri dizkigu.

Ezaugarri horrek, ordea, izan zuen bere ifrentzua: Gallegos Lararen lanak polemika artean zabaldu ziren gehienetan. Idazlearen kolore politikoak gehiegi markatuta irakurri dira idazlanok. Kritikariak berak ere halako «*epojé*» literario bat, gutxienez, egitera eraman zituen eta daramatza gaur bertan... eta egilea polemika-lanetan sarrarazi zuten eta, agian, sormenerako gaitasunak nahi baino gutxiago jorratzera eraman.



1947ko azaroaren 17an, Joaquín Gallegosen heriotzaren berri emanez,
Guayaquilgo egunkari batek atera zuen lehen orria

- **Militantea**

Azken lekuan kokatu badut ere, ez da gure idazlearen azken ezaugarria. *Grupo de Guayaquil*go kideekin batera, “*errealitatea; eta errealitatea, besterik ez*” ikurtzat hartuta, begien aurreko bizitza literaturara jasotzeaz gain, autoreak agerian jartzen du askotan ikusten duenari dagokion bere irakurketa ere. Esan dugu lehenago: egilearen asmoa ez da etnografo edo folklore zalearena, idazle konprometituarena baizik.

Ikuspegi horretatik ikusi behar dira idazkiotako pertsonaia guztiak eta sumatu, bakoitzak jokatzen duen gizarte-rola eta ohartu, bakoitzak erakusten duen ‘kolorea’ edo zantzua eta ulertu, idazleak lerro artean egiten duen analisia. Ipuin bakoitzean zein ageri da esne-mamitan? Zein, miseria gorrian? Interesgarria da irakurketa hori aplikatzea bai ekonomiaren, bai kulturaren, bai hizkeraren, bai boterearen, bai justiziaren, bai moralaren... ikuspegitik.

Ilido beretik, kontakizunotako protagonisten klase-jatorriari erreparatzen badiogu, lau ipuinetakoak bakarrik dira kulturadunak edo klase jasoetakoak. Gainerako ipuinetan kontrapuntu-rola besterik ez dute betetzen. Idazleak osatzen duen koadroaren erdigunea gorago aipatu ditugun gisako pertsona arrunt, baxu eta, inoiz, aski alprojek betetzen dute.

Horiek horrela, argi ditzadan lehenbailehen bi gauza. Bata: azaltzen zaiguna fikzio izateak ez du esan nahi asmakeria edota –are gutxiago– iruzurra direnik. Ipuinok gertatu ez badira ere, errealitatea horixe da eta horregatik datoz horrela: errealitatearen fikzioak errealitate direlako ‘ipuinertu’ dira eta ez diote, horregatik, errealitate izateari utzi. Bestea: ipuinok ez dira panfleto politikoa. Izan ere, kritikari lagun guayaquildar batek esaten

zidanez, *“errealismotik panfletora urrats bat besterik ez dago”*; eta egileak, maisua izaki, panfletotik urrun idatzi bezala, hala irakurriko zenituela espero dut honaino iritsi zaren horrek ere: errealitatearen irakurketa sakon gisa.

Hasi irakurtzen eta, orriotan murgildu orduko, nabaritzen da. Ez dator inoren juzgurik, ez balioespenik. Ez dator ikasbiderik, inoiz zuzenean horrelako zerbait eskatzen duela irudi baleza ere. Arreta bakarra errealitatea berreskuratu eta irakurlearen begietara ekartzea da. Harrigarria irudi lezake europarron begiz ikusita, autoreak bezalako militantzia eta eragiteko aukera izandako batengan; baina Hego Amerikako gizarte-egitura eta indarbanaketa ezagututa, errealismozko jokaera aitortu behar: alegatuak, salaketak, hitz sutsu edo handiosak baino sarkorrangoak ziren testuinguru hartan, zirrararik edo astindurik emateke, gauzak argitara atera eta, besterik gabe, deigarri izan zitezkeen gaiak ikusgarri egitea, alegia, kostunbristatzat hartzeko arriskuaz bazen ere. Horregatik, aitor ezina delako edota, oro har, halabeharrekotzat hartzen delako, egokiago iritzi zion hartutako bideari. Eta, besterik gabe, horretantxe geratzen da.

Zure esku, irakurle, ta zure analisi- nahiz hautu-gaitasunen esku dago gainerakoa. Neutraltasuna? Estrategia? Kortesia? Deus ez, horietatik; Joaquín Gallegos Lararen literatur maisutasuna baino.

Egina dago gonbita, zu zerori izan zaitezzen zuzenean zeure ondorioak ateratzera iritsiko zarena.

Bidea lagun bekizu.

Esteban J. Agirre Lazkano

2013/05/31